

eraldaketarako aldizkari politikoa
2022ko ekaina / www.eria.eus



ERRIA 9. zenbakia

Azaleko ilustrazioa:
Oier Zuñiga

Argitaratzailea:
Iratzar Fundazioa

Editoreak:
Andoni Olariaga
Gotzon Elizburu

Erredakzioa:
Andoni Olariaga
Gotzon Elizburu
Itziar Amunategi
Oier Narbaiza
Maialen Arteaga

Argazkiak:
Foku

Diseinua eta maketazioa:
Grafik Sarea

Itzulpenak:
Frantsesa: Amaïur Renteria

Ilustrazioak:
Oier Zuñiga

Egoitza:
Zuatzu enpresa parkea,
Easo eraikina 4, behea.
20018 Donostia
tlfnoa: 943 265982

www.erria.eus
erria@erria.eus

twitter: [@erria_eus](https://twitter.com/erria_eus)
facebook: www.facebook.com/erria.aldizkaria
Telegram: ERRIA
Instagram: [@erria_aldizkaria](https://www.instagram.com/erria_aldizkaria)

Erria aldizkaria Iratzar Fundazioa
eta Sorturena da.

Lege gordailua:
SS-0033-2018

Jabego lizentzia:
CC BY-SA

**Axolagabekeriaren azken
belaunaldia gara, mugarik
gabe edozer ustiatu dezakegula
imajinatuko duen azkena.**

Naomi Klein



07	EDITORIALA	Momentua irakurtzen jakiteaz
14	SAKONEAN	ELENA BELOKI RESA ETA GORKA ELEJABARRIETA DIAZ “Azken 40 urteetan nola halako autonomia bat izan duten herrialde guztietan independentismoa indartu egin da”
42	ELKARRIZKETA	Erria “No pedimos venganza, sino reconocimiento y reparación”
62	ERREPORTAJEA	Jokin Aspiazu Carballo Maskulinitatea afera politiko bezala
72	ARTIKULUA	Amagoia Susperregi Bergara Amaiuraldia: iraganetik etorkizunera
84	ERREPORTAJEA	Euskal Herriko Bilgune Feministako kideak Burujabetza feministatik, herria
DOSIERRA: NEOLIBERALISMOAREN KARTOGRAFIA BERRI BAT		
94	ERREPORTAJEA	Fase historikoa ondo ezaugarritzeaz
102	ERREPORTAJEA	Ezkerretik segurtasuna hizpide
108	ERREPORTAJEA	Deskarbonizazioaren azken geltokia
122	ERREPORTAJEA	Lapur bandez eta denon denaz
130	ERREPORTAJEA	QAnon, conspiración y negacionismo en la tormenta perfecta de la extrema derecha
138	SINADURA	Mundua eraldatzen duen ezker behar dugu

10	TXIO-TXIOKA	
30	ARTIKULUA	Narrea Hernandez Izaga Osasun sistema publikoa. Gaurko egoera eta biharko Euskal Herria
52	ARTIKULUA	Ernainen Nazio Biltzarra Gazteok ehotzen
58	ELKARRIZKETA	Maialen Arteaga Gonzalez “Xuti Gaztek ilusioa berriz pizteko eta borroka batzuen lekukoa hartzeko indarrak biltzeko balio dit”
66	ERREPORTAJEA	Olatz Arregi Uriarte, José M ^a Rivadeneyra Sicilia, Ana Zelaia Jauregi Internet ... berdea?
78	ARTIKULUA	Edurne Benito del Valle Euskal unibertso berria amestuz
144	ERREPORTAJEA	UCRANIA: UN PUZZLE CON MUCHAS PIEZAS Txente Rekondo. <i>Analista internacional</i>
152	ERREPORTAJEA	“EL PROCESO CONSTITUYENTE Y LA POTENCIA FEMINISTA SON DOS CARAS DE LA MISMA MONEDA” Erria
162	ERREPORTAJEA	ESPAINIAKO ESTATUA, BETIKO LABIRINTOAN Mertxe Aizpurua <i>EH Bilduren Madrilgo Kongresuko bozeramailea</i>
168	SINADURA	FRANTSSES ESTATUKO LURRIKARA POLITIKOAREN UHINA Txomin Poveda. <i>Sortuko kidea</i>
174	SINADURA	ELLES ET ILS ONT CONÇU UN PARLEMENT PROTESTANT POUR UN PEUPLE PROTESTANT ET SINN FÉIN A REMPORÉ LES ÉLECTIONS Igor Zulaika <i>Membre des relations internationales de EH Bildu</i>
180	INFOGRAFIA	ENERGIA TRANTSIZIOA EUSKAL HERRIAN: ZENBAKETA GARBIAK
182	GERANIOAK	LEHORTZEN (II)

EDITORIALA

Momentua irakurtzen jakiteaz

Aurreko alean eztabaida batzuei heltzeko abagune historikoaz mintzo ginen, momentuaren taupada historikoa ondo irakurtzearen beharraz. Horretan berresten gara. Hortik abiatuta, ezkerak statu quoaren irakurketa erradikala egiten saiatu behar du, statu quoaren aurpegi anitzena, ahalik eta zorrotzena, ondoren harekiko alternatiba ahalik egingarri eta erakargarriena egiten saiatuz. Ezin da proiektu baten ezintasunari atxikiago egon bere potentzialitateari baino, ezin da marginalitatearekin edo porrotarekin maiteminduago egon, mundua eraldatzeko esperantza produzitzearekin baino. Desiraren estruktura berriak behar ditu ezkerak, melankolikoak eta atzerakoiak izango ez direnak, are gutxiago autoflagelatzaileak.

Historikoki, ezkeraren akatsa garaiko ezaugarriak ez ulertu eta horietatik aldentutako mundu ikuskera politiko bat osatu eta bide bat planteatzea izan da. Zer gertatzen da gaur? Mundu mailako egungo egoera ulertzeko faktore determinanteak neoliberalismoaren tendentzien azkartzean bilatu behar direla. Zibilizazio krisia bizkortu da, eta, hortaz, beste zibilizazio baterako trantsizioaren ezinbestekotasuna agerikoa da, behetik gorakoa eta maila guztietakoa izango dena. Zorrotzak izan behar gara: ez da testuingurua berbera ipar hemisferioan edo hego globalean bizi duguna. Azken horretan, ezker latino-amerikarrak 90. hamarkadatan abiatutako iraultzen ondoren, eskuinaren ofentsiba berriari eutsi, berrarmatu, eta berriz aurre egiten ari zaio, bigarren olatu eraldatzaile batean murgilduz. Txile da horren adibide garbia, Konstituzio berri baten idazketa prozesu herritar batean murgildua dagoelarik. Eraldaketa prozesuak luzeak dira, olatuak dituzte, eta ondorengo aparrak. Guztietan ekiten ikasi behar du ezkerak.

Ipar globalean eta Europan zehazkiago, ordea, bestelako tendentziak ari dira nagusitzen. Eskuin muturraren ofentsiba batean gaude, bestelako

alderdi sistemiko ohikoek agenda atzerakoia jarri dute martxan, egitura publikoen (osasuna, hezkuntza, sare...) pribatizazioa burutzen ari dira, gastu militarren igoera (Ukrainako inbasioaren aitzakiapean) eta agenda sekurokrata indartzen (segurtasunaren izenean), gas eta energiaren oligopolioen eta aberaste lotsagarriaren aurrean ez dira ezer egiten ari, AEB eta NATOren egitura geopolitiko menpekoarekiko jarraipen itsua egiten ari da... Zenbaki hau aurreko tendentzia guzti horiek aletzen saiatzen da, ikuspegi orokorra herri ikuspegitik irakurtzen saiatuz.

Euskal Herriak ere garai nahasiak bizi ditu, noski. Baina eraldaketa prozesuak, barne zein kanpokoak, ez dira lerro zuzenak izaten, eta pazientziaz, urte luzeetako lanaz, hausnarketa estrategikoa hobetsiz, eta herritik eta herriarentzat egiten direla erakusten digute prozesu eraldatzaile guztiek, berdin Irlandak, Txilek, Kolonbiak, Eskoziak, eta baita Euskal Herriak ere. Subiranismoa indartsu dagoen lekuetan, indar atzerakoiak ahul daudela ikus daiteke; subiranismoa indartsu dagoen lekuetan, balore feminista, ekologista, sozialista eta eraldatzaileak indartsu daude, eta eraldaketa sozial eta politikorako aukerak biderkatzen dira.

Europar mugimendu subiranistak azken hamarkadatan indartu diren bezala (Irlanda edo Eskozia kasu), gure herrian subiranismoa indartzen eta berkitzen ari da, Euskal Herrian beste mundu bat eraikitzeke tresnak garatzen, imaginario berriak lantzen, jendarte zabala artikulatzen, eta finean, hamaika aurpegitako neoliberalismo basati honentzako euskal alternatiba bat eraikitzen ari gara; propioa eta munduari irekia. Zapalkuntzak hamaika aurpegi eta hamaika eskala dituelako, herrien eta herritarren askotariko burujabetza da neoliberalismoari aurre egiteko errezeta erradikal eta eraldatzaileena.

En el anterior número hablábamos de la oportunidad histórica para abordar algunas discusiones, sobre la necesidad de leer bien el latido histórico del momento. En eso nos reafirmamos. A partir de ahí, la izquierda debe tratar de hacer una lectura radical del statu quo, de la múltiple cara del statu quo, la más afilada posible, para hacer una alternativa lo más factible y atractiva posible. No puede estar más apegado a la impotencia de un proyecto que a su potencialidad, no puede estar más enamorado de la marginalidad o del fracaso que de producir la esperanza de transformar el mundo. La nueva estructura del deseo necesita izquierdas, que no sean melancólicas ni retrógradas, mucho menos autoflagelantes.

Históricamente, el error de la izquierda ha sido no entender las características de la época y formar una concepción política del mundo alejada de ellas y plantear un camino. ¿Qué pasa hoy? Que los factores determinantes para comprender la situación actual a nivel mundial deben buscarse en la aceleración de las tendencias del neoliberalismo. La crisis de civilización se ha acelerado, por lo que la necesidad de una transición a otra civilización es evidente, de abajo arriba y a todos los niveles. Tenemos que ser exigentes: no es el mismo contexto el que vivimos en el hemisferio norte o en el sur global. En esta última, tras las revoluciones emprendidas por la izquierda latino-americana en los años 90, se aferra a la nueva ofensiva de la derecha, la rearma, y la vuelve a combatir, sumiéndose en una segunda ola transformadora. Chile es un claro ejemplo de ello, inmerso en un proceso participativo de la ciudadanía en la redacción de una nueva Constitución. Los procesos de transformación son largos, con olas, y espumas posteriores. La izquierda debe aprender a actuar en todos ellos.

En el Norte global y más concretamente en Europa, sin embargo, están predominando otro tipo de tendencias. Estamos en plena ofensiva de la extrema derecha, otros partidos sistémicos convencionales han puesto en marcha una agenda retrógrada, están llevando a cabo la privatización de las estructuras públicas (sanidad, educación, redes...), el aumento del gasto militar (bajo el pretexto de la invasión ucraniana) y el fortalecimiento de la agenda securócrata (en nombre de la seguridad), ante los oligopolios de gas y energía y el vergonzoso enriquecimiento, no está haciendo nada... y Estados Unidos y la OTAN están tratando de hacer un seguimiento seguro. Este número trata de desglosar todas estas tendencias anteriores, tratando de leer la visión general desde el punto de vista popular.

Euskal Herria también vive tiempos convulsos, claro. Pero los procesos de transformación, tanto internos como externos, no suelen ser las líneas rectas, y con paciencia, con años de trabajo, mejorando la reflexión estratégica, desde el pueblo y para el pueblo nos demuestran que todos los procesos transformadores, lo mismo Irlanda, Chile, Colombia, Escocia, y que Euskal Herria también. Donde el soberanismo está fuerte, se puede ver que las fuerzas retrógradas están débiles; donde el soberanismo está fuerte, los valores feministas, ecologistas, socialistas y transformadores están fuertes, y se multiplican las posibilidades de transformación social y política.

Del mismo modo que en Europa los movimientos soberanistas se han fortalecido en las últimas décadas (como Irlanda o Escocia) en nuestro país se está fortaleciendo y reposicionando el soberanismo, desarrollando herramientas para construir otro mundo en Euskal Herria, trabajando nuevos imaginarios, articulando una amplia sociedad, y en definitiva, construyendo una alternativa vasca para este neoliberalismo salvaje de infinidad de caras; propia y abierta al mundo. Porque la opresión tiene multitud de caras y multitud de escalas, la soberanía plural de los pueblos y de los y las ciudadanas es la receta más radical y transformadora para combatir el neoliberalismo.

Dans le numéro précédent, nous avons parlé de l'occasion historique d'aborder certaines questions, de la nécessité de lire le rythme historique du moment. Nous le réaffirmons. À partir de là, la gauche doit essayer de faire une lecture radicale du statu quo, de ses multiples visages, la lecture la plus précise possible, afin de pouvoir imaginer et réaliser une alternative aussi réalisable et attractive que possible. La gauche ne peut être plus attachée à l'impuissance d'un projet qu'à sa potentialité, elle ne peut être plus adepte de la marginalité ou de l'échec que de la production de l'espoir de transformer le monde. La gauche a besoin de nouvelles structures de désir, qui ne soient ni mélangées ni réactionnaires et encore moins auto-flagellantes.

Historiquement, l'erreur de la gauche a été de se forger une conception politique du monde et de proposer une voie éloignée des caractéristiques de l'époque. Que se passe-t-il aujourd'hui ? Que les facteurs déterminants pour comprendre la situation mondiale actuelle sont à chercher dans l'accélération des tendances néolibérales. La crise de civilisation s'est aggravée, de sorte que la nécessité d'une transition vers une autre civilisation est évidente, de bas en haut et à tous les niveaux. Nous devons être clairs : nous ne vivons pas le même contexte dans l'hémisphère nord et l'hémisphère sud. Dans le second, après les révolutions entreprises par la gauche Latino-américaine dans les années 1990, elle s'est défendue contre la nouvelle vague de droite, s'est réarmée et a pu déclencher une deuxième vague transformatrice. Le Chili en est un exemple clair, car un processus de participation citoyenne en vue de la rédaction d'une nouvelle constitution est en marche. Tous les processus d'émancipation nous montrent qu'ils sont longs, avec des vagues montantes et des ressacs postérieurs. La gauche doit apprendre à se préparer et à agir dans les deux scénarios.

Dans les pays du Nord global et plus particulièrement en Europe, cependant, d'autres tendances prédominent. Nous faisons face à une offensive de l'extrême droite et les partis systémiques classiques ont mis en place un agenda rétrograde, menant à terme à la privatisation des structures publiques (santé, éducation, réseaux...), l'augmentation des dépenses militaires (sous prétexte de l'invasion ukrainienne), le renforcement de l'agenda sécuritaire (au nom de la sécurité), la passivité envers les oligopolios du gaz et de l'énergie et leur enrichissement honteux, le suivi aveugle des choix géopolitiques des États-Unis et de l'OTAN... Ce numéro tente de décortiquer toutes ces tendances, en essayant de dresser un tableau général du point de vue de la population.

Euskal Herria traverse également une période de turbulences. Mais les processus de transformation, tant internes qu'externes, ne sont généralement pas rectilignes. Les processus en Irlande, au Chili, en Colombie, en Écosse et en Euskal Herria nous montrent que tous ces processus de transformation se font à partir du peuple et avec le peuple, avec des années de travail et en privilégiant la réflexion stratégique. Là où le souverainisme est fort, on constate que les forces réactionnaires sont faibles ; là où le souverainisme est fort, les valeurs féministes, écologistes, socialistes et transformatrices sont fortes et les possibilités de transformation sociale et politique se multiplient.

De la même manière que les mouvements souverainistes en Europe se sont renforcés ces dernières décennies (comme en Irlande ou en Écosse), le souverainisme se renforce et se repositionne dans notre pays, en développant des outils pour construire un autre monde en Euskal Herria, en travaillant sur de nouveaux imaginaires, en articulant de larges secteurs de la société, et en somme, en construisant une alternative basque à ce néolibéralisme aux multiples visages. Une alternative à nous, ouverte au monde. Puisque l'oppression a une multitude de visages et une multitude d'échelles, la souveraineté plurielle des peuples et des citoyen.ne.s est la recette la plus radicale et transformatrice pour combattre le néolibéralisme.

14



42



52



58

72




62

78

66

84



168



162

174

Atal honetan azken hilabeteetan gertatutakoen nolabaiteko bilduma bat aurkituko duzu, motzean. Umorea, satira, salaketa, aldarrikapenak...

Azpimarratzekoak dira, besteak beste, euskarak agenda politikoan hartu duen zentralitatea bere aurkako erasoengatik zein Korrika eta Euskara Aurrera bezalako mobilizazioengatik; Amaiuraldia, Pirinioetako bidea eta Aberri Eguna; Pegasus auzia, Ukrainako gerra, Osakidetza desmantelamendua, Frantziako hauteskundeak, inflazioa... eta askoz gehiago.

Agurne Gaubeka
@gaubeka

Euskaraz ikasi, hezi, bizi. Elkartasunez Euskal Herria hazi.
#AzerketakEuskaraz #euskarazbiznahidugu @seaskaikastola @behatokia @kontseilua



Alexandria Ocasio-Cortez
@AOC

Forced pregnancy is a crime against humanity.

mario zubiaga
@zuribia

Badakit ez dela berria, ohitura dela jada, baina gure @euskaltebista publikoa Jauriaritzaren komunikazio bulegoa bihurtu izana ezin dut jasan. Hain da gordina, hain da lotsagabea... Eta halako isiltasun otzana nagusitu da kritikoa omen den unibertsitatean... @upvehu_gkz_csc

Begoña Garaikoetxea Diaz
@begutxi


Oraindik sinetsi ezinik nabil. Larunbatean beste urrats bat eman genuen euskararen eta gure eskubideen alde. Hau ez da hemen amaitzen ordea, urratsak ematen jarraituko dugu euskarak aurrera egin dezan, ez dadila haria eten.

Borrokak merezi du. Euskara Aurrera!




ALEXIS
@alexisvh

yo: por qué me duele la espalda?? también yo:



joseba permach martin
@jpermach

Informatu naiz. Juankar (@ehbildu) gobernura iristen denean, Donostiako etxebizitzaren prezioa 4000 euro/m2 zegoen. Bere legegintzaldiaren amaieran berriz 2800 euro/m2. Eneko Goia iritsi denetik etxebizitzaren prezioak igo besterik ez du egin. Honatx esaten ari naizenaren grafikoa



Joseba Alvarez
@JosebaAlvarez

Umorea behintzat ez dezagun inoiz galdu...



Unai Ribera
@unairibera

Nire ildoo politikiikoa, sozialamarratxismoa, ni, zorra sozialamarratxa ✨
Edizioa: @ReTildearekin



Xabi Ruiz de Larramendi Arana
@XabiLarramendi

«Ulertzen ez gaituztenean, ulertuko gaituzte»
#EuskaraAurrera



Irantzu Varela
@IrantzuVarela

Pues si no te duele la regla, no pidas la baja, Joseluis. Y cállate la puta boca ya.

Ehun #EuskalErrepublika
@ehunduz

Burujabetzak praktikara eraman ditugu. Afrikako 7 laguni euskal herritartasuna eman eta Euskal Herriak libre mugitzea ahalbidetu diegu. Gurea da boterea!!



gu ere bai!
@guerebai

#Ofizialtasuna eta euskal selekzioen gaiari helduta @berria egunkarian.
#guerebai



Arkaitz Rodriguez Torres
@arkarodriguez

¿Qué dijo el TEDH? Que la condena de #Atristain fue injusta.
¿Qué hizo la AN? Ponerlo en libertad, al entender, correctamente, que ello conllevaba su nulidad.
¿Qué ha hecho el TS? Pasarse la sentencia europea por el arco del triunfo y volver a encarcelarlo.
Qué puto escándalo.

naiz: @naiz_info · 02/06/2022
[ULTIMA HORA] Atristain, encarcelado de modo fulminante tras el desacato del Supremo a Estrasburgo naiz.es/es/info/notici...



Kattalin Miner
@MKattalin

Diskurtso horiek beraiei gustatzen ez zaizkien batzuen antza izugarria izateaz gain, uste dut benetan ez dakitela zer den mugimendu feminista eta feminismoa. Edo okerrago, badakite eta hala ere.



berria.eus
Ahalduztearen eta feministen «trapez»

Iñaki Iriondo Telleria
@gara_irondo

Cosas de radicales comunistas bolivarianos.

naiz: @naiz_info · 26/05/2022
El Gobierno británico introduce un impuesto temporal del 25% sobre los beneficios de las petroleras naiz.es/es/info/notici...



Lowkey
@LowkeyOnline

Gustavo Petro wins the presidential elections in Colombia.
The revenge of history.





Galder Gonzalez
@theklaneh

Gaixo jarri zara ez dagokion herrian. Saia zaitetz beste leku batean gaixotzen, mesedez.

Traducir Tweet



Ernai Nafarroa
@ErnaiNafarroa

Zuk erreindako hazietatik loretxo gazteak sortuko dira Larragan eta Nafarroa osoan. Beti arte, Josefina!

Traducir Tweet



Ikoitz Arrese Otegi
@ikOitz

"Todos los casos en estudio son hombres que mantienen relaciones homosexuales."
¡Basta ya de estigmatizaciones!

Translate Tweet



Rocío Vitero
@RocioVitero

Bizikleta gainean 700 km baino gehiago egingo dute, pentsio duin eta justuen alde. Gaur Gasteizera heldu dira, baina hemen ez da ezer amaizten. Gora pentsionistak!
@arabakozaharrak

Translate Tweet



Eztizen
@EztizenArtola

Espetxeak suntsitu (egiten du).

Translate Tweet



Al Jazeera English
@AJEnglish

Shireen Abu Akleh, a veteran journalist who began working for Al Jazeera in 1997, was killed by Israeli occupation forces in the occupied West Bank on May 11, 2022 — in pictures aje.io/55r7ew



Anton Telleria
@anton_telleria

Ekidistantea naizela esan dit batek eta ez nago ados. Aber, kontra ere ez nago e.



nere nere
@nerener123

EHZ, San Ferminak, BBK, zipotz, karmen, valentzia...
Uztailan se trasca la magedia 🤪



Lur A. Etxetxipia
@LurAlbizu

Inpotentzia izugarria. Gaurkoa oso gogorra izaten ari da, hemendik aurrera elkartasun uholdeak beharko ditugu. Honen zergatiak ulertu, prebentzioa eta zerbitzu publiko duinak behar ditugu, sute hauek azkenak izan daitezten. Animo Nafarroako txoko guztietara! ❤️

Traducir Tweet



Aitor Servier
@aitor_servier


"Il n'existe pas d'entrave au développement de langue basque"
État français linguicidaire, huile sur toile, 2022.
(👉@MediabaskInfo)

Traducir Tweet



nar
@naroatou

ya es oficial
ya he votado más a kiko matamoros que a eh bildu



Iñaki Petxarroman
@petxarroman

Ezkerra izango da, baina frantsesa lehenengo. Irakurtzekoa @EkhiErremundegi k NUPESeko 5. hautesbarrutiko hautagaiari egindako elkarrizketa. "Notre legearen eta diferentziazioaren aurka gaude".

Translate Tweet



CELESSON
@chemapizca

- ¿Dónde vas, Doc?
- A 1985.
- ¿Alguna misión que puede cambiar el curso de la historia?
- No. A echar gasolina.

Translate Tweet



Jakin
@jakin_eus

Heldu da aurkezpen eguna: EABko bederatzidazleren obra osorik eskuragarri, 1200 dokumentutik gora jakin.eus/digitalizazioa...
Euskal pentsamenduaren transmisio digitala osatzen.

Translate Tweet



Lierni Agirrezabala
@lierniagi

LOTSAGARRIA da umekin lan egiten duten medikuek ez euskeraz egitea. Gaur alaba okulistarena eraman det eta DENA gaztelaniaz. Ni ondoan itzulpena egiten, erdia ez baitzion ulertzen. 6 hile barrurako zita eman dit: "Para entonces además, ya hablará más y se podrá expresar mejor".

Translate Tweet

14:13 · 25/5/22 · Twitter for Android

127 Retweets 5 Quote Tweets 502 Likes



Lierni Agirrezabala
@lierniagi · 25/5/22

Replying to @lierniagi
"No, perdona. Habla PERFECTAMENTE. Pero en euskera". Jakingo balu 4 urterekin nola menperatzen duen bere hizkuntza... @osakidetzaxgv @behatokia #solokoetxe



Xuti Gaztel
@xutigazte

Baxoko filosofiako proba egiten dute gaur Terminalako ikasleek. Ikasle euskalduniei, aurten ere, frantsesez egitea inposatua zaien. Iaz ikusi zen moduan, desobediencia gogor zigortzen du frantses gobernuak. Baxoa eta azterketa guztiak euskaraz orain!

Translate Tweet



Gure Esku
@Gure_Esku

#Amaiuraldia
"Pertsona libreak, herri libre batean" [...] "geure etorkizuna libreki erabaki eta eraiki nahi dugu, inolako inposizioz gabe, iraganeko konkista eta erresistentzia gerlak ez daitezten inoiz ere errepika, gure asmoa beste mundu bat eraikitzea baita. Gora Amaiur!"

Translate Tweet



Edgar Straehle
@EdgarStraehle

"Los intelectuales sueñan a menudo con una clase, q es como una motocicleta con el asiento vacío; se sientan en este y asumen la dirección pq están en posesión de la verdadera teoría. Esta es una ilusión característica, la falsa conciencia d la burguesía intelectual"
EP Thompson

Translate Tweet

22:43 · 2/6/22 · Twitter for Android



#FreePabloGonzález
@FreePabloGonz

El periodista donostiarra @anderiza, ganador del premio Kapuscinski de Periodismo, recuerda en Varsovia a Pablo González en su discurso de agradecimiento. "Me gustaría que tuviera todas las garantías y claridad en su caso. Me acuerdo de él"



ELKARRIZKETA: ERRIA
ARGAZKIAK: FOKU

SAKONEAN

Elena Beloki Resa
eta Gorka Elejabarrieta Diaz

“AZKEN 40 URTEETAN
NOLA HALAKO AUTONOMIA
BAT IZAN DUTEN
HERRIALDE GUZTIETAN
INDEPENDENTISMOA
INDARTU EGIN DA”



SAKONEAN NAZIOARTEKO POLITIKA ETA INTERNAZIONALISMOA XXI. MENDEAN

Garai nahasiak eta ezegonkorak bizi ditugula esan dugu askotan. Kapitalismoaren ziklo oso baten amaieran eta ziklo berri bateranzko trantsizioan gaudela ere aipatu izan dugu. Pandemia apurka atzean utzi eta hark utzitako edo areagotutako krisi ezberdinei aurre egiteko prestatzen ari ginenean, Ukrainako gerra etorri da dena astintzera. Elena Beloki Resa [Areta, 1961] Sortuko Nazioarteko Arduradunarekin eta Gorka Elejabarrieta Diaz [Deustu, 1977] EH Bilduko Nazioarteko Arduraduna eta Senatariarekin solasaldi izan dugu egoera konplexu hau ulertzeko gakoak jakiteko eta independentziarako prozesuak testuinguru honetan dituen erronkez eta aukerez jarduteko. Nazioarteko jarduneko arnas luzeko lan erritmoak eta urteetan metatutako esperientziak, prozesu hauen bestelako begirada eman digu.

Nola begiratzen duzue eta ikusten duzue nazioarteko panorama gaur?

Gorka: Zibilizazio aldaketa unean gaude. Urteak dira hainbat esparrutatik aldaketak datozela iragartzen ari direla. Maila askotako aldaketa: digitala, lan mundukoa, energetikoa, klimarena... Orokorra da. Azkartze bat ematen ari da pandemiak, gerrak eta lehia geostrategikoak erakusten dutenez eta ezin dira ekimen isolatu bezala ulertu. Dena hondoratzen ari da eta badirudi ez dela ezer aldatzen ari. Finean, guztiaren atzean mundua begiratzeko ikuspegi klasiko bat dago; nazioarteko taldean beti aipatzen dugu XIX. mendeko Erresuma Batuko Lord Palmerston lehen ministro ohia. Kanpo aferetako ministroa ere izan zen eta berak beti esaten zuen Ingalaterrak ez zuela ez lagun estrategikorik, ez eta betiereko etsairik ere; Ingalaterrak interes estrategikoak dituela. Ikuspegi horrek definitzen du

munduko geostrategia eta harremanen esparrua. Lehengai pila baten eskasia garaia dator: mineralak, erregai fosilak... Politikoki bipolaritatetik multilateralismora pasa den planeta batean bizi gara eta herrialde batzuek maila ekonomikoan hegemonia izugarria dute. Estatu Batuak epe laburrean utziko dio munduko lehen indar ekonomikoa izateari, jada ez badio utzi. Txina, India... indartzen ari dira eta mundua birkokatzen ari da. Lehia horretan herrialde bakoitza dauzkan baliabide eta indarren arabera bere interesak ahalik eta hobekien defendatuko dituen agertoki bat lortzen saiatzen ari da.

Ukrainako gerra aldaketa horren adierazle da? Zertan eta nola eragiten ari da?

G: Ukrainako gerra gauza asko dira baina tartean bada Errusia Txinaren gana hurbiltzea, Europarengandik urrunduz hamarkada batzuetarako gutxienez. Txinari oso ondo

dator kio hori. Eta Estatu Batuei ere oso ondo dator kie Europa Errusiarekin etsaitzea. Beti egon dira horretarako saiakerak baina Errusiarekin harremantzeko oso modu ezberdina izan dute Alemaniak eta beste herrialde batzuek. Latinoamerika azken 15 urteetan soja eta haragia Europari saltzetik, Asiari saltzera pasa da, Txina eta Errusia tartean. Txina Afrika kolonizatzen ari da...

Egoera kezagarrian gaude. Ikerketa guztiek diote Europa dela trantsizio ekologiko eta digitalari dagokionez planetako kontinenterik aurreratua baina gerra oso gaizki dator kio bide horretan sakontzeko.

Ikuspegi orokorrean, Errusiarenak ez du paserik. Eraso inperialista bat da edonondik begiratuta ere. Hala ere, ekimen bera munduko toki ezberdinetatik nola ikusten den oso diferentea da eta horrek ere zer pentsatua eman behar du.

Mundu multipolar horretan Europa non geratzen da?

Elena: Mundu mailan Asia eta pazifikorantz alderatzea ematen ari da. Hor kontzentratzen ari dira ekonomikoki bederen datozen urteetarako potentziak eta botere harremanak. Baina egia da mundu multilateral batean gaudela eta hori ezin dugu ulertu orain arte egin dugun bezala. Lehen blokeak zeuden. Gaur ere mendebaldea eta ekialdea daude baina ez dago bloke alternatiborik; kapitalismoaren baitako aukera ezberdinak daude eta talka dago haien artean. Beraz, egitura malguagoa da eta leialtasunak ez dira hain fidelak. Esaterako, Ameriketako Estatu Batuen eta Txinaren artean talka gertatzen ari da baina, era berean, estatuen arteko posizionamenduak ematen dira. Adibidez, gerraren ondoren zigor ekonomikoen aukera hartzen du Europar Batasunak eta mendebaldeak eta errublotan ordaintzea debekatzen du baina Errusiak Estatu Batuen aliatu batekin negoziatzen du: Saudi Arabiarekin. Eta Saudi Arabiaren petrolioaren beharren %25 errublotan ordaintzen da. Era berean, lehen aldiz, pentsaezina bazen ere, Estatu Batuak Israelen Saudi Arabiarekin eta beste estatu arabiar batzuekin bildu da. Beraz, historiaren aro berri batean gaude. Aktore gehiago agertuko dira, hegoaldeko zenbait potentzia hasi dira agertzen eta testuinguru horretan Europa da alde batera geratzen ari dena.

Hala ere, Europa Estatu Batuei gero eta lotuago ageri da, ezta? Autonomia galdu ote du?

E: COVID19aren pandemiak «autonomia estrategikoaren»



“Ukrainako gerra gauza asko dira baina tartean bada Errusia Txinaren gana hurbiltzea, Europarengandik urrunduz hamarkada batzuetarako gutxienez.”



“Gaur ere mendebaldea eta ekialdea daude baina ez dago bloke alternatiborik; kapitalismoaren baitako aukera ezberdinak daude.”

esanahia eta definizioa handitu egin du, sektore ekonomikora, teknologikora eta osasun arlora zabaltzeraino. Aurtengo martxoan Macronek Europar Batasuneko presidentzia hartu zuenean, kanpo politika eta defentsarekin loturiko strategic compass edo iparorratz estrategikoaren ideia eta autonomia estrategikoaren ideia berreskuratu zituen. Etxe Zuriko aldaketak aukera bat izan behar zuen EB AEBen eta Asiako erraldoiaren artean, hirugarren erreferentzia-aktorea izatera eramateko. Baina zantzu guztien arabera, Ukrainako gerraren ondorioz, EB AEBn politiketara lerratu da. M. Twainek zioen bezala, “historia ez da errepikatzen baina errimatzen du” eta gure ustez, 90eko hamarkadan gertatu zen bezala, EBk aukera galdu du gerraren aurrean paper ez beliko bat jokatzeko, elkarrizketa eta bide diplomatikoa jorratzeko eta segurtasuna beste arlo eta sektoretara zabaltzeko. Aurreko horrek suposatzen dituen ondorioekin, herri sektore eta klimaren egoerarentzako. Esan daiteke epe ertainera behintzat, Ukrainako gerrak ardatz atlantista eta NATO indartu duela.

Espainia eta Frantziaren menpe gaudenez NATOren baitan gaude nahi eta ez. Nola eragiten digu horrek?

G: Gaur badago debate bat nire ustez oso faltsua dena eta esaten duena askoz ere pragmatikoagoa eta errealistagoa dela Ukraina militarki Errusiaren kontra babestea. Pragmatikoena eta errealistena gatazkari irtenbide diplomatikoa eta adostua emango dion bideak bilatzea da. Gerra mota hauetan, arma

nuklearrak dituzten estatu asko sartzen direnez tartean, ez da existitzen *win win* eskemarik. Gerra handitzen badoa denok aterako gara galtzaile. Hau egunen batean amaitzen bada, diplomaziaren eta akordio politikoaren bidez izango da, ez bide militarren bidez. Beraz, zenbat eta lehenago ekin horri, hobe. Horrek ez du albo batera uzten, Errusiak egin duela eraso inperialista dela eta bere tropak erretiratu behar dituela.

E: Herri honek NATOri ezezkoa eman zion eta arestian genionez, 90ko hamarkadan bestelako segurtasun kontzeptu bat adosteko aukera ireki zen. Tren hori, ordea, galdu egin zen eta horrek gerora mundu inseguroago bat ekarri du, defentsa aurrekontuak areagotuz, armen industria garatuz eta sektore publikoa kaltetuz.

G: Bakeak mundu mailako gobernantza ezberdina eta eraginkorra eskatzen du. Egungo ereduak ez da gai honelako gatazkek konpontzeko.

E: Segurtasun kontzeptuari buruzko hausnarketa bat beharrezkoa da. Ezkerrak ezin dio eskuinari utzi segurtasunaren kontzeptuaren kudeaketa eta monopolioa. Segurtasuna ez baita estatua kanpo zein barruko mehatxuetatik babestea, jendea zoriontsu eta duin biziko den egoera bat sortzea baizik.

G: Estatu izan nahi duen edozein estaturik gabeko herriek debate horri ere heldu behar dio.

Azken hogeitaz urteei begiratuta, badirudi hala ere nazioarte

mailan inork ez duela behar besteko aginterik gerrei konponbide diplomatiko bat emateko edo prebenitzeko ere. Ze paper jokatzeko du guzti honetan Nazio Batuen Erakundeak?

G: Lehen esan dudana bezala, bagenekien aldaketa handiak zetozela. Ez genekien ze forma hartuko zuen. Zaila zen irudikatzea COVID bezalako gertakari bat egongo zela baina jendeak esaten zuen pandemiak etorriko zirela, gaixotasun berriak, gerrak... Eta aldiz munduko gobernantzarako eraikitako tresnak krisi betean daude. Beraz NATO eta defentsarako Erakundeak egokitzen ari diren bitartean, munduko gobernantzarako eraikitako tresnak krisi betean daude. Nazioarteko komunitatean ideia nahiko partekatua da, arrazoi ezberdinak medio seguruenik, ez dutela funtzionatzen. Bigarren Mundu Gerra bat gertatu behar izan zen gizateriak ondorioztatzeko instituzio partekatuak beharrezkoak zirela mundu mailako nola halako gobernantza bermatzeko. Hor sortu zen Nazio Batuen Erakundea baina hamarkadak daramatza krisian, besteak beste, erabakiak hartzeko duen sistemak gobernagaitza bilakatzen duelako. Boterea 50 hamarkadako egoeraren arabera banatu zuten eta egun duen gobernantza ereduak garai hartako errealtatean oinarritzen da. Beraz, egun ez dago guzti honetan ordena apur bat jartzea ahalbidetu duen ez gobernatzeko ezta koertziorako tresna partekaturik ere. Inork ezin dio esan gaur Errusiari ezin duela eraso, bestela ondorioak izan ditzake eta.

E: Irakeko gerraren kasuan Estatu Batuekin berdina gertatu zen.

G: Hori da. Zaila da data bat jartzea, baina akademia munduan NBERen amaieraren hasiera Dorre Bikien aurkako erasoan datatzen dute, ondoren etorri baitziren terrorismoaren aurkako gerra, gerra ilegalak, NBERen oniritzirik ez zuten gerrak eta abar. Beraz, NBERen ez gobernantzak kaos egoera hau elikatu du. Munduko estatu bakoitzari galdetuko bagenio gobernantza globala ahalbidetuko duen instituzio partekatuen beharrik dagoen parametro jakin batzuetan oinarrituta (justizia, ekitatea, bakea, ez agresioa...) denak ados leudeke baina mahai batean eseri eta egiteko garaian ezinezkoa da. Beraz, zibilizazio aldaketa bati aurre egiten ari gara eta aldaketa hori kudeatu ahal izateko tresnarik gabe gaude.

“EBk aukera galdu du gerraren aurrean paper ez beliko bat jokatzeko, elkarrizketa eta bide diplomatikoa jorratzeko eta segurtasuna beste arlo eta sektoretara zabaltzeko.”

“Ezkerrak ezin dio eskuinari utzi segurtasunaren kontzeptuaren kudeaketa eta monopolioa.”

Ez ote da ari Estatu-nazioaren ideia berriz ere indarra hartzen?

E: Bai, baina oso ondo jakin gabe nora goazen, estatua ez baita XIX. mendeko estatua eta nazioarteko aktoreek estatuaren baitan parte hartzen dutelako. Bestalde, esfera nazionala da, publiko eta pribatuarena. Estatua kapital mundialaren kudeatzaile gisa bideratzen joan da, kapital mundialak behar zuen funtsezko giltza bezala, alegia. Horrez gain, Bigarren Mundu Gerraren ondoren nazioarteko zuzenbidean ezarri ziren lorpenak zein bermeak desagertzen ari dira.

G: Europa erreferentea izan da esparru askotan: kultura, ideologian, teknologian, lorpen sozialetan eta hori ere desagertzen ari da. Ez badio horri eusten eta eskuinera ematen ari den biraketarekin populismoaren eta orokorrean eskuin muturraren eskutik, arriskuan dago bere burua. Horri erantsi demografikoki zahartzen ari den populazioa dela. Ekaitz perfektua da.

Giza eskubideen eta ilustrazioaren Europaren galerak eta geopolitikoki izan duen indarraren galerak, gu estaturik gabeko nazioa izanda, ze ondorio ditu gurean?

G: Pandemia global bat dagoenean, krisi ekonomiko bortitza bat, guztiari eragingo dion zibilizazio aldaketa bat (ondorengo belaunaldien ikasketak, lana...), globala bilakatu daitekeen gerra bat duzunean, gure aldarrikapenak modu orokorrean bigarren mailako aldarri gisa pertzibitzea dakar. Baina bestetik, esandako guzti horrek agerian uzten du

inoiz baino beharrezkoagoa dela estatu propioa izatea.

E: Azken hamabost-hogei urteetan Europako estaturik gabeko nazioetan, praktikan, indartzen ari diren tendentzia batzuk daude. Lehena, zenbat eta Europar Batasun gehiago, zenbat eta burujabetza partekatu gehiago izan, are gehiago hazten dira mugimendu independentistak. Hau une berean gertatu da Feroe Irletan, Groenlandian, Irlandan, Eskozian, Galesen, Kortsikan, Katalunian eta Flandrian. Nazio guzti hauetan 2002an minoritarioak ziren mugimendu independentistak orain gehiengoa dira. Bigarrenik, asko aipatzen ez den beste kontu bat. 70, 80 eta 90eko hamarkadetan, testuinguru ezberdinetan, maila globalean, autonomia independentismoa itotzeko tresna gisa diseinatu izan da. Baina, asmoa bestelakoa bazen ere, 30 edo 40 urte geroago Euskal Herrian zein nola halako autonomia bat eman duten estaturik gabeko nazio guztietan gertatu dena da independentismoa indartu egin dela. Burujabetza maila jakin bat izan dutenek, burujabetza gehiago nahi dute eta beraz saltxitxoia zatika jateak independentismoa itoko duenaren teoria hura faltsua da. Hirugarrenik eta azkenik, erabakitze eskubideaz irakurketa bikoitz bat dago. Batetik, Europar Batasunean halako bidegurutzeak gero eta gehiago erabakitze eskubidearen bidez konponduko dira eta bestetik, erabakitze eskubidearen aitortza ez da prozesu hauek aurrera egiteko eta erabakia gauzatzeko funtsezko pieza.

“Zibilizazio aldaketa bati aurre egiten ari gara eta aldaketa hori kudeatu ahal izateko tresnarik gabe gaude.”

“Bigarren Mundu Gerraren ondoren nazioarteko zuzenbidean ezarri ziren lorpenak zein bermeak desagertzen ari dira.”

“Zenbat eta Europar Batasun gehiago, zenbat eta burujabetza partekatu gehiago izan, are gehiago hazten dira mugimendu independentistak.”

Zer esan nahi duzu horrekin?

G: Ezker abertzaleak proposamen ezberdinak egin izan ditu bizi genuen gatazkari konponbide demokratikoa emateko, autodeterminazio edo erabakitze eskubidea jasoz. Baina, esaterako, Irlandak aitortua du modu ofizialean eta zehatzean erabakitze eskubidea; 1998an sinatutako Ostiral Santuko Akordioan dago. Eskoziak ez dauka erabakitze eskubiderik. Azkenean zerk egiten du Irlandak edo Eskoziak bozkatu ahal izatea? Euren erabakia gauzarazteko duten indarrak. Irlandaren kasuan,



Sinn Féinek hegoaldean eta iparraldean behar besteko indarra duen egunean bozkatuko dute eta Eskoziaren kasuan SNPk behar besteko indarra duenean berriz egingo dute. Beraz, noski, hobe da erabakitze eskubidea aitortua izatea ofizialki, baina ez da determinantea. Gure herriarentzat ikasgai garrantzitsua dela uste dut.

E: Lurralde gatazkak egon direnean ia beti autonomia formula akomodatzaile gisa proposatu du estatuak, gatazka dagoen lurraldea bere baitan “akomodatzeko,” eta estatuaren lurralde osotasuna bermatzeko xedez. Esan liteke autonomia ez dela estatuaren borondate demokratikoaren ondorioa, momentuko indar korrelazioaren arabera baizik. Eta gure kasuan, edo Irlandan, estatuaren helburua independentziari eta irlaren

batasunari galga jartzea zen. Baina kapital globalaren eraldakuntza eta finantza globalizazioak sortu dituen egitura ekonomikoek autonomia hustu dute eta boterea zentralizatu dute. Nazioarteko erabakigune horietan autonomiak ez ziren, ez dira espazio horietan aitortuak. XX. mende hasieran sortzen den nazioarteko zuzenbideak egungo egoeran dauden beharrak galgaten ditu. Estatua soilik da aitortua. Adibide bat jarriko dut: Munduko Merkataritza Erakundearen estatuak daude ordezkatzuta, baina Hong Kongek esaterako zuzenean parte hartzen du Txinak horrela ahalbideratu duelako, ez MMEk.

Europar Batasuneko konstituzioa zirriborrotzen hasi zirenean, Giorgio Napolitano Eurodiputatuaren ekimenez, autonomia

“Segurtasuna ez baita estatua kanpo zein barruko mehatxuetatik babestea, jendea zoriontsu eta duin biziko den egoera bat sortzea baizik.”

“Europar Batasunean halako bidegurutzeak gero eta gehiago erabakitze eskubidearen bidez konponduko dira.”

“Zerk egiten du Irlandak edo Eskoziak bozkatu ahal izatea? Euren erabakia gauzarazteko duten indarrak.”



legegile batzuk Florentziako Agiria eman zuten argitara. Hor bestelako ikuspegi bat lantzen hasi zen, autonomiak aholkularitza organoetan baino erabakiguneetan egon ahal izateko. Ideiak ez zuten aurrera egin, ordea. Joschka Fischerek (Gerhard Schröderen garaian Alemanian kanpo arazoetarako ministroa izan zenak) garaiko Europako Konstituzioaren debateetan Europako Legebiltzarrari bestelako arkitektura bat ematea proposatu zuen autonomien eta landerren presentzia bideratzeko. Pentsa zitekeenaren kontra Alain Lamassourek jadanik 2005ean jorratua zuen. Geroztik ere ekimen ezberdinak izan ziren eta orain Cofoeren (Conference on the Future of Europe) testuinguruan ere proposamenak izan dira. Halere, gaur gaurkoz Europar Batasunak oso erantzun ahulak eman ditu. Errealitatea zera da: estatuaren egituren pribatizatzeak estatuko ohiko egiturak krisian sartu dituela.

Ez da kontraesankorra esaten ari zaretena. Ze faktorek eragiten dute 2000 urtetik aurrera estaturik gabeko nazioetako soberanismoaren indartzea?

G: Nire ustez gauza praktikoak dira faktore horiek. Euskaldunok arrantzatu dezakegun antxo kuota Bruselan negoziatzeko Madrilerako joateko beharrik ez izatea bezain gauza sinpleen bidez. Hori kontinente osoan gertatzen da. Beraz, suhar nazional bat existitzen den tokian, indartu egiten da, estatu nazioari begirako burujabetza faltak eta Europar Batasunarekiko burujabetza faltak indartzen dute. Baina gar hori ez duten tokietan ere antzera gertatzen da. Galesen adibidez. 1998an Tony Blairak Ostiral Santuko Akordioa sinatu zuenean Estatu operazio bat egin zuen. Bake akordioarekin batera Erresuma Batuak Eskoziari Scotland Act ematea erabakitzen du. Autonomia, parlamentua eta presidentea izatea ahalbidetzen dio horrek.

Galesi eskumen berak ematen dizkio, ez batean ez bestean ez zenean eskari nazional handirik existitzen horretarako. Eskozian horrek garapen independentista bat izan du. Galesen duela lauzpabost urte autonomia hobetzeko erreferendum bat egin zuten eta ez ziren independentistak izan martxan jarri zutenak, laboristak izan ziren. Burujabetza handiagoko eskatzen zuten, Galesen erabaki gehiago hartu ahal izateko eta estatu mailan, Europar zein nazioarte mailan eragiteko gaitasun handiagoko izateko. Flandrian berdina gertatzen da. Han ez dago tentsio independentista handirik. N-VA alderdi bozkatuena izatera pasa da Flandrian eta Belgika osoan. Flandriarrek argi dute burujabetza handiagoko izango balute hobeki joango litzaiekeela.

Kanakyrekin Frantziako Estatuak antzeko zerbait egin du orain, ezta?

G: Aipatu ditugun ezaugarri guztiak betetzen ditu. Numea eta Matignoneko akordioak bermatzen zuen erabakitze eskubidea baina amaieran egi bilakatu duena ez da hainbeste akordioa, baizik eta independentisten indarra. Orain egoera klabe batean dago. Bigarren erreferendumaren ondoren Frantziak lehen aldiz idatziz dokumentu bat pasa zien kanakyarrei, Kanaky estatu independente bihurtuko balitz zer egin beharko litzatekeen zehazten duena eta zer egin beharko litzatekeen independentzia gauzatuko ez balitz. Estatu bat independente nola bilakatzen den azaltzen duen gida perfektua da dokumentu hori. Beste kasuan, Frantziak aitortzen du status

quora itzultzea ez dela posible, ez dela posible autonomiari eustea. Bi urteko negoziaketa prozesu bat planteatu zuten estatus berri bat adosteko eta erreferendum bidez aprobatzeko.

Horrek, lehenago autonomiari buruz bota dudan tesia berresten du. Frantziar Estatuak jabetu da Kanakya bere menpe mantentzeko burujabetza gehiago eskaini behar diela. Britainiarrei Eskoziarekin eta Irlandarekin gertatu zitzaizen gauza bera, hain zuzen. Kanakya kasuan, adibidez, denborarekin erroldak bere alde eramango zituelakoan sinetsia zegoen Frantziar Estatuak.

E: Hori da. Lord Palmerstonen aipuari helduz, Frantziak Kanakya mantentzeko, adibidez, Hego Pazifikoko esparruan tokia izaten segitu ahal izateko asmoari jarraitzen dio.

G: Independentzia zerbait saihestezina dela sentiaraztera iristea garaipen handia da, sahiestezina den hori ahalik eta gehien atzeratzeko eskaintzak egin beharko dizkizutelako.

Beraz, XXI. mendean naziogintza eta estatugintza modu ezberdinean ulertu behar dugu?

E: Funtsean diferentzia bat ematen da naziogintzaren eta estatugintzaren artean eta populazio askok ikusi dute estatugintzaren tresnak izango balitu hobeto biziko liratekeela edo bederen guk geuk aukeratuko genukeela.

G: Niri oso kurioa egiten zait Katalunian dagoen eztabaida bat. Kataluniako alderdi independentistak

beti nazio askapenerako mugimenduen sare hauetatik kanpo mugitu izan dira Europar zein munduan. Beraz, ez dute ezagutzen auzi errepresiboetan eta eztabaidatzen ari garen moduko kontuetan pilatutako kapital politikoa eta esperientzia. Gaur Katalunian dagoen eztabaida da autonomiak lotu egiten dituela eta independentismoa itotzen duela eta aldi berean estatu egiturak eraikitzeaz hitz egiten dute. Noizbait eztabaidatu dut haiekin eta esan izan diet; “baina autonomia ez al da ba estatu egitura bat? Autonomia eraitsi nahi duzu ito egiten zaituelako eta era berean estatu egiturak eraiki? Baliatu itzazue egitura horiek Estatuak eraikitzen joateko!” Eztabaida horiek gaudituta behar lukete.

Nazio gatazkak konpontzeko jorratzen ari diren bide berriek ze zerikusi dute aldaketa guzti horretan?

G: Helburu hauek lortzeko 50eko hamarkadatik aurrera bide armatuaren alde egin zuten nazio askapenerako mugimenduak, gaur egun ez da bakar bat geratzen pentsatzen duenik borroka armatuaren bidez bere helburuak lortuko dituenik. Gehienek beste borroka molde batzuetara trantsizioa egin dute, beste batzuk orain trantsizioan daude eta badira beste batzuk oraindik trantsizio horri ekin nahian dabilzanak. PKKk esaterako ez du sinesten borroka armatuaren bidez lortuko dituenik bere helburuak baina aldi berean ezin du utzi. Borroka armatua mantentzeko beharra sorrerakoak ez diren galdera ezberdin batzuei erantzuten die. ELNren kasuan berdin.

“Errealitatea zera da: estatuaren egituren pribatizatzeak estatuko ohiko egiturak krisian sartu dituela.”

“Independentzia zerbait saihestezina dela sentiaraztera iristea garaipen handia da, sahiestezina den hori ahalik eta gehien atzeratzeko eskaintzak egin beharko dizkizutelako.”

Prozesu soberanistetan sartuta, aldebakartasunaren edo aldebigotasunaren eztabaida “antzua” dela aipatu zuen Arkaitz Rodriguezek Erriaren 8. zenbakian. Era berean, Euskal Herriak ez dauka eredu bat jarraitzeko, baina baditugu ikasgaiak beste prozesu batzuetatik.

G: Aipatu ditugun prozesu gehienetan ez dago hauteskunde hegemonia leihatze borrokarik. Argi dago nork duen hegemonia hori; Eskozian SNP, Flandrian N-VA, Irlandan Sinn Féin, Groenlandian alderdi inuita, Ferøe Irlatan Republican Party eta abar. Horrek prozesua zuzendaritza politiko askoz homogeneousago batekin garatzea ahalbidetzen du eta barne ezberdintasunak modu askoz arautuagoan konpondu ahal izatea etxe barruan. Kataluniako prozesuaren bertueetako bat da demostratzen duela emantzipazio nazionalerako prozesu bat garatu daitekeela independentismoaren baitan hauteskunde hegemonia eskuratzeko lehia izanda. Posible izan zen. Hori guretzat garrantzitsua da. Baina aldi berean, orain horixe bera da prozesuak aurrera egiteko duen arazo handienetakoa. Beraz, bertutea eta defektua da aldi berean.

E: Agian beti lehenesten direlako alderdiaren interesak herriaren interesen gainetik. Afera da prozesu independentistaren ibilbidean herria vs alderdia kontraesana beti presente izango dela. Kontraesan horren kudeaketa batek edo bestek prozesu indartu edo ahuldu dezake. Hor dago gako garrantzitsuetako bat.

G: Bai, izan daiteke, baina errealitate bat da. Guretzat Irlanda eta Hegoafrika izan dira urte askotan eredu nagusiak. Lehenago beste batzuk ziren eta orain beste batzuetara begiratzen dugu gehiago. Ingelesekin esaten da ez dela oin guztietarako neurri bakarra existitzen. Baina partekatutak izan daitezkeen ikasgai handi batzuk bai existitzen direla. Gu gure akatsetatik ikasi dugun ibilbide batetik gatoz. Gatazka elkarrizketaren bidez, modu demokratikoan eta adostuan konpontzeko saiakera pila egin ditugu eta porrot bakoitzetik ikasten joan gara. Hori esperientzia metatua da. Gakoetako bat akordio bat zer den eta zer ez denaren pertzepzioa da. Gatazken konponbidearen praktikak erakusten digu akordioak bake prozesuak pikutara joateko arrazoi nagusia direla. Munduan bake prozesuen %80 pikutara doa akordioagatik: ez delako lortzen edo modu ezberdinean interpretatzen dituztelako aldeek edo modu okerrean inplementatzen delako alde baten ustez... Guk praktikan ikasi dugu akordioek balioa dutela sinatzen diren egunera arte. Egun horretatik aurrera, akordio txar bat belaunaldi askotarako zama izan daiteke.

“Gatazka elkarrizketaren bidez, modu demokratikoan eta adostuan konpontzeko saiakera pila egin ditugu eta porrot bakoitzetik ikasten joan gara.”

Indarra askotan aipatu duzuen kontzeptua da honezkero. Prozesuek aurrera egiteko gakoa behar besteko indarra izatea dela, nolabait. Eta orduan, akordioek ze funtzio betetzen dute?

G: Akordioa sinatuta izateak ez du askorako balio, gero hori inplementatu arazteko behar adina indar politikorik, sozialik eta sindikalik ez baldin badaukazu. Sinn Féini ez dio ezertarako balio erabakitze eskubidea dutela dioen akordio batek, gero ez badute hori inplementatzeko adina indarrik. Izan ere, hego eta ipar Irlandan behar besteko indarra dutenean soilik aplikatuko dute hori egikaritzeko. Beraz, akordioarekin edo gabe, Irlandak bozkatuko du Sinn Féinek behar adina indarra badu Stormonten eta Dublinen. Hori ikasgai inportantea da, ze albo batera uzten ditu aldebakartasunari eta aldebigotasunari buruzko eztabaida horiek. Prozesu guztiek dute denetik.

E: Aurrekoak beste ikasgai batera garamatza. 1998an Ostiral Santuko Akordioa sinatu zutenean, bi aldeko mahaiaren paradigma baztertu eta maila anitzeko aktoreek (hiru estatu, nazioarteko eragileak, alderdiak...) bermatutako

paradigmara pasatu ziren. Paradigma mota hau geratzeko etorri da, eta esan daiteke arrakastarako bermeetako bat dela, sinaturikoa populazioaren sektore gehiago inplikatzeko dituelako, prozesua kolektiboago eginez. Horrek herri mailan pedagogia eta lan handia eskatzen du, gainera.

Gehiago zehazteko, hau dialektika bat bada, zer hartu behar da kontuan?

G: Lord Palmerstonengana itzuliko naiz; hark zioen dena direla interesak eta soilik interesak. Gu gauzak aldatu nahi dituen indar aurrerazale bat bagara printzipio batzuk ere kontuan izan behar ditugu. Beraz, interesen eta printzipioen arteko oreka egoki bat izatea da ideala. Eta bestetik, beti kontutan izatea errealitatearen printzipioa. Une historiko honetan, noraino iritsi ninteke? Brian Keenan Ostiral Santuko Akordioan IRAREN ordezkaria izan zenak zioen, desioak gabonetako gutunerako direla eta ez bake akordio baterako. Ze gertatu zaio FARCi? Akordio izugarria dute! Guztiaz hitz egiten du. Baina zein da akordio txar baten ondorioa? Orduetik akordioagatik borrokan ari direla eta hurrengo 20 urteak pasa ditzakete bete ez diren puntuak seinalatzen, engainatu zituztela esaten eta abar. Horrek zer dakar? Barne hausturak eta abar. Katalunian gauza bera. Beraz, argi izan behar dira interesak, printzipioak eta errealitatearen printzipioa eta horren arabera jardun.

Guk marra gorriak begiratzeko joera izan ohi dugu. Eta auzia ez da hori. Zer den posible/ zer lor daiteke da begiratu behar

“Kataluniako prozesuaren bertueetako bat da demostratzen duela emantzipazio nazionalerako prozesu bat garatu daitekeela independentismoaren baitan hauteskunde hegemonia eskuratzeko lehia izanda.”



“Akordioa sinatuta izateak ez du askorako balio, gero hori inplementatu arazteko behar adina indar politikorik, sozialik eta sindikalik ez baldin badaukazu.”

“Interesen eta printzipioen arteko oreka egoki bat izatea da idealia.”

“Zer den posible/zer lor daiteke da begiratu behar duguna eta hori askoz zailagoa da.”

“Euskal Herri mailan, estatu mailan zein Europa mailan interes komun horien arabera lan komun bat egiteko gai izatera pasa behar gara.”

duguna eta hori askoz zailagoa da. Kulturalki beti ari gara “hau ezin da”, “hori ezin da”, “hau traizioa da”... Ez ez ez. Hemen kontua da nola goazen apurka bidea egiten gure helburuetara iristeko, epe ertain edo luzerako direnak. Eta batzuetan hanka sartzen duzu eta beste batzuetan asmatzen duzu.

E: Hemen akordioez hitz egiten ari gara baina interesgarria iruditzen zait nola ulertu izan ditugun ikuspuntu maximalistetatik batailak, eta gaur egun munduan ezkerren baitan, bide pragmatiko hori nola ari den bilakatzen bide iraultzaile bat. Esaterako, Latinoamerikan gertatzen ari dena. Oso olatu iraultzaile batetik bestelako olatu gradualago batera pasatzen ari dira, oso erroturik dauden egiturak aldatzeko helburuari uko egin gabe. Oso kontziente direlako eskuinaren esku luzaz izan diren egiturak ez direla gauetik goizera aldatzen. Boteretik gabe gobernara iristen bazara eta aldatetako egiten saiatzen bazara oso zaila da mendeetako eta hamarkadetako egiturak aldatzea.

XXI. mendean gaude eta instituzioetan zein kalean lan filosofiaren parte dira, gehiengoak biltzea eta aliantza berriak garatzea.

Inklusibitatea eta aliantza berriak aipatzen dituzuenez, nazioartean elkarlanerako ze esparru sortu dezake horrek? Nola ulertu behar dugu internazionalismoa XXI. mendean?

G: Bai, pauso bat harago jo behar dugu. Ezagutu dugun internazionalismoa bi

blokeen arteko talkak gidatu duen munduaren ordenean oinarriturikoa izan da. Jarrera tinkoak mantendu ditugu eta gu bezala pentsatzen zutenekin harremanak eta proiektuak ehundu ditugu. Esperientziak, ikaspenak eta harremanak oso aberatsak izan dira. Baina mundua ez da bi bloketan banatzen jada eta eredu horretatik beste eredu askoz partekatuago batera pasa behar gara. Partekatua izan dadin, errealitatearen printzipioak gidatua izan behar da. Eta partekatua izango da gai bagara nazioarteko antzeko beste aktore batzuekin interes komunak identifikatzeko. Euskal Herri mailan, estatu mailan zein Europa mailan interes komun horien arabera lan komun bat egiteko gai izatera pasa behar gara. Jende dezenterekin bat egiten dugun bi ildo daude: bata, egituren demokratizazioa (autonomikoak, estatukoak, europarrak zein nazioartekoak) eta bigarrena, nazio aniztasunaren ezinbesteko aitortza. Estatu mailan gauza bera egin behar dugu Kataluniarekin eta Galiziarekin eta baita estatuko ezkerreko zenbait indarrek ere. Eta Europan gauza bera, estaturik gabeko nazioetako kideekin eta ezkerreko indar politikoko batzuekin. Horretarako gai izango gara interes komunak sintetizatzeke gai bagara, eta badaude.

E: Hori da XXI. mendeko ikasgai bat. Erriaren zenbaki honetarako segurtasunari buruzko artikulu bat landu dugu eta ikusi dugu agenda komun baten faltak eragotzi diola ezkerren bestelako ibilbide bat egitea, bakoitzak berea defendatu duelako. Teoria

alternatibo asko izan ditzakegu baina bakoitzaren bakardadean ez du ezertarako balio.

Agenda komun hori osatzera begira, ze bide dago egiteko? Iratzar Fundaziotik ze lan ari gara egiten?

E: Transform Europe Sarea, www.transform-network.net, 23 herrialdetako 39 erakunde europarrak osatutako sarea da, hezkuntza politikaren eta analisi zientifiko kritikoaren arloan ari dena, eta Europako Ezkerreko Alderdiaren (EL) oinarri politikoa ardatz duena. Ezkerreko erakunde, institutu, fundazio eta norbanako independenteen proiektu kooperatibo honek herrien arteko harreman baketsuei eta egungo munduaren eraldaketari begira egiten du lan. Aktoreen aniztasuna nagusi da bertan. Hori esanda, aniztasun horretatik gai gara puntu batzuen inguruan lan komuna egiteko, gai anitzen inguruan: segurtasuna, agenda berdea, agenda soziala, feminismoa, herrien burujabetza... Ukrainako gerra hasi zenean, adibidez, Transformen barruan segurtasunari buruzko diferentziak agertu ziren, baina debaterako giro ona dago eta bata bestea entzuteko predisposizioa. Beraz, ezkerrek behar duen agenda komun horren aldeko lan bat egin daiteke beti oinarritzko orube bat osatzearen alde.

Aliantzen esparrua oso zabala izan daiteke nazioarteko politikari dagokionez. Ze irizpideren arabera egin behar dugu lan?

G: XXI. mendean hasieran ezker abertzaleak irakurketa orokor bat egin zuen, Lizarra-

Garaziko prozesuaren hausturaren ondoren. Ondorioetako bat izan zen ez ginela gai izan nazioartea Euskal Herriaren gatazkaren konponbidera ekartzeko eta hori izan zela prozesu hura pikutara joateko arrazoietako bat. Horrek ezker abertzaleak bere nazioarteko lanaren eta aliantzen berrikuspen osoa ekarri zuen eta handik aurrera lan egiteko beste modu bat jarri zen martxan. Aieteren ondoren, azken hiruzpalau urteetan, hausnarketa berdintsua egin da gure mugimenduaren baitan, egun aliantzen helburua aldatu baita. Misio nagusia etorkizunean Euskal Herri independentea aitortu dezaten lan egitea da. Nazioarteko lana ez da epe laburrera egiten, epe erdi/luzera baizik. Horrek aldatetarik dakartza aliantzetan.

Gure aliantzak zehazterako garaian hiru gauza izan behar ditugu kontuan. Lehena, gu fronte zabal bat garela, anitzak. Aniztasun hori nazioarteko harremanetan eta aliantzetan garatzen saiatzen gara. Bigarrenik, zer gara? Estaturik gabeko herri bat, nazio askapenerako mugimendu bat eta ezker mugimendu bat. Hirugarrenik, ze helburu ditugu? Guk Transformekin, GUErekin, NGLrekin, PIERekin, berdeekin eta abarrekin ditugu harremanak. Hau da, irizpide horien arabera eragile asko eta oso ezberdinekin. Baina horrekin batera, harremanak ditugu gure interesak gauzatzeko beharrezkoak diren bestelako eragileekin, gure izaera edo ideologia hainbeste partekatzen ez dutenak, behar dugulako: estatuak, alderdi liberalak...

E: Horrek agerian uzten du guk botere bokazioa dugula. Planteamendu hori egin dugu ikuspegi horretatik.

G: Hori ere bidean ikasi dugu. Sinn Féinek, Hegoafrikarrek eta beste hainbatek erakutsi digute. Nelson Mandela goizetan Fidel Castrorekin biltzen zen eta arratsaldetan Bill Clintonekin eta ez zeukan arazorik. Biak zituen beharrezko.

E: Nazioartean egiten diren gauzak ulertzeko, testuinguruak eta ze momentutan egiten den ere pisu handia dauka. Batzuetan aliantzak oso epe motzera neurtzen dira eta xake partida batean bezalako jokoa ahalbideratzen dute. Alegia, aliantza batek ateak ireki ditzake, baldin eta horren aldeko indarra metatzen baduzu. Aliantzei begira akordioak egiten direnean, adosten dena baino inportanteagoa da zer nolako mekanismoak eta denborak zehazten diren, horrek determinatzen duelako aliantza horren etorkizuna.

Gatozen Espainiar eta Frantziar Estatueta. Sakoneko ze korrante ari dira mugitzen hor?

G: Tokatu zaizkigun estatuak tokatu zaizkigu. Euskal Herria Europa Iparraldeko estatu batean edo Erresuma Batuan balego, errealitatea oso ezberdina litzateke eta seguruena gaur Estatu independentea ginateke. Borrokarako tokatu zaigun testuinguruak dena determinatzen du. Nik kontuan izango nituzke lehen aipatu ditudan Europako tendentziak: halako gatazkak gero eta gehiago erabakitzeke eskubidearen bidez konponduko dira. Espainiako Estatuentzat gero eta

zailagoa izango da adostutako erreferendum bati atea ixtea. Hala ere, Estatu honek badakigu ze izaera duen eta ez dirudi ezkererako joera duenik. Beraz, motzean Euskal Herriaren erabakitze eskubidea aitortuko duela pentsatzea ez da errealista. Horri gerra eta pandemia testuingurua gehituta, aliantzen beharra dugu.

Aliantza horiek gauzatzeko, interes komunaren sintesia behar dugu lehen esan bezala, Estatuaren ezinbesteko demokratizazioan eragingo dutenak eta ezinbestean

Estatuaren izaera nazio anitza aitortzeko bultzatzen dituztenak. Aliantza horiek estaturik gabeko nazioekin eta espainiako sektore aurrerakoiekin egin behar ditugu beraz.

Eta Frantziar Estatuan?

G: Frantziar Estatuari dagokionez, aldaketa izugarria ematen ari da. Europako tendentzia orokor batzuk betetzen ari dira estaturik gabeko nazioei dagokienez. Esanguratsua da Korsikan gertatzen ari dena eta baita Ipar Euskal Herrian gertatzen ari dena ere. Egia da azken

hauteskundeetan Corsica Liberak oso emaitza kaxkarrak ateratu dituela baina soberanismoa oro har indartu egin da. Duela hamar urte pentsaezina zen Simeoni eta Talamonik gidatutako gobernu bat egongo zenik Korsikan. Kanakyko kasua lehenago aipatu dugu.

Hala ere, bestetik, Frantzian ematen ari den eskuinerantzko joera eta eskuin muturraren igoera konstantea, alderdi klasikoaren desagertzea, alderdi teknokrata baten agerpena... Ezkerreko ahuldada eta berrizteko arazoak izan ditu.

Azken unean soilik inposatu da aliantzaren beharra bizi den egoerari aurre egin ahal izateko.

E: Frantziar Estatuaren kontu esanguratsua hori da. Estatuaren egituren krisia nabarmena da. Honek ez du esan nahi Estatuak desagertuko denik. Kapitalak estatuaren behar du, baina gaurdaino zegoen egitura ez du gehiago balio. Eta pandemiak eta gerrak egoera hori indartu ditu. Estaturik gabeko nazioetan herri eta langileen sektoreen garaia da. Igaro diren hauteskundeek agerian utzi dute sistemaren ahulezia eta ze beharra dagoen estatuaren funtzio publikoa berreskuratzeko. Aldaketa konstituzionalak gertu izan daitezke. Frantzian estatu krisi bat dago, estatu egituren krisia eta parlamentarismoaren itotzea. Beraz, horren berrikuntzaren beharra dago.

Eta estaturik gabeko nazioei dagokionez, uste dut aliantzek joko eman dutela Lapurdin, Behe Nafarroan eta Zuberoan. Gehiago berrien osaketa oso interesgarria da eta hor badago faktore barneratzaile bat abertzale, aurrerakoi eta ezkerreko sektore batzuen. Urrats inportanteak ematen ari dira erakundetzean eta aitortzara bidean.

Ze egoeratan ikusten duzue Euskal Herria datozen erronkei heltzeko?

E: 2010ean Kosovoko epaia ateratu zenean, bide orri bat markatu zen eta horrek estaturik gabeko nazioen hurrengo urteetako ibilbidea markatu zuen. Euskal Herrian oso garbi dago honezkero aliantza berriak eta gehiago berriak behar ditugula. Oso ziurgabea den egoera batean

gaude eta jendearen beharrek konektatu behar dugu, datozen erronkei aurre egiteko Euskal Eredua eskainiz. Alternatiba daukagulako eta ordena berri bat eskaini dezakegulako.

Beste gauza bat ere ikasi dugu: ibilbidea modu gradualean egiten dela. Jendearen beharrei politika batzuen bidez erantzunak emanez aurreratzen dugu. Politika horiek ez dute beti guk nahi genukeen irismena, baina gure lan politikoa instituzioetan eta kalean kokatzen denez, une bakoitzean dugun indar korrelazioak politika horien irismena determinatuko ditu. Helburua, instituzioetan eta kalean jendea ahalik eta ondoen bizitzea da. Jendearen bizitza hobetzeko

politika pragmatikoak egitea, urrutiago joan ahal izateko urrats inportanteak dira.



“Misio nagusia etorkizunean Euskal Herri independentea aitortu dezaten lan egitea da.”

“Agenda komun baten faltak eragotzi dio ezkerreari bestelako ibilbide bat egitea, bakoitzak berea defendatu duelako.”

“Halako gatazkak gero eta gehiago erabakitze eskubidearen bidez konponduko dira.”

“Frantzian estatu krisi bat dago, estatu egituren krisia eta parlamentarismoaren itotzea. Beraz, horren berrikuntzaren beharra dago.”

“Jendearen bizitza hobetzeko politika pragmatikoak egitea, urrutiago joan ahal izateko urrats inportanteak dira.”

Osasun sistema publikoa. Gaurko egoera eta biharko Euskal Herria

Bi urte bete ditu dagoeneko gure bizitzak hankaz gora jarri zituen pandemiak. Orduetik hona, orain arte izandako zerbitzuen arretaren kalitatea ezbaian jarri da, osasuna eta osasun sistemak duen garrantziaz ohartu gara. Era berean, gobernuek eskubide indibidual zein kolektiboen gain duten boterea zalantzan jarri da: zertan oinarritzen diren erabakiak hartzerako momentuan, ikerketa edota komite zientifikoei jartzen dieten arreta, osasuna eta ekonomia balantza berdinean jartzearen sentsazioa...



Naroa Hernandez Izaga
Osasun Publikoa Aurrera plataformako kidea

Argazkiak: FOKU



ZER DA OSASUNA?

1948. urtean Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) egindako definizioak horrela dio: ongizate fisiko, mental eta sozialaren egoera erabatekoa da osasuna, eta ez bakarrik gaixotasun eza. Osasuna eguneroko bizitzarako baliabidea da, eta ez bizitzako helburua. 1986. urtean, Genevan egindako bilkuran, Osasunaren Promoziorako

Ottawako eskutitza idatzi zen eta manifestuan zehaztu zen osasuna bizitzaren oinarritzko eskubidea izanda, hau bermatu ahal izateko, hainbat aurrebaldintza daudela: errekurtsio ekonomiko egokiak, elikadura baldintzak, etxebizitza, bakea, ekosistema egonkorra baita errekurtsioen erabilera jasangarria ere, adibidez. Beraz, osasunaren ikuspegi integralagoa

biltzen zuen. Beranduago, Yakartako Hitzarmenean, 1997an, hainbat gako eman ziren jendarte osasuntsu bat bermatze aldera; jendartearen parte hartzea, pertsonen zentralitatea erabakiak hartzerako orduan, osasunaren inguruko formakuntza eta heziketa eta informazioaren eskuragarritasunean jarri zuten fokua.



Euskal Herrian, osasunaren narriatzea ez da etorri pandemiaren ondorioz bakarrik.

Euskal Herrian, osasunaren narriatzea ez da etorri pandemiaren ondorioz bakarrik. Aldez aurretik eta denbora luzez hartzen joan diren erabaki politikoak merkatuari eta kapitalari bideratuak joan dira. Hor dago gaurko osasun sistemaren pobretzearen arrazoia. 1986. urtean Espainian Osasun Lege Orokorra onartu zenean (honen barruan sartzen dira EAE eta Nafarroa, Ipar Euskal Herria, Pirinio Atlantikoen Departamentuaren barruan Frantziako legediaren menpe dago), Osasun Sistema Publiko ezberdinetako erabiltzaileak zerbitzu pribatuetara bideratzea baimendu zen, Kontzertu Ekonomiko eta Hitzarmen ezberdinen bitartez. 1991. urtean, Abril izeneko txostenean (Espainiar Estatuan argitaratua) zerbitzuen azpikontratazioa,

koordainketa eta osasun zerbitzuen hornidura eta finantzaketaren arteko banaketa proposatu zen. Protesta sozial handiak egon baziren ere, 15/97 legearekin proposatutako aldaketa horiek onartu ziren; gestio mota ezberdinei eman zieten sarbidea, zentro publikoak enpresa pribatuen bitartez kudeatzea, esaterako. Pandemiak eragin duena, hortaz, urte luzez Osasun Sistema Publikoak zeraman joera larriagotzea baino ez da izan.

1991. urtean, Abril izeneko txostenean zerbitzuen azpikontratazioa, koordainketa eta osasun zerbitzuen hornidura eta finantzaketaren arteko banaketa proposatu zen.

Lanpostu finkoak gero eta gutxiago dira, eta datozen 10 urteetan erretiroa hartuko duten langileak erdia baino gehiago dira. Horren aurrean ez da estrategiarik garatu.



OSAKIDETZAKO LANGILERIA

Pandemia garaiak osasun profesionalen larrialdi egoeraren tamaina erakutsi digu. Gaixotzeak, estres eta antsietate bajak ugari izan dira eta euren postuak ordezkari ezinda ibili dira. Lan karga amaitezinak eta antolakuntza faltak, Lehen Mailako Arretako kolapsoak eta ZIU zein larrialdietan baliabide faltak, eskainitako zainketa kalitatea asko okerragotu dute. Azken urte luzeetako joera baten azken etapa baino ez da. Izan ere, osasunarekin loturiko hainbat esparrutako pribatizazioa

azken urte hauetan egon den joera izan da. Garbitzaileen, mantentze lanetako teknikarien eta zerbitzuen pribatizazioa epe laburreko aurrezki ekonomikoaren logikan hartutako erabakiak dira. Baina horrek guztiak langile horien lan baldintzen okerragotzea, zerbitzu edo langileen arteko komunikazio zailtasunak handitzea, langileen arteko konpetentziak areagotzea eta abar ekarri du, azken buruan osasun arretaren kalitatearen gutxituz. Adibide gisa, Ingalaterran egindako ikerketa batean, garbiketa

zerbitzuen pribatizazioarekin batera infekzioen barreiatzearen hazkundera egon zela frogatu zuten ikerlariek, SARM infekzioaren (ospitale barruko infekzio mota bat, gaixoen osasun egoera okerragotzea eragiten duena) intzidentziak gora egin zuelarik (2). Horretaz gain, behin-behinekotasuna (leku batetik mugitzearekin batera, jakintza falta eta zainketa kalitatearen galera dator zuzenean), lan kargen desoreka edota enplegu finkoaren galera azken urte hauetako joeren begi bistako ondorioak izan dira.

Bestalde, profesionalen eskasia eta burujabetza falta nabaria da (MIR eta EIRerako formazio plazak Madrilen erabakitzen dira adibidez). Langile kopuru eskasiak zerbitzu on eta eraginkorra ematea eragozten du. Gainera, langileen artean osasun arretan ondorio zuzena eragiten duten desorekak gertatzen dira, ez baitago herritar kopurua eta langile kopuruaren artean egon beharreko proportzioa ezartzen duen araurik. Hori gutxi balitz, lanpostu finkoak gero eta gutxiago dira, eta datozen 10 urteetan erretiroa hartuko duten langileak erdia baino gehiago dira. Horren aurrean ez da estrategiarik garatu.

Azken urtean egon diren mobilizazioen artean egin den aldarrietako bat, 24.600 langilek baino gehiagok pairatzen duten behin-behinekotasunarekin amaitzea izan da, tasa %8ra jaitsi arte, plantillen kontsolidazioa eskatuz. Arrisku psikosozialak ebaluatzea da eskaeren artean dagoen puntu garrantzitsu bat, baita neurri zuzentzaileak aplikatzea ere, lan-kargetan eta pandemiaren ondorioetan arreta berezia jarritz. Pandemia dela eta, kontratuen prekarizazioa ere justifikatu dute: errefortzu kontratu mordoa egin dira. Zer den

hori? Edozertarako balio duten kontratuak: edozein zerbitzutara mugitu ahal izateko, OSI baten barruan, eraikin batetik bestera mugitzea ahalbidetzen duena, iraupen laburrekoak direnak, beharren arabera luzatzen joango direnak... Zein da ondorioa? Estres maila handiak dituzten profesionalak, ilusioa galduta eta frustrazio sentsazioa dutenak... zertan eragiten du horrek denak? Jendarteari eskaintzen diogun osasun arretaren kalitatean.

Ingalaterran egindako ikerketa batean, garbiketa zerbitzuen pribatizazioarekin batera infekzioen barreiatzearen hazkundera egon zela frogatu zuten ikerlariek.

Profesionalen eskasia eta burujabetza falta nabaria da (MIR eta EIRerako formazio plazak Madrilen erabakitzen dira adibidez).

Zein da ondorioa? Estres maila handiak dituzten profesionalak, ilusioa galduta eta frustrazio sentsazioa dutenak.

Sendatzeak eramaten duela gastuen ehunekorik handiena. Alegia, prebentzioa beharrean, partxe txikien estrategia.

LEHEN MAILAKO ARRETA ETA ZERBITZUEN ESKURAGARRITASUNAREN MURRIZKETA

Osasun Publikoaren gastu ekonomikoen erradiografia egiten badugu, eta iturri ezberdinetako datuak alderatzen baditugu, ehunekorik handiena ospitaleko asistentziak darama. Egun ezberdinetako estantziak, interbentzioak, medikazioak, protesiek eta antzekoak dira gastuen %60a. Ostean, farmaziak %14,5 inguru eta Lehen Mailako Arretak %14,3.

Zer esan nahi dute datu hauek? Sendatzeak eramaten duela gastuen ehunekorik handiena. Alegia, prebentzioa beharrean, partxe txikien estrategia. Izan ere, gaixotzen den pertsona orok behar dituen zainketa guztiak kontsumitzeko eskubidea du. Kontua da, hauetako kasu asko interbentzio egoki batekin ekidin, atzeratu edo arindu zitezkeela. Prebentzioak eta promozioak aldaketa sakona eskatzen dute ordea, hala nola, luzera begirako irtenbideak, osasuna jendartearentzako zerbitzuetan landuz: eskoletan, lantokietan, komunitatean. Lehen mailako arretak, ordea, dekadentzia batean segitzen du azken urteetan: EAGn itxiera, ordezkapenik ez egitea, agendak ixtea opor garaietan...

Komunitatea unitate sozial bat bezala antzematen den pertsonen talde antolatua da. Osatzen duten norbanakoek ezaugarri, interes, helburu edo funtzio antzekoren batean parte hartzen dute. Eremu geografiko batean kokatzen da eta inguru horretan euren artean elkar eragiten dute. Beraz, Lehen Mailako Arretako langileen lan eremua da komunitatea eta horien lana da komunitate horren inguruan ezagutza handia izatea, euren interes eta ezinegonak identifikatuz eta hauei arreta eskainiz. Pandemia garaian oso argi ikusi zen komunitate bat antolatu eta elkar laguntzeko gai dela. Baina zaintza kolektiboa erdigunean jartzeko, giza baliabide gehiago, diru inbertsio gehiago, herri programa gehiago eta horien arteko lotura behar dira: buru osasuna, zerbitzu sozialak, elikadura zein bizi estilo osasungarriak bultzatzeko dinamikak, norbanakoak bere osasunaren kontrol gehiago izatea, osasun ahalduntzea...

Aurreko puntuarekin oso lotua dagoen gaia da hurrengoa. Gasteiztarra naizenez, hurbiletik bizitzea tokatu zait bai EAG baten itxiera, baita oraintsu gertatu den Santiagoko Ospitaleko Larrialdien itxiera



Zaintza kolektiboa erdigunean jartzeko, giza baliabide gehiago, diru inbertsio gehiago, herri programa gehiago eta horien arteko lotura behar dira.

Lehen Mailako Arretan giza baliabide zein material nahikoa egongo balira eta erizain edota medikuarekin egoteko astebete edo gehiago itxaron beharko ez balitz, EAGtara edota Larrialdietara doazen kasuen ehuneko gutxituko litzateke.

ere. “Eremuan bizi den biztanleri kopuruarentzat nahikoa da urgentzietako zerbitzu batekin”, “EAGa ixteak ez du esan nahi plantilla edo zerbitzuak gutxitu direla”, “Gasteiztarron beharretara egokitzen ditugu asistentzia esparruak”... bezalako titularrak irakurri, entzun edo ikusi ditugu maiz azken boladan.

Domino fitxak bezala, murrizketa batek eragin zuzena du ondorengo asistentzia mailan, eta beste horrek hurrengoan... Lehen Mailako Arretan giza baliabide zein material nahikoa egongo balira eta erizain edota medikuarekin egoteko astebete edo gehiago itxaron beharko ez balitz, EAGtara edota Larrialdietara doazen kasuen ehuneko gutxituko litzateke (gernu infekzioak, gastroenteritisak, hagineta mina, gaitz muskuloeskeletiko batzuk...) Aldiz, momentuan arreta jaso ezinak, erabiltzaileek bestelako zerbitzuetara jotzea dakar.

PRIBATIZAZIOA

1978an Espainiako Konstituzioa onartu zenean osasun asistentziaren kudeaketa eta hornidura autonomien esku geratu zen. 1983 urtean sortu zen Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzua, horren baitan Diputazioen esku zeuden hainbat zerbitzu zein zerbitzu pribatu batzuk integratuz. 1986ko Osasun Lege Orokorrarekin Osasun Sistema Nazionala (Espainiakoaz ari gara) sortu zen eta Osakidetza bere barnean sartu zen. Gerorako utzi zituzten hainbat kolektibori osasun asistentzia ematen zieten

Gizarte Segurantzako Sistemaren ekite berezia zuten erregimen (MUFACE, MUJEGU, IFSAS...). 2011ra arte hainbat izan ziren sortu ziren legeak, Espainiako Osasun Sistema Nazionalak ematen zuen osasun asistentzia zergen bidez finantzatu eta unibertsala izateko.

Osasun sistemaren izaera publikoa eta unibertsala kolokan jarria izan da askotan. 90eko hamarkadan politika neoliberalen ondarea nabaria izan zen Osasun Sistema ezberdinetan. Osakidetza kasuan, Osasuna Zainduz Planak ezarri zuen konpetentzia, finantzaketa eta hornidura sistemak banatzearen ideia. Espainiako krisi ekonomikoaren testuinguruan 16/2012 dekretua onartu ostean, Espainiako Osasun Sistema Nazionalak, Espainiar nortasuna ez zuten eta 18 urte baino gehiago zituzten pertsonen osasun asistentzia eskubidea mugatu zien (salbuespenak kenduta). Estatu independentea ez garenez, Osakidetza ere neurriak hartu ziren, hauek bestelako esparru batzuetakoekin konparatuz txikiagoak izan baziren ere (2).

Zerbitzu baten pribatizazioak hitz egiten dugunean, sektore publikoaren gaitasun edo konpetentzia baten transferentzia osoa edo partziala sektore pribatuari emateaz ari gara. Gaur egun, sektore pribatura transferitzeko arrisku gehien duten esparruen artean, formakuntza, ikerketa, planifikazioa, osasun finantzaketa eta aseguruak eta zerbitzuen hornidura daude. Zer ondorio ekar

dezake pribatizazioak osasun asistentzian? Lehenik eta behin, eskuragarritasuna gutxitu egiten du, hainbat kolektibo osasun asistentzia gabe utziz. Horrek osasunean ere maila sozial ezberdinetako kolektiboen arteko arrakala dakar. Are gehiago, gaixotasuna pairatzen duen pertsona pobrezia egoeran geratzea ekar dezake. Hainbat ikerketen arabera, osasun sistema pribatuak garrantzia gehiago duen herrialdeetan jendartearen osasun adierazleak baxuagoak dira, bizi itxaropena txikiagoa da eta osasunean arrakala handiagoa da.

Osasun sistema pribatuen presentzia areagotzeak, osasuna merkatuaren legean oinarritzea dakar eta oro har, horien helburua etekin ekonomikoa da.

16/2012 dekretua onartu ostean, Espainiako Osasun Sistema Nazionalak, Espainiar nortasuna ez zuten eta 18 urte baino gehiago zituzten pertsonen osasun asistentzia eskubidea mugatu zien.

Zer ondorio ekar dezake pribatizazioak osasun asistentzian? Lehenik eta behin, eskuragarritasuna gutxitu egiten du, hainbat kolektibo osasun asistentzia gabe utziz.



BURU OSASUNA

Buru osasunak ere protagonismoa hartu du azken bi urte hauetan; Argia aldizkariak publikatutako artikulu batean aipatzen den bezala, antsietatea, depresioa, loaren eta elikaduraren nahasmena, segurtasun eza, estresa, tristura, ezintasuna, kontzentrazioa galtzea, beldurra, neke emozionala, larritasun eta akidura sentazioa, autoestimua baxua, suminkortasuna eta umore-aldaketa bortitzak izan dira gazteen artean identifikatutako sintoma nabariak. OMEk neke pandemikoaz hitz egin du berriki; estres posttraumatikoaren itxura hartu du kezka horrek (14). OMEren datuen arabera lau pertsonatik batek nahasmendu psikologikoren bat garatzen du bizitzan zehar. Eta 2030 urterako buru osasuneko arazoak munduan ezgaitasunezko lehen arrazoi bihurtuko direla aurreikusi du, pandemiak izan duen inpaktua ghituz.

Frogatuta dago buruko osasun arazoengatik egindako kontsulta gehienak medikuntza orokorrean eginak direla eta aldiz, zuzenean psikologiako edo psikiatriako zerbitzuetara jotzen dutenen ehuneko askoz txikiagoa dela. Lehen Mailako Arretako profesionalak dira gaitz guztientzako lehen iragazkia eta garrantzitsua da horiek diagnostiko egokia egitea. Testuan zehar aipatutako murrizketek gaizki diagnostikatzeko edo azpidiagnostikatzeko arriskua areagotzen dute. Datu horiek eskua artean izanda, interbentzio baten beharra ezinbestekoa dela ikusi da.

2030 urterako buru osasuneko arazoak munduan ezgaitasunezko lehen arrazoi bihurtuko direla aurreikusi du.



Europako egoeraren inguruan egindako lan batean aipatzen den moduan, garai hauetako erronketako bat adinekoak diren pertsonen energia eta esperientzia baliatzea da. Horretarako osasuntsu eta aktibo mantendu behar dira, garapenean ekarpena egiteko eta bizi diren komunitateen ongizatean parte hartuz. Hainbat ikerketek ziurtatzen dute hori dela hirugarren adineko pertsonen nahia. Promozioan oinarritutako hainbat proiektu ziurtatzen dute adinduek osasun onura positiboak eskuratzeaz gain, gizartean ere onurak eragiten dituela denbora luzeagoz bizitza estilo osasuntsuak mantentzen dituztenean (8).

ZAHARTZEA ETA ESPAZIO SOZIOSANITARIOAK

Eustatek emandako datuen arabera, EAEn bizi diren biztanleen %22,5ak 65 urte baino gehiago ditu, %57,5 dira emakumeak. Bakarrik bizi diren herritarren %43a 65 urtetik gorakoa da eta horien lautik hiru emakumeak dira. Bizi itzaropena 86,6 urtekoa da emakumezkoentzat eta 80,8 urtekoa gizonezkoentzat. Aktibo mantentzeko muga kronikoa 75 urtetan kokatzen da emakumeen %35,8 arentzat eta %26,1ean gizonezkoen kasuan. 2019 urtean, pandemia aurretik, EAeko ospitaleek 247.502 ospitalizazio erregistratu zituzten; hauen erdia 65 urtetik gorakoenak izan ziren.

Azken 25 urteak kontuan hartzen baditugu, zaharren egoitzak hirukoiztu egin dira EAEn; 158 izatetik 448 izatera pasa dira. Horietatik titulazio

publikoa dutenak 158 dira eta pribatuak 290. Eguneko zentroei dagokionez, 1994an 354 zentro zeuden eta 25 urte beranduago, 514 zentro izatera pasa dira. 2019an 20.949 erresidentzia plaza zeuden, horietatik 7487 publikoak eta 13.462 aldiz, pribatuak. Erresidentzia asko kontzertatuak dira, hau da, bere gestorea pribatua da baina plazak Diputazioaren bitartez tramitatzen dira. Hala, diru laguntza publikoak jasotzeko aukera dute erresidentzia horiek. Pribatuetan erabiltzaile bakoitzak batz best 1500 euro ordaindu behar izaten du gutxi gora behera hilero.

Erresidentzia asko kontzertatuak dira, hau da, bere gestorea pribatua da baina plazak Diputazioaren bitartez tramitatzen dira.

Pandemia garaian erresidentzien gaia pil-pilean egon da, oso zaurgarriak diren espazioak direla ikusi baita eta hainbat puntu mahai gainean jarri direlako. COVID19aren ondorioz emandako heriotzen %40-50a zahar egoitzetan eman direla irakurri eta entzun ahal izan dugu albisteetan (heriotza hauen barruan hainbat faktore kontuan hartu behar diren arren, zifrak beldurgarriak dira). Bizitza kolektiboa egiten den tokiak izatean, eta sarri bertan bizi diren pertsona kopurua oso altua denez, birusaren hedapenean intzidentzia altua izan duten espazioak bihurtu dira. Espazioen hedadura eta profesional ratioak gai honen beste determinanteetako batzuk izan dira.

Egoitzetako langileen protesta ugari egon da pandemia garaiko kudeaketa ez ezik, hainbat irregulartasun salatuz.

Adibidez, erresidentzia askotan ez zeudela egunero irteerak edota bisita ordutegi askok ez zutela bateragarri egiten lana eta familia kontziliazioa; informazio falta handia zegoela bai egoitzaren egoeraren zein erabiltzaileen osasun egoeraren inguruan; zentro askotan ez zirela ekintzak egiten bertako erabiltzaileekin; hauen zainketaz arduratzen diren erizain laguntzaile askok bere gain hartu behar zituztela bestelako lanak erabiltzaileen zainketatik denbora kenduz; langileen egonkortasun faltak profesional aldaketa asko egotea dakar, horrek erabiltzaileen zainketen jarraikortasunean eragiten duelarik... Horrek denak zuzenean adinduen osasunean larriki eragiten du, batez ere, egoera fisiko zein kognitiboaren narriadura; bakardadeak, kontaktu galerak eta estimuluen gabeziak egoera emozionalean eragiten dituen ondorioak ahaztu gabe.

Langileen egonkortasun faltak profesional aldaketa asko egotea dakar, horrek erabiltzaileen zainketen jarraikortasunean eragiten duelarik.

Zahartzea bizi-ibilbidearen prozesu bat da. Neurri handi batean gizarteak zahartzeko duen moduak determinatzen du ibilbide hori. Zientzian frogatu daude bizitzeko moduak, osasunaren gizarte-determinatzaileek zein determinatzaile psikologikoen, informazioa eskuratzeko aukerak eta beste hainbat faktorek zahartzean duten eraginari buruz; faktore horiek neurri handi batean baldintzatzen dute pertsonen zahartzaroan izango duten bizitza-kalitatea eta autonomia mantentzeko gaitasuna.

Jendarte talde hau “gainkarga” bat bezala hartu beharrean, baloratu, indartu eta merezi duten aitorpena bermatzen duten politika ezberdinak formulatu daitezke, izan dezaketen rol soziala eta ekonomiko formala zein informala sustatuz. Prest al daude arduradunak osasun politikak norantza horretan eramateko? Gaur egungo azterketa eginda, horretara heltzeko distantzia handia dela esatera ausartuko naiz, partxe txikiak jartzen jarraitzen baitute gehienetan.

Jendarte talde hau “gainkarga” bat bezala hartu beharrean, baloratu, indartu eta merezi duten aitorpena bermatzen duten politika ezberdinak formulatu daitezke.

BIHARKO EUSKAL HERRIA

Biharko Euskal Herria eraikitze osasuna ezinbestean landu behar den gaia da. Ipar Euskal Herriak, Nafarroako Foru Komunitateak eta Euskal Autonomia Erkidegoak osatzen duten eremu geografikoan, osasun zein ongizate sozialerako oso eredu ezberdinak ditugu, kontzepzio politiko ezberdinekin eta konpetentzia maila ezberdinekin. Euskal Herri osoan beharrak eta arriskuak antzekoak diren arren, emandako erantzuna oso ezberdina da administrazio eremu bakoitzean. EAEko eta Nafarroako Osasun Sistemak Espainiar Estatuaren menpe daude eta Ipar Euskal Herriko Osasun Sistema, Pirinio Atlantikoetako Departamentuaren baitan dago, hau, Frantziar Estatuaren menpe. Madrilen hartutako erabakiek Hego Euskal Herrian

nola eragiten duten ikusi dugu. Beraz, atera daitezkeen lehenengo ondorioa Osasun Sistema Publiko propio baten beharra da, erabakiak Euskal Herrian, euskal herritarrentzat hartzen dituenak. Hartarako bidea luzea den arren, gaur bertan has gaitezke horretan lanean. Bihar independentzia lortuko bagenu, prest eduki beharko genituzke Euskal Herriko Osasun Sistema Publikoa martxan jartzeko beharrezkoak diren erramintak, programak, infrastrukturak etab. Eta nola hasi lantzen? Hasteko ezinbestekoa da euskal herritar orok gure herrian dugun egoeraren berri izatea. Horretarako, gaur egun ditugun osasun errealitate ezberdinak bateratzen dituzten lanak sortzen hasi behar gara, gure buruko eskemetan Euskal Herri osoko osasun mapa barneratze aldera.

Bakoitzaren ahulgune zein indarguneak ezagutu eta hasieran teorikoa litzatekeen zerbitzu komunak multzokatzeaz gain, ostean, praktikara eramaterakoan, baliatu daitezkeen infrastrukturak, baliabideak, jarduteko moduak erabili eta behar diren aldaketak gauzatu beharko liriateke.

Bestetik, gaur egun urrun gaude euskararen normalizaziotik eta osasunaren arloan, berebiziko garrantzia du horrek. Zerbitzu publiko batzuk erdaraz jasotzera ohitu dira herritarrak eta beste zenbaitetan euskara erabiltzeagatik albo ondorioak pairatzeak, herritarrak etsipenera eta bigarren mailako herritar sentitzera eramaten ditu. Eta ez hori bakarrik; herritarrak bere hizkuntzan ezin komunikatzeak diagnostiko okerrak egiteko edo

azpi diagnostikatzeko arriskua ekar dezake. Horretaz gain, osasunarekin lotutako ikasketek ez dute bermatzen gure hizkuntzan trebatu ahal izatea, horrek gerora eskaini daitezkeen zerbitzuen kalitatean eragin zuzena duelarik.

Komunitatea subjektu politikotzat hartu beharra dago, komunitatea bera baita bere berezitasun guztiekin, edozein zailtasun egoerari aurre egiteko baliabide nagusia. Eredu komunitarioan sakontzeak gizartearekin, komunitateko kideekin, hirugarren sektore sozialeko erakundeekin, gizarte mugimenduekin, auzo mugimenduekin eta abarrekin batera lan egiteko ahalegina egitea dakar, herritarrek ongizate kolektiboarekiko, eskubideen sustapenarekiko, salaketarekiko eta azken batean, gizarte eraldaketarekiko duten konpromiso aktiboa bultzatzen dutelako.

Arazo sozialak egiturazkoak eta sistemikoak direla kontuan hartu beharra dago, jakinez horiek eraldatzeko gakoa ez dela individuala, kolektiboa baizik. Hori horrela izanik, Udal eremua eta Lehen Mailako Arreta esku hartze eta lan komunitarioko praktikak garatzeko hurbilen dagoen espazio erreferentzialak izan daitezke. Herritarrengandik hurbilen dauden erakunde eta egiturak direnez, behatoki pribilegiatua dira herritarrekin batera ikertzeko eta lan egiteko, kontraboterea gauzatzeko eta sozialki eta politikoki eragiteko. Tokiko eremua funtsezkoa da klase politikoa eta herritarrak elkartzeko eta testuinguru ezin

hobea herritarren ongizatean eragin zuzena duten gizarte politikak garatzeko.

Pandemia garaian auzoetako elkartasuna, artikulazioa, autoantolaketa eta autogestioa azaleratu dira. Sare gisa funtzionatu dute komunitateek zein gizarte ehunek, eta zaurgarritasun egoeren aurrean erantzukizunez jardun dute, gizarte ekintzaren funtsezko eragile bihurtuz. COVID19ak eragindako testuinguruak, hain zuzen ere, planteamendu komunitarioa posible dela erakutsi du eta horren alde egiteko aukera eskaini du.

Azken paragrafoetan aipatutakoa kontutan hartzen badugu, uste dut gure herriak kulturaren errotua duen herrigintza eta auzolana goraiatu daitezkeela, Euskal Herri independente baten bidean, Osasun Sistema Publiko propio bat eraikitze aldera, bidearen zati bat egina baitugu horrekin. Ez dugu itxaron behar independentzia eskuratzera, bitartean, auzoka, herrika, taldeka... lanean jarri behar dugu, nahi dugun eredurako hazia jarriz. Premiazkoena, txalupan parte hartzen dugun guztiok norantza berdinean arraun egitea da.



Gotzone Sagardui Osasun Sailburuaren hitzek arrabotsa eragin dute osasun langileen artean eta gizartean. Osakidetzan "kultura aldaketa" bat egin beharko dela adierazi zuen, pazienteak gehiago desplazatzeko ohitu beharko dugula esanda, besteak beste. Sindikatu eta eragileek murrizketen bidezko pribatizazio prozesuaren tankera hartu diote Osasun Sailaren planari.

1991. urtean, Abril izeneko txostenean zerbitzuen azpikontratazioa, koordainketa eta osasun zerbitzuen hornidura eta finantzaketaren arteko banaketa proposatu zen.

Zerbitzu publiko batzuk erdaraz jasotzera ohitu dira herritarrak eta beste zenbaitetan euskara erabiltzeagatik albo ondorioak pairatzeak, herritarrak etsipenera eta bigarren mailako herritar sentitzera eramaten ditu.

Komunitatea subjektu politikotzat hartu beharra dago, komunitatea bera baita bere berezitasun guztiekin, edozein zailtasun egoerari aurre egiteko baliabide nagusia.

COVID19ak eragindako testuinguruak, hain zuzen ere, planteamendu komunitarioa posible dela erakutsi du eta horren alde egiteko aukera eskaini du.

“No pedimos venganza, sino reconocimiento y reparación”

Nos hemos reunido en Iruña con Aina Gorostiaga Eskubi (Iruñea, 1974) y Eneko Villegas Amezketa (Atarrabia, 1985), miembros de la Red de personas Torturadas de Nafarroa. Esta iniciativa está reuniendo a los navarros y navarras que han sufrido torturas en las últimas décadas. Hemos hablado sobre la iniciativa, sus objetivos, el proceso en el que están inmersos, y muchas cosas más. Entre otras cosas, el colectivo reclama al Gobierno foral una investigación oficial, independiente y científica para esclarecer los casos de tortura cometidos por las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad del Estado en Nafarroa. Mencionan la investigación desarrollada en la CAV como ejemplo. Según Aina y Eneko, ha llegado la hora de poner luz y taquígrafos a lo sucedido durante las últimas décadas, ha llegado la hora del reconocimiento, la reparación y lograr las condiciones que imposibiliten que se vuelvan a suceder nuevos casos de tortura.

Red de personas Torturadas de Nafarroa

Erria

Argazkiak: FOKU



“El primer punto de inflexión fue la investigación que se hizo en la Comunidad Autónoma Vasca con respecto a las torturas. Navarra se quedaba fuera de todos aquellos datos y ahí vimos la necesidad de ir en la misma dirección.”

La primera pregunta obligada es sobre la iniciativa. ¿Cómo y de donde surge la idea de crear esta red?

Eneko Villegas. Es en 2018 cuando creamos una red donde nos juntamos de una forma simple, por decirlo así, gente torturada de Nafarroa, para hablar sobre nuestras experiencias. En principio nos mueve la reclamación de reconocimiento, verdad y reparación. Empezamos a hacer algunas iniciativas, pero quedaron ahí. Después volvimos con más fuerza después del revuelo creado con el documental “Non dago Mikel?”, después de los audios en donde se escucha como la Guardia Civil explica que Mikel murió torturado, etc. eso fue un punto de inflexión. Entonces vimos una oportunidad, vimos que la gente estaba dispuesta a abrirse a conocer la dimensión de la tortura. Empezamos a reunirnos de nuevo para darle forma a la red y vimos desde el principio que se acercaba gente de diversa sensibilidad. Estábamos de acuerdo en una lectura: seguimos sin ningún

tipo de reconocimiento y es lo que tenemos que reivindicar.

Ainara Gorostiaga. El primer punto de inflexión fue la investigación que se hizo en la Comunidad Autónoma Vasca con respecto a las torturas. Navarra se quedaba fuera de todos aquellos datos y ahí vimos la necesidad de ir en la misma dirección. Empezamos a movernos entonces en un contexto de elecciones y cambios, y pedimos a los partidos políticos que incluyeran nuestras peticiones en sus programas electorales. El segundo punto de inflexión fueron los audios de Zabalza. En este segundo vimos que aumentó la receptividad y se habría un nuevo camino de oportunidades.

E.V. Y estábamos de acuerdo en una cosa: si hay que cerrar una etapa no queremos ninguna venganza. Queremos que se sepa lo que sucedió, saber realmente lo que pasó en los calabozos. Poner luz sobre ello y que haya una reparación. No pedimos venganza, no pedimos años de cárcel, sino reconocimiento y reparación y por supuesto que se creen las condiciones necesarias para que no vuelva a repetirse. Queremos que se sepa lo que se hizo y que los que lo hicieron lo reconozcan. Es una base para avanzar en la convivencia de nuestro pueblo.

Los puntos de inflexión que mencionáis, las investigaciones

de la CAV o los audios de Mikel Zabalza. ¿Notasteis que, tras este último caso, el tema de las torturas empezó a llegar a otras sensibilidades?

A.G. Sí. Hicimos rondas con todos los partidos políticos, incluida Navarra Suma, por primera vez. Hasta entonces no nos habían concedido cita. Es verdad que hay sectores que no se han posicionado hasta ahora. Pero es cierto que por primera vez hemos podido hablarles sobre el tema en primera persona. Hay sectores reticentes con el tema, que quieren dar pasos, pero les cuesta darlos, y al final las fuerzas de no darlos son mayores.

E.V. Por ejemplo, es llamativo que en el estreno de “Non dago Mikel?” estaba el entonces vicepresidente del estado español Pablo Iglesias. En este pueblo sabíamos hace tiempo qué es lo que sucedía con las torturas, pero con los audios de Mikel parece que de alguna forma se ha llegado a otros sectores. Vimos una oportunidad de abrir el proceso, y una necesidad: la de plantear un proceso e investigación como la iniciada en la CAV.

A.G. Eso es, pedimos que se haga una investigación de ese calado y con ese recorrido. Cuando decidimos constituirnos como una asociación, por un lado, queríamos que eso nos facilitara el trabajo, porque no es lo mismo que una asociación

se presente como tal, que ir como personas torturadas a nivel individual. Por otro lado, al constituirnos como red damos pie a relacionarnos entre nosotros, escucharnos entre nosotros, cuidarnos entre nosotras. El tema no es fácil.

Uno de los objetivos es el de socializar, otro es el de institucionalizar las propuestas, y otra el de hablar entre vosotros. ¿Habéis creado mecanismos para esto último?

E.V. Claro, todo el trabajo que hacemos y vamos a hacer trae consigo que cada cual tiene que hacer frente a su sufrimiento, a sus fantasmas. Es nuestro trabajo hacer frente al sufrimiento que vaya a generar este proceso, poner mecanismos para trabajarlo de forma positiva. En ese sentido, hemos creado una red de psicólogos para el cuidado de las personas torturadas.

A.G. Al final la red es un instrumento para hacer frente a nuestros objetivos. Una de las apuestas que hacemos es elaborar un censo, y para eso tenemos un formulario con mucho contenido. Estamos trabajando con mucha gente que ha pasado por lo mismo, tenemos un millar de casos, hay que identificarlos, juntarse con ellos, muchos no han hablado del tema en su vida, a otros les cuesta muchísimo hablar porque les remueve por dentro... Lo que queremos es ofrecer a toda

“Estábamos de acuerdo en una lectura: seguimos sin ningún tipo de reconocimiento y es lo que tenemos que reivindicar.”

esta gente un espacio seguro, para que puedan hablar si lo necesitan, porque no siempre se necesita, el crear espacios donde podamos sentirnos cómodos es importante y en ello estamos.

¿Qué es el protocolo de Estambul?

E.V. Es un instrumento de Naciones Unidas, una herramienta que aquella persona que ha sufrido un *shock*, es una prueba psicológica que determina lo anterior. En nuestro caso lo normal es que los casos de denuncia de tortura no lleguen a ningún sitio o se archiven después. Hay pocos casos que han llegado a Estrasburgo, unos cuatro entre mil. La única prueba que tenemos para demostrar que la tortura existe es un instrumento como protocolo de Estambul. ¿Porqué? El estado ha tenido una maquinaria engrasada para torturar a militantes vascos que no ha sido derribada. Y nosotros queremos que esto no vuelva a suceder, por eso, como el estado no va a reconocer por sí mismo la tortura, el único instrumento a nuestro alcance que lo certifique es el protocolo de Estambul.

A.G. El protocolo de Estambul requiere un proceso largo de



investigación, se necesita un grupo de psicólogos, de acompañamiento, tiempo y coste económico. La cuestión es que no podemos ofrecérselo a todo el mundo, no tenemos medios para ello. Si delante de la ley es la única prueba que podemos tener, esta herramienta no podemos ofrecérsela a todas las personas torturadas. Al haber sido una práctica engrasada, perfeccionada, silenciada... ahora es difícil esclarecer lo sucedido ya que no tenemos prácticamente nada para demostrarlo, pero eso no significa que no ha sucedido.

¿Cómo se trabaja con gente que ha tenido vivencias tan diferentes con respecto a la tortura?

A.G. Hay veces que entre nosotras hay una tendencia a crear niveles, a quitarle hierro al asunto, a pensar “bueno, lo mío comparado con otro kide no fue para tanto”... Tiene que quedar claro que la incomunicación en sí mismo es ya tortura, no hay que quitarle hierro a nada, ni hacer diferencias entre casos de tortura, eso que llamamos el torturometro.

E.V. En la sociedad se le ha dado más atención a las torturas donde han quedado marcas físicas. Pero hay torturas que dejan una huella en la persona, que no son visibles, pero que marcan psicológicamente la vida de una persona. Las torturas no eran meros golpes, ni meras amenazas, o gritos sin estrategia ni control: obedecían a una

“Estábamos de acuerdo en una cosa: si hay que cerrar una etapa no queremos ninguna venganza. Queremos que se sepa lo que sucedió, saber realmente lo que pasó en los calabozos.”

“Al constituirnos como red damos pie a relacionarnos entre nosotros, escucharnos entre nosotros, cuidarnos entre nosotras. El tema no es fácil.”

estrategia concreta y se hacían de forma que fueran eficaces el objetivo de doblegar a la persona, de sacar una autoinculpación, de apartarlo de la militancia (o de apartar a otra gente)...

Como percibís la sensibilidad de la sociedad navarra con respecto al tema. ¿Ha habido una evolución los últimos años?

E.V. En los últimos años, viendo el caso de Altsasu, como se movilizó la sociedad navarra. La sociedad navarra no se creyó la versión oficial. Se ve que la sociedad es lo suficientemente adulta para no creerse la versión oficial. A nosotros nos ven también con otros ojos. La sensación de “os creemos” lo tenemos presente. Eso de “algo habrán hecho” se está desvaneciendo. Yo mismo tuve dos juicios, en el segundo llegué a un acuerdo, y recuerdo como una persona que no es de mi entorno me dijo: “para quedar libre has tenido que aceptar su acusación”. Con la tortura la gente sabe lo que ha habido, aunque ha habido una resistencia para creerlo, por una parte, de la sociedad. Después de los audios de Zabalza vimos que se abrió una fisura en esa resistencia.

A.G. Al final, la tortura es

algo que nos ha tocado vivir en muchas familias. Es una realidad muy extendida, si no es tu hermana, es el hermano de tu amiga, la vecina del cuarto o el compañero de trabajo, ves que está muy extendido, y que recorre el espacio de tiempo desde los 60 hasta hoy en día. Otra cosa es cuando sales de tu círculo, entonces sí que se percibe reticencia y no aceptación.

La aceptación de la tortura pone en entredicho el relato del estado democrático. ¿Puede ser el mayor obstáculo en el reconocimiento de lo ocurrido?

E.V. Si. Esto haría caer el relato de que ha habido unos que lo han hecho mal, y que el estado ha actuado democráticamente contra ellos. Si se prueba que la tortura ha sido sistemática, ese relato se cae. De todas formas,



“Una de las apuestas que hacemos es elaborar un censo, y para eso tenemos un formulario con mucho contenido.”

EN DATOS

Cerca de 1.000 casos de torturas desde 1960 a 2014 .

Dos personas asesinadas: Mikel Zabalza (1985) y Antonio Goñi Igoa (1970).

(2018) 1 sentencia del Tribunal de Derechos Humanos de Estrasburgo al Estado español por torturar a Igor Portu y Mattin Sarasola.

(2021) 4 condenas del Tribunal de Derechos Humanos de Estrasburgo al Estado español por no investigar las denuncias de torturas a Oihan Ataun, Jon Patxi Arratibel, Xabier Beortegui y Iñigo Gonzalez Etayo.

Un informe de la CPT (Comité para la prevención de la tortura) en 2011, órgano dependiente del Consejo de Europa, daba credibilidad al testimonio de torturas de 3 personas navarras.

Al menos 80 localidades navarras se han visto afectadas por esta lacra.

INVESTIGACIÓN

Al finalizar esta entrevista el Gobierno de Navarra notificó la licitación al Instituto Vasco de Criminología (IVAC) de la Universidad Pública del País Vasco (UPV), junto a otras tres entidades, en la convocatoria de subvenciones a centros o institutos de investigación y organizaciones que trabajan en el ámbito de los derechos humanos para la realización y difusión de informes acerca de vulneraciones producidas en Navarra. La convocatoria ha sido impulsada por el Departamento de Relaciones Ciudadanas a través de la Dirección General de Paz, Convivencia y Derechos Humanos. La ayuda irá destinada a la elaboración de un informe titulado “Investigación sobre tortura y otros malos tratos en Navarra desde 1979 a la actualidad”.

Hay que recordar que en junio de 2019 este mismo instituto realizó a petición del Gobierno de Navarra otro “proyecto de investigación de la tortura y malos tratos en la Comunidad Foral de Navarra entre 1960-1978”.

nosotros no venimos a una batalla del relato, venimos a decir simplemente: “oye, esto sigue sin reconocerse”. Entonces, hablamos en términos de convivencia, no en términos de venganza. Queremos que se reconozca lo que se hizo.

A.G. Respondiendo a la pregunta, sí, es difícil que el estado acepte que la tortura ha sido sistemática. Eso es aceptar que la policía ha torturado, que los jueces han tomado parte, que los médicos forenses han mirado hacia otro lado a cientos de personas que han pasado delante de ellos con marcas, que cuando llegas a la cárcel de la peor forma nadie ha hecho caso... Aceptar que eso ha sido así, pues claro, es difícil que el estado lo reconozca y es un obstáculo infranqueable.

La derecha últimamente ha intentado caricaturizar

la tortura, quitarle hierro al asunto... Incluso decir, “vale, lo hemos hecho, ¿y qué?”

E.V. Es normal, por ejemplo, todos sabemos cuál es el pasado de Macarena Olona, ha sido la abogada que ha defendido a los torturadores. Esto se ha visto en otros conflictos. En el norte de Irlanda pasaron decenios hasta que el estado pidiese perdón. Entonces, claro que vemos lejano ese escenario. Pero si se dan pasos en esa dirección, por supuesto, estaríamos con los brazos abiertos.

Mirando hacia dentro, hacia Euskal Herria. ¿Habéis sentido calor, apoyo, cercanía de la gente?

E.V. En un principio, personalmente, me sentí bastante solo. Pero era sobre todo porque no sabíamos trabajar como colectivo este

tema. Parecíamos robots. El feminismo ha ayudado a darle vuelta a eso, a pensarlo desde la persona, a trabajarlo desde ahí. El apoyo ha sido incondicional, pero ese cambio ha sido fundamental. Esa sería mi autocrítica, el sentirme en algún momento un número y no una persona que había sufrido la tortura. Pero eso ha cambiado en los últimos años.

A.G. Es verdad lo de sentirse un número más. Pero que ha habido un cambio también es cierto. Ese cambio es fruto del trabajo de los últimos años. El trabajo de Euskal Memoria, por ejemplo, ha sido fundamental. Nosotros cuando empezamos con esta iniciativa dijimos: “vamos a empezar por la elaboración del censo”. Parecía que nuestro trabajo era solo dar una cifra. Nos hemos dado cuenta de que va mucho más allá, es romper con un silencio que en muchos

casos había necesidad de contarlo. Ahora yo misma noto que hay respeto y apoyo hacia las personas torturadas, que se nos ve, y todavía me sorprende.

¿Por qué se trataba de otra forma en el pasado?

A.G. Como en un tiempo era una práctica normalizada y se daban casos continuamente, lo que se hacía era poner una denuncia judicial, y ver hasta dónde llegaba. Normalmente tenía un recorrido corto, se archivaba el caso y ahí se terminaba el camino, no había un seguimiento, una escucha, un lugar donde sentirse arropada.

E.V. Vivíamos en un tiempo donde apenas había tiempo para trabajar eso, el día a día te consumía. Ahora tenemos tiempo y estamos trabajándolo bien. Por eso hemos creado

“El protocolo de Estambul requiere un proceso largo de investigación, se necesita un grupo de psicólogos, de acompañamiento, tiempo y coste económico. La cuestión es que no podemos ofrecérselo a todo el mundo, no tenemos medios para ello.”

“De todas formas, nosotros no venimos a una batalla del relato, venimos a decir simplemente: “oye, esto sigue sin reconocerse”. Entonces, hablamos en términos de convivencia, no en términos de venganza. Queremos que se reconozca lo que se hizo.”

“Como en un tiempo era una práctica normalizada y se daban casos continuamente, lo que se hacía era poner una denuncia judicial, y ver hasta dónde llegaba. Normalmente tenía un recorrido corto, se archivaba el caso y ahí se terminaba el camino.”

un colectivo, una red, para que nadie hable en nuestro nombre, sino que se dé voz a los propios torturados y se trabaje con tiempo sobre un tema tan sensible. Que sea nuestra voz la que se escuche.

¿Qué sectores componen la red de personas torturadas de Nafarroa?

A.G. Como red queremos aglutinar más allá del soberanismo vasco. En ese sentido, estamos recogiendo testimonios de personas torturadas en los años 60-70 de UGT o COOO, y se está trabajando con ellos. Lo que tenemos en común es que hemos sido torturados por motivaciones políticas. Y en este sentido, estamos intentado llegar a sectores donde el punto en común sea esta experiencia vivida.

Para terminar, ¿cuáles son los objetivos a corto y medio plazo?

E.V. A corto plazo, nuestro objetivo es hacer el censo. Pero le damos especial importancia al trabajo del cuidado de las personas que se han acercado hasta nosotros y que han sufrido la tortura. Y para terminar, por supuesto, si hay algún lector de Erria que lee esto y entra dentro de Los parámetros de persona que ha padecido torturas y malos tratos por algún policía o funcionario del Estado, que no dude en contactar con nosotros.

A.G. Nuestro lema principal es “reconocimiento, reparación y garantías de no repetición”. Que no vuelva a suceder lo sucedido a nadie. De ahí en adelante, tenemos movilizaciones sociales, mociones en los pueblos donde han sucedido casos de torturas, hacer presentaciones en los pueblos de nuestra red... y en eso estaremos.



Nuestro lema principal es “reconocimiento, reparación y garantías de no repetición”. Que no vuelva a suceder lo sucedido a nadie.

GAZTEOK EHOTZEN



Ernairen Nazio Biltzarra

Argazkiak: FOKU

Erronkaz beteriko ikasturtea izan da aurtengoa, bete ditugu unibertsitateko kanpusak, zartatu ditugu Gasteizko kaleak, gazte independentistez bete dugu Baztan, gazteontzako bizitza duina aldarrikatu dugu, eraldatu ditugu gure herri eta auzoak... Eta azken hilabeteak barnera begira pasa ditugu: hausnartuz, eztabaidatuz... Ernairen III. Kongresua burura eramaten.



Horrelako egoera ezegonkor batean ezinbestekoa iruditzen zaigu proiektu politiko sendo, sinesgarri eta erreal bat izatea.

Izenez proiektua aldatu ez badugu ere, izanez aberasten ari gara.

Ernaiko kideoi bertan pedagogia independentista egitea dagokigu.

zentzu komuna lehiatu beharko duelakoan gaude. Horrela, gazteriaren artean gehiengo bat lortuko dugu, gure balioen eta burujabetzaren paradigmaren kokatuz, Gazte Boterea eskuratuz aurrera urratsak emango dituen. Eta Ernaiko kideoi bertan pedagogia independentista egitea dagokigu.

hartu eta naziogintza indartzeko apustua egiten dugu: euskalgintzatik, gazte sortzaileetatik, memoriatik, kirolatik... indartu beharreko aldarri eta imajinarioa dela deritzogu. Belaunaldi berrioi dagokigu gure nazioa eta abertzaletasuna berrezugarritu eta aldarri egitea.

Kongresu prozesua urtebete atzeratzea erabaki genuen COVID19a zela medio, eta pasa den abenduan ekin genion produkzio faseari. Orduz geroztik, Bilgune Orokorra, Barne Tailer tematikoak, herri eta auzoetako eztabaidak... izan ditugu hilabete guzti hauetan zehar.

Ernaiko militanteok hartu dugu parte Kongresu prozesu honetan, ehunka gazte egon gara herriz herri eta auzoz auzoz eztabaidak

eman eta gure bideorria norabidetu, findu eta zehazten.

Testuinguruari erreparatu diogu lehendabizi, gure bidea murrizteko non gauden jakitea garrantzitsua dela iruditzen baitzaigu. Arreta bereziz begiratu diogu gazteriaren egoerari, gure inguruari. Egungo gazteriaren egoeraren argazkia labur azaldu beharko bagenu bizi dugun belaunaldi krisia izango litzateke titular nagusia. Gazteok bizitzen dugun prekarizazio eta desjabetze prozesu orokorra alde batetik, eta espektatiba kolektiboen krisia bestetik.

Eta horrelako egoera ezegonkor batean ezinbestekoa iruditzen zaigu proiektu politiko sendo, sinesgarri eta erreal bat izatea. Gure proiektu politikoak izan behar du Euskal Gazteriarentzat helduleku: independentzia, sozialismoa eta feminismoa. Hala ere, gure izatea, gure borrokak, gure egiteko moduak gaur egunera egokitzea ezinbestekotzat jotzen dugu. Horregatik, gure proiektu politikoari eutsi eta izanez berritu dugu. Argi dugu independentzia, sozialismoa eta feminismoak ardatzen duela gure proiektua, baina

beharrezkoa da euskararen aldeko borroka, borroka ekologista eta transmaribibollo borroka gure proiektuaren baitan integratzea. Izenez proiektua aldatu ez badugu ere, izanez aberasten ari gara.

Datorren ziklo politikorako apustu nagusia Gazte Frontea artikulatzea da. Artikulazioa borroka ezberdinen, subjektu ezberdinen... artean lortuko dugula irudikatzen dugu. Eta artikulazio horrek burujabetza eta eraldaketa soziala ipar izango dituelarik, jendartearen

Gazte Frontearen apustuarekin batera, bi erronka nagusi ditugu, eta hauetan sakontzeko konpromisoa hartzen dugu: naziogintza indartu eta hezkuntza estrategia oso bat garatu eta martxan jarri. Izan ere, beste borroka eremu askorekin batera, hurrengo urteetan indartu beharreko ardatzak direla uste dugu.

Testuinguruaren azterketa egiterakoan, eta ezker independentismoak eman dituen azken kongresuetan, behin baino gehiagotan azaleratu den kezka izan da nazio pultsuaren ahultasuna. Horren aurrean iniziatiba

Hezkuntzari dagokionez, jada badira lau urte hezkuntzan ahots propioz jarduteko hautua egin genuenetik eta Ernai unibertsitateetan antolatzen hasi ginela. Hurrengo ziklo politikoan lerro beretik lanean jarraitzea dagokigu, unibertsitateetako proiektu politikoan eta estrategian sakonduz, ikamarekin batera hezkuntzari bere osotasunean begiratu eta elkarlana sustatuz.

Horiez gain, orain artean landutako borroka eremuak jorratzen eta gaurkotzen jarraituko dugu: feminismoa, gaztetxeak eta gazte asanbladak, bizitza duinen aldeko borroka,



euskalgintza, transmaribollo borroka...

Begiratu diogu inguruari, gazteriari eta bidean garatu beharreko estrategiari. Baina baita gure buruei ere, indibidualki batzuetan baina batez ere, kolektiboki. Hausnartu dugu marraztutako gazte estrategia aurrera eraman behar izateko behar dugun militantzia ereduaz, eta baita gure balioez ere.

Ehuleak izan behar gara Ernaiko militanteak. Definizioz ehunak ehotzen dituen langileak dira ehuleak; material ezberdinekin, forma ezberdinetako ehunekin, korapilo mota ezberdinak eginez... oihalak eskuz sortzen dituzten langileak. Historian zehar emakumeek bete izan dute itzalpekoa baina herriarentzat oinarritzkoa den langintza hori.

Guk ere horrela ulertzen dugu militantzia: hamaika borroka eta ideietan murgildu; subjektu, espazio eta aldarri ezberdinak txirikordatu; dimentsio ezberdinak dituzten problematika eta alternatibak elkar lotu eta guztiak bat eginda osatzen dugun borroka gisa. Egindako lan guztiek oihal bera ehunduko dute: Euskal Herri aske, sozialista eta feminista.

Geure buruak eta antolakundea bera ere eraldaketarako subjektu gisa ulertzen ditugu. Horregatik premiazkoa eta ezinbestekoa iruditzen zaigu Kongresu honen baitan Urrats



Feminista abiatzea, Ernai feministatu behar dugulako, Ernaiko militanteak feministak izan behar garelako, eta balio horiekin koherenteak izan bai gure praktika politikoa, bai gure egunerokoa.

Gauzak horrela, badugu gure jarduna norabidetuko duen bideorria. Markatu ditugu hurrengo ziklo politikorako erronkak eta prestatu ditugu gure tresnak. Ekin diezaiogun.



Iniziatiba hartu eta naziogintza indartzeko apustua egiten dugu: euskalgintzatik, gazte sortzaileetatik, memoriatik, kiroletik... indartu beharreko aldarri eta imajinarioa dela deritzogu.

Egindako lan guztiek oihal bera ehunduko dute: Euskal Herri aske, sozialista eta feminista.



“Xuti Gaztek ilusioa berriz pizteko eta borroka batzuen lekukoa hartzeko indarrak biltzeko balio dit”



“Zapalkuntza horien aurka borrokatzeko beharra sentitzen dugu, eta gazte gisa borroka horiei gure ekarpena egin nahi diegu.”

Irantzu Idoate Funosas. Xuti Gazte antolakundeko kidea

Zer da Xuti Gazte?

Euskal Herrian errealitate oso ezberdinak dauden gisan, Ipar Euskal Herri mailan ere, eskualdearen arabera errealitate ezberdinak daude. Bizkaian eta Baxe Nafarroan egoera ezberdina izanen den bezala, Lapurdi eta Zuberoaren arteko ezberdintasunak nabariak dira. Horrez gain, Ipar Euskal Herrian mota anitzetako zapalkuntzak oso presente daude. Emakumeen aurkako erasoen bide beretik, eraso arrazistak biderkatzen dira, gazteen prekarietateak hor dirau, euskaldunon eskubideak ez dira bermatuak... Guzti horrengatik eta gehiagorengatik, zapalkuntza horien aurka borrokatzeko beharra sentitzen dugu, eta gazte gisa borroka

horiei gure ekarpena egin nahi diegu.

Eta zergatik izen hori?

Gazteei zuzendatuko deia da. Denok batera lehen aipaturiko zapalkuntzen aitzinean xutitzeko deia. Mugimendua eta aktibazioa irudikatzen ditu Xuti Gaztek.

Gaur gaurkoz, nortzuk osatzen duzue?

Adin ezberdinetako gazteak biltzen gira, orotara 10 bat urteko tartea dago antolakundean. Momentuz oraindik ere gehienak lapurtarrak gara. Baina Ipar Euskal Herri osora zabaltzea da gure xede nagusietako bat, eta aurkezpenen eta egindako beste desmartxen bidez

lurraldetasunean hedatzeko bidean gaude.

Martxoan egin zenuten aurkezpena Uztaritzen. Zein hausnarketa prozesuren ondorio da Xuti Gazte? Zein hutsunetik abiatuta sortu zenuten antolakundea?

Ikasturte honen hasieran talde bat biltzen hasi ginen, batzuk jadanik militante ziren, besteak ez, eta pixkanaka bide egiten hasi ginen. Egia da, Ipar Euskal Herrian ikasle eta gazte mugimendua badagoela, baina normalean lokala ala tematikoa izan ohi dena. Guk tresna orokor baten beharra somatzen genuen. Sorrerari dagokionez, lana izan da, eta beti izanen dela badakigu. Baina gorabeherak



Maialen Arteaga Gonzalez
Ernaiko militantea

Argazkiak: FOKU

“Egia da, Ipar Euskal Herrian ikasle eta gazte mugimendua badagoela, baina normalean lokala ala tematikoa izan ohi dena. Guk tresna orokor baten beharra somatzen genuen.”



“Gazteei zuzendatuko deia da. Denok batera lehen aipaturiko zapalkuntzen aitzinean xutitzeko deia. Mugimendua eta aktibazioa irudikatzen ditu Xuti Gaztek.”

ELKARRIZKETA

gorabehera eta prozesuak dituen zailtasun guztiak ezaguturik ere, tresna eraginkor bat sortu eta biziartzea beti da polita.

Eta nola joan dira hilabete hauek? Zeintzuk izan dira eman dituzuen lehen pausoak?

Hilabete hauetan ikasketak euskaraz eta Ipar Euskal Herrian egiteko ezintasunaren inguruko kanpaina eraman dugu. Lorpen nabari bat izan da, Ipar Euskal Herrian goi-mailako ikasketekin dagoen egoera larria jakitera ematea, baita hori aldatzeko lehen pausoak ematea ere. Lortu dugu, izenpeduren bidez, gai horren inguruan indar bilketa bat egiten. Eta instituzioei eskatu diegu ikasleen atzerriratzea gelditu zerbait egin dezaten, ikasketetan euskarazko eskaintza zabal bat bermatuz.

Euskararen borroka da zuen lehen lerroak hartu dituen borroketako bat. Zergatik?

Ez da lehentasun kontu bat, naturalki hartutako bidea baizik. Izan ere, ikasturte bukaera euskararen problematika lantzeko momentu egokia zela iruditu zitzaigun. Alde batetik, azterketak euskaraz pasatzeko aldarria urtero presente delako Ipar Euskal Herrian garai horietan, eta era berean goi-mailako ikasketen aldarrikapena plazaratzeko testuinguru ona da. Gainera, azken asteetan Bordaleko inspeizioan egindako okupazioak agerian uzten du azterketak euskaraz egitearen aldeko aldarria borborrean dela Ipar Euskal Herrian, eta horri ere gazte ikuspegitik ekarpena egitea ezinbestekoa iruditzen zitzaigun.

“Ez gatoz ezer ordezkatzera, ez dugu erreferente bat, gure asmoa baita gazteen ahotsa

“Biltzen hasi ginenean, agerian gelditu zitzaigun gutako anitzentzat feminismoa zela kontzientzia politikoa pizteko bideetako bat, jende anitz ukitzen zuena.”

“Modua aurkitu nahi dugu karrikan borrokatzeko prest den jendea eta beste molde batzuetan haien ekarpena egin nahi duten gazteak batzeko, baita engaiamendu maila ezberdinak ongi uztartzeko ere.”

eramateko tresna berria eta autonomoa sortzea” zenioten aurkezpen egunean. Bada erreferenterik gabe borroka bide bat egiterik? Nola?

Menturaz, kide bakoitzak izanen ditu bere erreferente propioak, hala ere, kolektiboki erreferente berriak sortzea garrantzitsua iruditzen zaigu. Ez gara heldu inorren ondorengo izatera, baina kontziente gara gazte borroka betidaniko gauza dela; horregatik, gazte borroka den tresna orokor hau gure garaira eta gure moldeetara egokitu nahi dugu, behar bezala, modu ahalik eta bateratzaileenean aitzina egiteko.

“Borroka gure tresnekin, eta gure garaiko gaiei buruz egin nahi dugu” ere aipatzen zenuten. Zeintzuk dira zuen belaunaldiko gazte baten borroka tresna horiek? Eta zeintzuk gazte belaunaldia zeharkatzen dituen gaiak?

Biltzen hasi ginenean, agerian gelditu zitzaigun gutako anitzentzat feminismoa zela kontzientzia politikoa pizteko bideetako bat, jende anitz ukitzen zuena. Bestalde, ohartu ginen ere, gaur egun sare sozialak ezinbesteko tresna direla gazteengana iristeko. Horrekin ez dugu

erran nahi feminismoaren inguruan soilik ariko girela, eta sare sozialak baizik ez ditugula erabiliko; baina, gure belaunaldiaren adierazle bat da, lehen aipaturiko xutitze horren forma bat. Bestalde, Bidasoa inguruan etorkinekin gertatzen denak, baita egunerokoan pertsona arrazializatuek bizi dutenaz oso kontziente eta haserre da gure belaunaldia, eta etorkizunean landu nahi dugun gaia da hau ere. Etxebizitza bat lortzeko ezintasuna, LGBTIQ+ komunitateak bizi duen bortizkeria eta beste hainbat gairen antzera. Modua aurkitu nahi dugu karrikan borrokatzeko prest den jendea eta beste molde batzuetan haien ekarpena egin nahi duten gazteak batzeko, baita engaiamendu maila ezberdinak ongi uztartzeko ere.

Kideetako bakoitzak taldeari eskaintzen dion bezala, taldeak ere eskaintzen dio kide bakoitzari zerbait. Zer eskaintzen dizu zuri Xuti Gazteren parte izateak?

Talde baten parte sentitzea, eta azken honen babesa sustengua jasotzea beti da goxo eta lagungarri. Bestalde, erranen nuke Xuti Gaztek balio didala ilusioa berriz pizteko, eta indarrak biltzeko borroka batzuen lekukoa hartzeko.



Maskulinitatea afera politiko bezala



Jokin Aspiazu Carballo
Soziologoa eta EHUko irakaslea



Argazkia: Jurie Huggins, Unsplash

Tentuz ibili behar gara solasaldi amaigabeetan galdu bai, baina aldaketa handiegirik ez lortzearekin.

Bagabiltza azken urteotan feminismoaren eta gizonen gaiari bueltaka, eta “buelbaka” diot, maiz gailentzen zaigun sententzioa aurrera eta atzera ibiltzearena delako edo, are okerrago, gai berdinen inguruan biraka, baina leku berberera heltzeko. Eztabaida eta hausnarketa beharrezkoak izan arren, tentuz ibili behar gara solasaldi amaigabeetan galdu bai, baina aldaketa handiegirik ez lortzearekin.

Mugimendu feministaren lanaren ondorioz, hainbat erakunde eta elkarte mistotan feminismoaren printzipioak barneratzeko ahalegina egin dugu azken urteotan. Beste egun baterako utziko nuke ebatzea nor egon den prozesu luze eta neketsu horiek sostengatzen eta nor jantzi dituen gero garaikurrak. Edonola ere, nahiz eta feminismoaren ideiak ez diren berriak, onartuko didazue gizon heterosexual gehienentzat

(eta haiek protagonista dituzten taldeentzat) berri xamarra dela horrekiko interesa. Gainera, ideia berriak inkorporatzen direnean, ez da soilik gizartea edo taldea transformatzen dena, ideia horiek beraiek ere eraldatu egin ohi dira. Feminismoaren kasua ez da salbuespena, eta eztabaida honi eusteko abiapuntu egokia litzateke gizonok (eta, hedapenez, talde mistotan parte hartzen dugun orok) onartzea halako lausotze bat gertatu dela ideia feminista askorekin. Hautaketa prozesu bat, zeinetan ideia batzuek protagonismo asko hartu duten eta beste ugari, historikoki feminismoarentzat garrantzitsuak izan diren arren, atzean gelditu diren, ez duten galbahea pasatu.

Horrela izan da, gizonoi dezente interesatu zaizkigula gure hazkunde pertsonal eta kudeaketa emozionalarekin lotura zuten aspektuak: sentipenak adierazten ikastea, inguruan ditugun txikien zaintzaren alderdi gustagarrienak (hala nola, umeekin jolastu edo haien irakaskuntza prozesuetan

Gutxiago interesatu zaigu gure mugimenduetan dauden lidergoak (eta ez soilik lidergo publikoak) zalantzan jartzea, gure ibilbide profesional – edo militanteak – erdigunetik kendu eta lan ororen banaketa efektiboak egitea.

inplikatzeari) edo teoria feministetan aditu bilakatzea. Aitzitik, gutxiago interesatu zaigu gure mugimenduetan dauden lidergoak (eta ez soilik lidergo publikoak) zalantzan jartzea, gure ibilbide profesional – edo militanteak – erdigunetik kendu eta lan ororen banaketa efektiboak egitea, edota feminismoak ideologikoki eta praktikoki dakartzigun erronka estrategiko sakonei seriotasunez eustea.

Hauk eta beste hainbat adibide aipa nitzake, baina bereziki arduratzen nauena politikaren moralizate prozesua da. Politika hizkuntza-joko hutsalera murriztu dugula iradoki zigun behin Amador Fernandez Savaterrek hitzaldi baten: egiten eta lortzen dugunaren gaintetik, ondo komunikatzea eta eztabaida dialektikoa irabaztea kokatu ditugu. Gure ekintzen ondorioa edo lortzen ditugun aldaketan sakontasuna ez dira jada garrantzitsuak egungo ikuspegi politiko hegemonikoentzat. Eta horren ondorioz, Wendy Brownek bere hainbat idatzitan azaldu duen moduan, politika despolitizatu egiten da. Geratzen zaigun bakarra moralala da.

Hori gertatu zaigu hein handi batean gizonoi feminismoarekin: pentsatu dugu feminismoak zekarrena gure portaeren berrikuspen *hutsa* zela. Eta, noski, eremu pertsonalari erreparatzea, norberaren portaerak zalantzan jarri eta berrikustea garrantzitsua den arren, ezin dugu feminismoa horretara

mugatu, ekologia zaborra ontzi egokira botatzera edo euskalgintza euskaldun osoak izatera mugatu ezin dugun moduan. Edo ez genuke egin beharko, bederen. Feminismoak gure gizartearen banaketa ekonomikoari eragiten dio, botere politikoaren aplikazioari edo esparru kulturalaren konfigurazioari, besteak beste. Baina, guzti hauei bizkarra eman eta *gizon onak* izatera mugatzen baditugu gure ahaleginak, berriz diot, politikoa zena moral bilakatzen zaigu esku artean.

Norberaren portaerak zalantzan jarri eta berrikustea garrantzitsua den arren, ezin dugu feminismoa horretara mugatu.

Moralitateak, noski, bi alde soilik onartzen ditu (onak eta txarrak) eta, paradoxikoki, despolitizazio horrek alde guztiei eragiten die. Gizon onek beraien lana amaitutzat ematen dute, beren indar guztia “txintxoentzako” ez ateratzeko ahaleginean jarriz. Irrist eginez gero, berehala jakin beharko dute estatusa nola berreskuratu, eta, halaber, azkarrak dira besteen irristaldiak seinalatzen: adibiderako, erasotzailea bestea edo urrunekoa denean (bereziki klase eta jatorriz) berehala aterako dugu seinalatzeko atzamarra, egoera konpontzeko prozesuan deus gutxi egin arren. Asko jota, heroi plantak



Argazkia: Sebastiaan Stam, Unsplash

egingo ditugu, eta besteen maskulinitate maltzurren aitzakiaz gure maskulinitate miresgarriak berretsi.

Baina, eta beste aldean? Pentsatzen al dugu zer gertatzen ari den feminismoaren kontra indarrez eta aho biziz altxatzen ari diren gizon horiekin? Merke darabilgu eskuin muturraren aitzakia, eta nahiz eta ez diodan garrantzirik kendu nahi, esango nuke sakonago aztertu behar dugula gaia. Alde batetik, erresistentzia horiek lehenago ere bazeudelako, eta lotura handia dutelako egoera benetan aldatzeari diogun beldurrarekin. Gure ingurukoak mugitzen hasten direnean ondo deritzogu denontzat zerbait lortzeko asmotan badabilta, baina, eta gure posizioa berrikusi behar badugu aldaketa hori posible izan dadin? Orduan ez gaude hain pozik.

Bestalde, erreakzio horiek arestian aipatutako despolitizazioaren ondorio ere badira. Onen eta txarren arteko jolasak asmatzen ditugunean, analisiak sinplifikatzean, askok pentsa dezakete haien kontrako gurutzada batean gaudela. Agian ez gaude asmatzen esplikatzeko gizontasuna, sistema moduan, baztertu beharrekoa dela diogunean, ez gabiltzala inoren

kontrako gurutzadan, denok inplikatzen gaituen eraldaketa sakonean baizik. Hori azaltzen asmatu behar dugu, ez gizon horiek pena ematen digutelako, edo bat egiten dugulako haien “kaltetuak izatearen” sentipenarekin. Ez, hori dena azaltzen ikasi behar dugu bestela ez dugulako aldaketarik sortuko. Eztabaida dialektikoa irabazi dezakegu agian, baina egoerak berdintsu jarraituko du.

Azken finean, badakigu justizia sozialaren arazoa ez datzala pertsonen maltzurkerian, baizik eta sistema osoaren antolaketan bertan. Genero berdintasunarekin antzerako gertatzen da: ez da txintxoentzako eta maltzurren fabula bat, txintxoak eta maltzurak egon badauden arren, sakontasun handiko afera politiko konplexua baizik. Feminismo antikapitalista eta antiarrazistak tresnak ematen dizkigute hori ulertzeko, erabili nahi baditugu bederen.

Gizon onak izatera mugatzen baditugu gure ahaleginak, berriz diot, politikoa zena moral bilakatzen zaigu esku artean.

Pentsatzen al dugu zer gertatzen ari den feminismoaren kontra indarrez eta aho biziz altxatzen ari diren gizon horiekin?

Agian ez gaude asmatzen esplikatzeko gizontasuna, sistema moduan, baztertu beharrekoa dela diogunean, ez gabiltzala inoren kontrako gurutzadan, denok inplikatzen gaituen eraldaketa sakonean baizik.

Internet ... berdea?



Argazkia: Ilya Pavlov, Unsplash

Klima aldaketak errealitate gordin baten aurrean kokatu gaitu: ezin diogu eutsi orain dugun bizimoduari, biofisikoki bideraezina delako, eta gure ondorengo planeta suntsitzen ari garelako. Testuinguru horretan, gure jarduera guztiak aztertu behar ditugu, eta jasangarriak bilakatu. Eta Interneta, jasangarria al da?

Jasangarria izateak esan nahi du gure munduak irauteko ahalmenari eusten diola, hau da, bere balantze ekologikoa zero izan behar duela. Balantze horretan bi atal nagusi daude: (1) Internet osatzen duten ekipoak ekoizteko lehengaiak, eta, (2) erabileran, energiaren kontsumoa. Lehengaien kontsumoan zero balantzea lortzeko oso urrun dago egun Interneta, bere oinarria diren ekipoek eragindako hondakin elektronikoen kuota handia baitute, eta ezaguna da nolako arazoa sortzen duten hondakinek mundu mailan.

Egoera hori zuzentzeko hiru zedarriek adierazten digute bidea: kontsumismoaren amaiera, ekodiseinua, eta hondakinen kudeaketa eraginkorra. Ekodiseinuan aurrerapausoak ematen ari

dira, batez ere energiaren kontsumoari dagokionez, baina ekipoen iraunkortasuna eta erabilitako materialen berrerabilgarritasuna konpontzeke dauden gaiak dira. Egoera are okerragoa da hondakinen kudeaketan, ekipo elektronikoen gehienak ez baitira helden behar diren tokietara, berrerabiliak edo birziklatuak izateko.

Baina lehengaien aferan oreka lortzeko zedarrak garrantzitsuena kontsumismoari amaiera ematea da. Ekonomia eta gizartearen arteko harremana irauli dugu, eta ekonomia gizartearen zerbitzuan izan ordez, gizartea jarri dugu ekonomiaren menpe. Egundak, ekonomiaren helburua ez da gizartearen beharrak asetzea, baizik eta etekinak maximizatzea, eta, horretarako,

gizarteak gero eta gehiago kontsumitu behar du, beharrezkoa izan ala ez izan. Ezinbestekoa da aldaketa kultural sakona gauzatzea urteetan asimilatu ditugun printzipio batzuk eraldatzeko, eta barneratzeko behar duguna baino gehiago ez dugula kontsumitu ezta ekoiztu behar ere. Informatikan bereziki, industriak, bere jarduera azeleratuari eusteko, etengabeko kontsumoa bultzatu du, zaharkitze programatua ohikoa eta onartua bilakatu arte. Aldaketa kultural horrek lehenetsunak birkokatu behar ditu, gure beharrak zeintzuk diren birdefinituz, eta bizikalitatearen kontzeptua kontsumo mailatik askatu: behin gure beharrak asebeteta, gehiago kontsumitzeak ez digu bizikalitatea hobetzen, kontrako baizik.



Olatz Arregi Uriarte, José Mª Rivadeneyra Sicilia, Ana Zelaia Jauregi
EHUko Informatika Fakultateko irakasleak

Lehengaien kontsumoan zero balantzea lortzetik oso urrun dago egun Interneta, bere oinarria diren ekipoek eragindako hondakin elektronikoaren kuota handia baitute.

Ekipoen iraunkortasuna eta erabilitako materialen berrerabilgarritasuna konpontzeke dauden gaiak dira.

Ezinbestekoa da aldaketa kultural sakona gauzatzea urteetan asimilatu ditugun printzipio batzuk eraldatzeko, eta barneratzeko behar duguna baino gehiago ez dugula kontsumitu ezta ekoiztu behar ere.


ERABILERA: ENERGIAREN KONTSUMOA MINIMIZATU

Hiru alde bereizi ditzakegu Interneten: erabiltzaileen ekipoak batetik, horien beharrak asetzeko eta zerbitzuak emateko dauden ekipoak (zerbitzariak) bestetik, eta bi aldeak komunikatzeko beharrezkoa den sarea.

Erabiltzaileen ekipoen kasuan, bere erabileran energiaren kontsumoa minimizatzeko eman daitezkeen gomendioak beste ekipo elektronikoaren kasuan ematen diren berberak dira. Hau da, funtsean, behar ez duzunean, itzali edo eseki, eta, epe luzerako denean, deskonektatu. Zerbitzarien eta sarearen energia-kontsumoa aztertzen hasi aurretik, horien izugarritzko erabilera aztertzea ere komeni da, eta horretarako, ezinbestekoa da Adimen Artifiziala eta datu-zentroak aipatzea.

Adimen Artifiziala (AA) denon ahotan dagoen hitza da, eta, esan daiteke termino horrek makinek giza adimena imitatzeko duten gaitasuna adierazten duela, hau da, arrazoitzeko eta ondorioak ateratzeko gaitasuna. Bizitzako arlo askotan erabiltzen da gaur egun AA, esaterako, hizkuntzaren tratamenduan, robotikan edota ikusmen artifizialean, eta esan beharra dago, gero eta emaitza hobek lortzen ari direla. Baina, zer behar du oinarrian AA erabiltzen duen teknologia emaitza onak emango baditu? Eta zein kostu energetiko dauka horrek?

AAk neurona-sare artifizialak erabiltzen ditu, hau da, giza garuneko neuronak imitatzen dituzten kalkulu matematikoak. Kalkulu horiek behin eta berriz errepikatu behar dira (ikasketa prozesua) emaitza onargarria izan arte, hau da, imitatu nahi



Argazkia: Umberto, Unsplash

Fitxategi erantsirik ez duten 65 mezu elektroniko bidaltzea kotxean kilometro bat gidatzearen baliokidea da.

denaren eredu egokia sortu arte, izan eguraldia modu fidagarrian iragartzeko, izan itzulpen automatiko zuzena egiteko. Datu-multzo erraldoien gainean egiten dira kalkuluak, eta ondorioz, konputagailu ahaltsuak (zerbitzariak), informazioa gordetzeko espazioa (biltegitratze-sistemak) eta ekipoen komunikaziorako sarea ezinbestean behar dira.

Gaur egun, hiru osagai nagusi horiek datu-zentro deitzen diren guneetan biltzen dira. Gune horietan, eguneroko informazio-zerbitzu ugarien atzean dauden datuak prozesatzen, gordetzen eta bidaltzen dira, hala nola, bideo-transmisioa (Netflix, Youtube...), posta elektronikoa (Gmail...), sare sozialak (Twitter, Instagram...), edo informatika zientifikoa (fisika, kimika, ingurumena... alorretako ereduak eta aplikazioak). Kontuan izan, zerbait hodeian dagoela esaten digutenean, horietako datu-zentro batean dagoela, eta "hodeiaren" erabilera masiboak energia-kontsumo latza dakar. Esaterako, fitxategi erantsirik ez duten 65 mezu elektroniko bidaltzea kotxean kilometro bat gidatzearen baliokidea da, eta hogeita hamar minutuko bideo-emanaldiak 28 eta 57 gramo arteko CO2 isurtzen du.

Datu-zentro horiek erabiltzen duten elektrizitatea bero bihurtzen da, eta bero hori gunetik ateratzeko, elektrizitatearekin funtzionatzen duten hozte-sistemak erabiltzen dira; kontsumoa izugarria da. Esaterako, mundu osoko datu-zentroek 416 TWh inguru erabili zituzten 2019an, hau da, gutxi gorabehera munduko elektrizitate-hornikuntzaren % 3a, Erresuma Batu osoko kontsumoa baino ia % 40 gehiago.

Kontuan izan behar da, datu-zentro horietan erabiltzen diren konputagailuak bereziak direla. Prozesadore asko behar da elkarlanean, paraleloan, aplikazioetan emaitza txukunak denbora gutxian lortzeko. Gehienetan, horrelako lanetarako, CPU arruntez gain, GPUak (Graphics Processing Unit) erabiltzen dira. GPUek paraleloan lan egiteko gaitasuna duten prozesadore simple asko dituzte, 10.000tik gora kasu askotan, eta datu-zentroetan, aldi berean, milaka GPU egon daiteke lanean. Horrek esan nahi du, milioika transistore aritu daitezkeela lanean paraleloan, horrek dakarren energia kontsumoarekin.

Datu-zentroetan energia gehien hozte-sistemek kontsumitzen dutenez, klima hotzeko lekuetan kokatu ohi dira.

ERRONKAK

Datu-zentroetan energia gehien hozte-sistemek kontsumitzen dutenez, klima hotzeko lekuetan kokatu ohi dira. Europako gehienak iparraldeko herrialdeetan daude, Erresuma Batuan, Alemanian, Frantzian eta Herbehereetan. Kontsumo hori murrizteko iniziatibak existitzen dira. Stockholm-eko "Stockholm Data Parks"-en, adibidez, beroa berreskuratu eta hiriko berokuntza-sarean elikatzen da, energia aurreztuz tokiko komunitatearekin elkarlanean.

Azken urteotan, datu-zentroetako teknologiaren eraginkortasun energetikoa hobetzen ari da eta hainbat ikerlariren ustez, grafenoak silizioa ordezkatuko du etorkizunean, sortutako beroa nabarmen murriztuz. Internet-transmisioari dagokionez, teknologia fotonikoari esker, energia gutxiago kontsumituz transmisio-abiadura handiagoa lortzen da, zuntz optikozko kableen bidez.

Hainbat ikerlariren ustez, grafenoak silizioa ordezkatuko du etorkizunean, sortutako beroa nabarmen murriztuz.

Egia da Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) erabilerak gora egiten segitzen duela, horrek dakarren energia kontsumo itzelarekin. Hala ere, azterketa enpiriko gehien araberako, IKTak erabiltzeak beste arlo batzuetan energia murrizketa dakar, eta ondorioz, haren garapena begi onez ikusten da.

Bestalde, algoritmoen, softwarearen eta web-zerbitzuen diseinuan hobekuntzak egitea garrantzitsua izango da. Adimen Artifizialaren kasuan, ereduaren entrenamendurako metodo eraginkorragoak asmatu beharko dira. Edo, Interneteko trafikoan eragin handia duten streaming plataformetan, adibidez, bideo-kodeketan egindako hobekuntzekin edo beharrezkoa ez den kasuetan bideoa ezabatu eta audioa besterik ez uzteko aukera emanez, energia kontsumoa izugarri murriztu daitekeela ikusi da. Diseinu-aldaketa horiek kontzientzia eta industria teknologikoa aldatzeko borondatea eskatzen dute.

Azken batean, energia-kontsumoak eragindako ingurumen-inpaktua nabarmen murrizteko modu bakarra dago: energia berriztagarria erabiltzea. Energia-enpresen



Argazkia: Andy Holmes, Unsplash

gaineko presioa handitu behar da, energia berriztagarrien teknologietan inberti dezaten. Datu-zentroen zerbitzu-hornitzaile nagusietako askok konpromisoa hartu dute ingurumen-inpaktua murrizteko. Baina, konpromiso horiek askotan konpentsazio hutsean geratzen dira; karbono-iturriko energia kontsumoa estaltzeko energia berriztagarriaren kantitate baliokidea erostean. Europako Batzardeak ingurumen-

legeria onartu beharko luke, Europar Batasuneko hiritarrek jasotako Internet zerbitzuak iturri berriztagarrietatik soilik elikatzen direla bermatzeko.

Ez dezagun ahaztu; helburua zero karbono-aztarna lortzea da.

Europako Batzardeak ingurumen-legeria onartu beharko luke, Europar Batasuneko hiritarrek jasotako Internet zerbitzuak iturri berriztagarrietatik soilik elikatzen direla bermatzeko.

Amaiuraldia: iraganetik etorkizunera

500 urte pasa dira Nafarroaren independentzia berreskuratzeko azkeneko saiakera hartatik. Geroztik, Espainiako Erreinura kateatuta gaude. Bortz mende pasa ondoren, katea ez da hautsi, eta Amaiurko zelaietan gure askatasunaren alde borrokatu zutenen seme-alabak gara Amaiuraldira joan garenak.



Amagoia Susperregi Bergara
Nafarroa Berriz Altxako kidea

Argazkiak: FOKU



Baina ez gara gure historia gogoratzea mugatuko, etorkizuneko historia idatzi nahi dugu. Horretarako jaio zen Nafarroa Berriz Altxa, Nafarroan indar harremanak aldatuz burujabetza prozesu baten alde gehiengo bat lortzeko xedez. Badakigu ez dela erronka erraza, baina dauden aukerak baliatu eta baldintza berriak sortu behar ditugu. Aurrekoak Nafarroan burujabetzaren aldeko agenda propio bat garatzea eskatzen du, agenda nazionala ahantzi gabe, baina dinamika propioei indarra emanez.

Hainbat arrazoi daude egungo testuinguruan aldaketarako aukerak daudela erratera eramaten gaituztenak. Lehenengoa: “Navarrismo” bezala ezagutzen dugun fenomeno fatxa, atzerakoi eta antieuskaldun horretatik haratago edo horren aintzinean, Nafarra izateko eta sentitzeko bertze modu bat indartzen ari da: euskalduna, feminista, ekologista, memoria historikoa duena, eta orohar, aurrerakoia eta ezkertiarra dena. Bigarrena: Nafartasun mota horrek ahaldundu, indartu eta

“Navarrismoa”rekin lehian sartzea lortu du.

Aurreko lehia horrek nafar identitatearen inguruko kontakizuna aldatu eta mamua urduri jarri du, hain zuzen, urteetan hegemonikoa izan den errelato eta argudioak eztabaidan eta zalantzan jarri dituelako. Hori da, hain zuzen, bilatzen duguna: “Navarrismoa” ahuldu gure proiektu politikoa indartzeko.

Memoria historikoak garrantzia duen gure Nafarroa

Nafarroan burujabetzaren aldeko agenda propio bat garatzea eskatzen du, agenda nazionala ahanzi gabe.

honetan, testuinguru berezi batean jaio zen Nafarroa Berriz Altxa. Duela 500 urte Nafarroan zehar Gaztelaren kontra izan ziren herri altxamendu eta ondotik Noaingo eta Amaiurko batailen 500. urteurrenarekin Nafarroan ematen ari den ziklo historikoa baliatu, eta hari hori hartuta, duela 500 urte galdutako burujabetza berreskuratu behar dugula aldarrikatzeko atera ginen kalera.

Nafarroa Berriz Altxa – Soberanía es libertad izena jarri genion herri mugimendu berri honi, eta Nafarren izaera errebeldea balorean jarriz, 1512. urtean konkistatu gintuzten arren, ez gaituztela menperatu erran genuen. Horregatik 500 urte hauetan Nafarroan gure eskubideen alde eta jasandako eraso eta injustizien kontra hainbat alditan altxatu gara adierazi genuen, horretarako hainbat adibide jarri: Karlistadak, Gamazada, trantsizio garaiko langileen borrokak, abortuaren aldeko mugimendua, NATOren kontrakoa, intsumisioaren aldekoa, euskararen aldeko mugimendua, Itoitzen aldekoa,

Sanferminetako bortxaketaren kontrako erantzuna, Altsasuko gazteen aldeko mugimendua... eta abar luze bat.

Hari historiko hortatik tiraka, gaur burujabetza aldarrikatzen dugu. Zertarako? Gure egunerokotasunean eragiten digun horren inguruan libreki erabaki ahal izateko, inongo eskuhartzerik gabe: hezkuntza, osasuna, lan-harremanak, euskara, pentsioak, fiskalitatea, etxebizitza, berdintasuna, gure estatus juridikoa eta baita gainontzeko euskal lurraldeekin mantendu nahi ditugun harremanen inguruan ere. Burujabetza behar dugu herri bezala XXI. mendeko erronkei aurre egiteko. Burujabetza gure bizi baldintzak hobetzeko ezinbertzeko tresna izateaz gain, euskal errepublika bat eraikitze bide bakarra delako.

Ez gaitezen engainatu, Espainiako estatuarekin dugun harremana ez da amodiozko historia bat, batzuek saldu nahi diguten eran, 1512. urtetik datorren inposizio eta menpekotasun harreman bat baizik. Eta Espainiako gobernuak gure Parlamentuak onartutako

hainbat legeren kontra behin eta berriz jarritako helegiteak adibide bat bertzerik ez dira. Lege horiek gure bizi baldintzak hobetzeko hainbat neurri arautzen zituzten: etxegabeteak sahisteko neurriak, osasun asistentzia unibertsalizatzeko neurriak, Eliza katolikoak zergak ordaintzeko neurriak, eta beste hainbat neurri. Gure aldarrikapena, hortaz, gaurkotasan haundia izateaz gain, jendearen eguneroko auziei erantzuteko aldarrikapen zuzena dela uste dugu.

Madril, Paris eta Bruselan gure ordez hartzen dituzten erabakiek garbi erakusten dute ez dutela krisi ezberdinei aurre egiteko balio, ez behintzat herritar gehiengoaren interesak eta beharrak asetzeko. Hori ikusi eta sufritu dugu hartu dituzten hainbat neurriekin: lan-erreformarekin, murrizketekin, aurrekontuen gastu sabaiarekin, zorraren kudeaketarekin, krisi energetikoa eta aldaketa klimatikoari erantzuteko neurriekin etab. Zaintza sistema eta gure bizi baldintzak erdigunean jartzearen alde bagaude, burujabetzaren aldeko aldarria gizarte zibilak eta



Nafarroan Elizak pribilegio ugari izan ditu, erregimenari estuki lotuta egon baita beti: OPUSen eragina politikan zein esparru sozialean, herriaren ondasunen inamtrikulazioen eskandalua, eta abar.

eragile sozial eta politikoak berea egitea beharrezkoa da gure ustez. Alegia, hemen gauzak bertze modu batera egiteko aukerak daude, baina horretarako gure erabaki propioak hartu ahal izateko tresnak behar ditugu.

Hitz gutxitan: gure burua gobernatzea ezinbertzekoa da. Eta hori da bilatzen duguna gure ekimenekin, gizartea burujabetzaren alde aktibatu eta mobilizatzea. Beraz, ez da

nortasun kontu bat bakarrik, behar bat da.

Subiranistak gara, eta Espainiako Estatuak Euskal Herria, Katalunia eta Galiziarekin duen gatazka politikoa modu demokratikoan konpondu behar duela uste dugu. Herriari hitza eman eta bere borondatea errespetatzea, burujabetza izanik arazoaren konponbidea.

Baina ez da euskaldunen

kontua bakarrik. Otzana den eta huts egin digun Europa honetan, gero eta gehiago gara gure burua gobernatu nahi dugun herriak: Euskal Herria, Irlanda, Gales, Korsika, Katalunia, eta estatuturik gabeko gainontzeko herriek, gure nahiak lotu eta gure herrien biziraupena bermatu eta mundu mailako erronkei aurre egiten utziko digun olatu subiranista bat altxatu behar dugu.

Amaiurraldiarekin iragana eta etorkizuna lotu nahi izan ditugu.

“Navarrismo” bezala ezagutzen dugun fenomeno fatxa, atzerakoi eta antieuskaldun horretatik haratago edo horren aintzinean, Nafarra izateko eta sentitzeko bertze modu bat indartzen ari da.

Hari historiko hortatik tiraka, gaur burujabetza aldarrikatzen dugu. Zertarako? Gure egunerokotasunean eragiten digun horren inguruan libreki erabaki ahal izateko.



Espainiako gobernuak gure Parlamentuak onartutako hainbat legeren kontra behin eta berriz jarritako helegiteak adibide bat bertzerik ez dira.

Madril, Paris eta Bruselan gure ordeztzen dituzten erabakiek garbi erakusten dute ez dutela krisi ezberdinei aurre egiteko balio.

Espainiako Estatuak Euskal Herria, Katalunia eta Galiziarekin duen gatazka politikoa modu demokratikoan konpondu behar du.



Etxebizitza eskubidearen aldeko eta kaleratzeen aurkako mobilizazioa Lizarran 2014an. Nafarroaren burujabetza faltaren ondorioz, Espainiako Auzitegi Konstituzionalak eskubide sozialak defendatzen dituzten nafar legeen aurkako errekurtsioak jarri ditu urteetan zehar. Nafarroan osasun asistentzia unibertsalizatzeko neurriak eta kopago farmazeutikoaren inguruko errekurtsioak dira horren adibide.

Iragana, zer garen eta nondik gatozen ulertzeko, eta gaurko burujabetza, gure herriaren etorkizuna eraikitzekeo tresna dela aldarrikatzeko.

Eta hemendik aintzineraz zer? Nafarroan burujabetzaren aldeko aldarria indartzen joateko hasitako bidearekin jarraitu behar da, orain arte egindakoa balioan jarritz, zertan asmatu eta zertan hanka sartu dugun aztertuz, eta datozen hilabete eta urteetarako bide orri bat marraztuz. Azken finean, Nafarroa Berriz Altxa tresna bat

da, eta helburua lortzeko tresna gisa egokitzen, moldatzen eta hobetzen joan beharko du.

Ezin bukatu Amaiuraldiaren antolaketak suposatu duen esperientzia aipatu gabe. Baztango eta bereziki Amaiurko herritarrekin auzolanean aritzea hagitz aberasgarria izan da. Sentitu, elkartu, antolatu, pentsatu eta egin, hori da egin duguna, euskaldunentzat inongo sekretua ez dena errezeta herrikoia.

Jarraitu dezagun ba gure nortasuna kaleratzen, indartzen

eta Nafarroan burujabetza prozesu baten aldeko baldintzak eta aukera berriak sortzen. Eta hasitako ideiarekin bukatuz: gure arbasoei egin diezaiekegun omenaldirik onena da altxatu, eta errepublika aske eta burujabe batera eramanez gaituen burujabetza prozesu propio eta herritar bat eraikitzea, non dena erabaki ahal izanen dugun.



Euskal unibertso berria amestuz



Euskaldunako emakumeak protestan itxieraren aurka. Argazkia: Nosotras, mujeres de Euskalduna dokumentala

Behingoz intuizioari gorputza eman, eta Bizkaia Hari Gorria dinamika aurkeztu dugu, hasierako kezka horretatik tiraka, hainbat mahaingururi bide emanez. Solasaldi horietatik entzundakoak eta nik ekarritakoak uztartuz, ideia batzuk partekatu nahi nituzke zuekin lerrootan.



Edurne Benito del Valle
Soziologoa

Bada azken boladan indarrez suspertu den kezka bat: nazio pultsuarena. Asko dira honen inguruan egin diren gogoeta, eztabaida saio edota irakurketak, gaia lehentasun bihurtu delarik. Hain zuzen, XXI. mendeko nazio askapenaren abagunean, euskal identitate indarberritu baten beharrez sentitu baita; funtsean, Euskal Herriko borroka ezberdinak ardaztuko dituen subjektu abertzale eta garaikide baten premia. Hala, ez dira gutxi izan bide ezberdinetatik auzia mahaigaineratu dutenak, eremu akademikoetatik hasita, ekinbide politikoetaraino.

Askotariko begiradek gaia aberasten dute, hamaika ikuspuntu ezberdin aurkitu ditzakegularik - nahiz eta, noski, inork irtenbide magikorik izan ez. Iritzi-saltsa horren aurrean, bada, Bizkaiko errealitatetik erreparatzeko intuizio partekatua gero eta biziagoa izan da azken urteetan. Behingoz intuizioari gorputza eman, eta Bizkaia Hari Gorria dinamika aurkeztu dugu, hasierako kezka horretatik tiraka, hainbat mahaingururi bide emanez. Solasaldi horietatik entzundakoak eta nik ekarritakoak uztartuz, ideia

batzuk partekatu nahi nituzke zuekin lerrootan.

Hasteko, metaforikoki nazioa unibertso bat bezala ulertzen dugula azpimarra nahi dugu. Alegia, nazioa ez izate itxi bat bezala, ezpada mugimenduan dagoen prozesu ireki eta dinamiko baten gisan baizik, osagai eta ezaugarri ezberdinak barnebiltzen dituen. Naziogintza terminoak horri erantzuten dio, egunero egiten eta desegiten den prozesua nola, nazioa eta gintza elkartzuz. Hala, nazio narratibetan hariak berebiziko garrantzia dauka: iragana orainaren lotzen duen

continuum-a baita nolabait nazioa, borondate artikulatu historiko bat eta borondate hori egikaritzen duen narratiba bat, orainari eta etorkizunari erantzuten diona, baina iraganean akuilu bilatzen duena ere.

Bizkaian azken horrek berariazko ezaugarriak ditu. Eta agian, aitortza batekin hastea litzateke errealistena, izan ere, Bizkaia ez du soilik hari gorri batek zeharkatzen. Bestela esanda, kolore askotako hari ezberdinen saretzearen lekuko izan da muga-lurralde hau; muga fisiko eta sinbolikoa, askotariko identitate, fluxu eta aldarriren elkarbizitzak eta gatazkak egon baitira, horietako batzuk oinarri eraldatzaile batetik sortutakoak (tartean, industriarekin lotutako

errebolta guztiak) eta beste batzuk ez hainbeste (tradizioari lotutakoak, ez tradizioa berez atzerakoi izateagatik, Bizkaian izan duen pultsio eraldatzaile baxuagatik, baizik). Herraldean bizitako guztiak sortzen du Bizkaitar “gu”tasun bat, propioa, esperientzia orok bere eran eragina baitu Bizkaitik eraiki nahi dugun subjektu askatzaile horretan. Denak uzten duenez arrastoa, abiapuntua Bizkaiko aniztasuna onartzea da, eta hortik egitea aurrera.

Aniztasun horren baitan, euskaldun gisa jardutea urte luzez errebeldia ariketa bat izan da, bereziki, Bizkaia aski ezaugarritzen duen metropoli-aldean eta haren mendebaldeko lurralde periferikoetan. Sarriren esanetan oinarrituz, normaltasunaren kontra

Hain zuzen, XXI. mendeko nazio askapenaren abagunean, euskal identitate indarberritu baten beharrez sentitu baita; funtsean, Euskal Herriko borroka ezberdinak ardaztuko dituen subjektu abertzale eta garaikide baten premia.

joateko modua izan da, hots, inposatutako molde horien kontra egiteko bidea. Hala, gatazka biziki azaleratu baten testuinguruan, lubakian mantentzeko markoa eskaini du naziogintzak, borroka bati edo besteari eutsiz, gizartearen askapenaren alde egiteko esparru praktikoa.

Beraz, hariaren baitan, atzo gaur bezala, euskal naziogintzaren ezaugarri nagusiak, besteak beste, feminismoa, ekologismoa, euskal kultura eta langile borroka izan dira, klase borrokaren aurpegi desberdinak. Baina, balioak berdinak izanik ere, ez dirudi komunikatzeko gaitasun bera dugunik, izan neoliberalismoaren azelerazio bortitzagatik, izan egoera egoki irakurtzeko zailtasunak izan ditugulako. Beraz, hemendik aurrera, zer komunikatu baino, nola komunikatu jakitea izan daiteke gakoetako bat. Geuri buruari galdetu beharko genioke ea jendearengana heltzeko gaitasuna dugun, inguruko aniztasuna kontuan



Bizkaian langileen borrokaldia irudikatzen duen obra. Egilea: Vicente Cutanda y Toroya, 1892.

Bizkaia ez du soilik hari gorri batek zeharkatzen. Bestela esanda, kolore askotako hari ezberdinen saretzearen lekuko izan da muga-lurralde hau; muga fisiko eta sinbolikoa, askotariko identitate, fluxu eta aldarriren elkarbizitzak eta gatazkak egon baitira, horietako batzuk oinarri eraldatzaile batetik sortutakoak (tartean, industriarekin lotutako errebolta guztiak) eta beste batzuk ez hainbeste (tradizioari lotutakoak, ez tradizioa berez atzerakoi izateagatik, Bizkaian izan duen pultsio eraldatzaile baxuagatik, baizik).

hartzen dugun edota zein izan daitezkeen pultsio nazionala pizteko palanka-aldarri lekutuak. Hau da, naziogintza Bizkaian nola itzuli daitekeen hausnartzea dagokigu berriz ere, “gu” berri bat eraikiz.

Aipamen honek, ordea, ez ditu bi oinarritzko egitate ukatu behar, hasiera batean kontraesankorrak diruditen arren:

Alde batetik, arestian babestutako mugimendu anitz eta aglutinatzaile baten apustuak ez baitu bigarren plano

batean kokatzen identitate sendo baten beharra. Esan nahi baita, apustu kuantitatiboen izenean ez direla balio eta erritoak bidean galdu behar; akaso, berreraiki beharko dira, baina egun ere, ziurgabetasun garaiotan zinez garrantzitsua izan daiteke jendeari babes-leku egonkor bat eskaintzea. Hau da, jendearekin komunean egoteko espazio bateratu bat, dakigun bezala, soilik kolektiboan bilakatzen baikara nor.

Beraz, azaldutako bi mutur horien arteko tentsio orekatuan egon beharko gara etengabe

jolasean, askotariko sektoreen arteko elementu amankomunak zoru partekatuak beharko baititu: hain zuzen, nortasun bat eskainiko diona kideari, kultura oso eta ezberdin baten parte bilakatu duena. Horrela, aniztasun horretatik eratorritako ezin borroka sozial, gurean identitate nazionalarekin bat egin behar du. Eta esan bezala, Bizkaian badugu esperimintatzeko aukera nahikoa; lurralde honen baitan gurutzatzen diren hamaika ezberdintasunak eta haiekiko ditugun hartu-emanak ondo



Josu Exposito, Eskorbuto taldeko abeslari eta gitarra jole mitikoa, 80ko hamarkadako punkaren ikonoetakoak. Argazkia: CC BY SA 4.0



Argazkia: Martin P. Szymczak, CC BY-NC-ND 2.0

ulertu, eta eraldaketaren aldeko marko erakargarri bat eraiki behar dugu.

Bestetik, ordea, kultura edota marko alternatibo baten eraikuntzak ez du esan nahi egituretan eragin behar ez dugunik, identitateen inguruan ari bagara, hautua ez baita dena. Hau da, kolektibo baten parte aukera pertsonal baten ondorioz bilakatu gaitezke, identitate horrek gure beharrianak asetzeko gaitasuna badu, adibidez. Baina badaude era berean, egunerokotasunean jarduten duten dispositibo

indartsuak, sinbolikoki eta materialki gudan eragin handia dutenak eta beraz, gure identitatea ere baldintzatzen dutenak. Gizartean dauden boteregune formal eta informalak kontuan hartu behar ditugu, biak ala biak izango dira beharrezko borroka esparruak fase politiko honetan. Bizkaian badaude herri-kulturaren parte diren ikur garrantzitsuak – kirola, kultur ekimenak, etab.-, gizartean zentralitate handia dutenak. Agian, gaur gaurkoz, kontraesanak sortuko zaizkigu eta deseroso izango dira, baina,

eredu berriak sortzearekin batera, sinbolo tradizionalen berdefinizioa bultzatu behar dugu, Bizkaitik euskalduntasun berri baten sorrera bultzatuz.

Bizkaian badugu esperimentatzeko aukera nahikoa; lurralde honen baitan gurutzatzen diren hamaika ezberdintasunak eta haiekiko ditugun hartu-emanak ondo ulertu, eta eraldaketaren aldeko marko erakargarri bat eraiki behar dugu.

Bizkaian badaude herri-kulturaren parte diren ikur garrantzitsuak – kirola, kultur ekimenak, etab.-, gizartean zentralitate handia dutenak. Agian, gaur gaurkoz, kontraesanak sortuko zaizkigu eta deseroso izango dira, baina, eredu berriak sortzearekin batera, sinbolo berrien berdefinizioa bultzatu beharko dugu, Bizkaitarsun berri bat sortuz.

Burujabetza feministatik, herria



Euskal Herriko Bilgune Feministako kideak

Argazkiak: FOKU

Jakin badakigu hau ibilbide baten jarraipena dela, praktika feministatik sortu den ibilbidea, komunitate politikoak harilkatu asmoz, gure jarduna egokitu eta elkarrekin boteretzearen bitartez eraiki duguna. Ibilian ikasi dugu gure errealitatea hainbat zapalkuntzen elkargunetik irakurtzen; ulertu dugu euskaldunak, langileak, bollerak, transak, migratuak, gazteak, adindunak garela herri txiki honetako emakumeak; anitzak, bere osotasunean.

Guretzat interzekzionalitatez hitz egitea, elkargurutzaz hitz egitea da. Feminismo ezberdinetatik edan eta ikasi dugu norberaren kokapenaren garrantzia, izan ere, kokatzea funtsezkoa da posizio hegemonikoetatik askatzeko.



Elkargunean boteretu gara herri honetako emakume* feministak. Euskal Feminismoan aspaldi konturatu ginen elkargune horiek ez zirela helburu bat, hau da, aniztasuna abiapuntua baino ez dela. Identitatea elkar-ekintzan eraikitzen den prozesu konplexua, historikoa eta multidimentsionala dela ulertzen dugu.

Gure sorreratik klasea, genero eta nazio zapalkuntzak elkarlotzen dituen bizipenak mahaigaineratu eta zapalkuntza egoera hauek borrokatu ditugu. Hasieratik ondotxo

genekien generoak ez zituela gure menderakuntzaren ertz guztiak barnebiltzen: horretxegatik, zapalkuntza hirukoitza izan dugu oinarri. Nazioak eta jatorriak nortasun politikoa eraikitzen dute eta kultur identitateak hartzen duen dimentsio politikoa nabarmentzen dute. Identitate horiek dimentsio materiala dute, gure errealitatea aldatzen dute, moldatzen, baldintzatzen dituzte era dialektiko batean. Euskal Herriko emakume langileak ere bagara, eta gure errealitateak kapitalaren oinarri sexuatu eta generoaren dimentsio sozioekonomikoa

bistaratu dizkigu, emakume eta gizonen arteko bereizkeria kapitala hedatzen jarraitzeko estrategia politiko-ekonomiko baten baitan kokatuz. Aldi berean, Kapitalismoa izendatzen dugunean, dominazio sistema patriarkalarekin eta kolonialistarekin duen artikulazioan ulertzen dugu. Jakinik, patriarkatua zisheteronormatibitatearen birprodukzioan oinarritzen dela ere. Paradigma hori oinarri, continuum bat izan da Bilgune Feministako kideontzat gure errealitatea ulertzeko kontzeptuen erabilera. Horrela izendatu gabe, planteamendu

intersekzional bat egiten ari ginen aspaldi.

Guretzat interzekzionalitatez hitz egitea, elkargurutzaz hitz egitea da. Feminismo ezberdinetatik edan eta ikasi dugu norberaren kokapenaren garrantzia, izan ere, kokatzea funtsezkoa da posizio hegemonikoetatik askatzeko. Intersekzionalitateak erakusten digu pertsonok kokaleku bat dugula eta kokaleku horrek gure bizitzako aukerak eta gaitasunak baldintzatzen ditu. Azken batean, zapalduak eta zapaltzaile izan gaitezkeela onartzeak marko zurrun eta dikotomikoak pitzatzera garamatza. Baina askotan identitateen borroka batera eraman izan gaitu, zapalkuntzen mailakatzeko batera eta horrek intersekzionalitatea modu oker batean ulertzera. Bilgunetik argi dugu: bakoitzak bere esperientziatik hitz egin eta borrokatu behar du, gero guzti hori elkartu eta borroka komunak eraikitzeko.

Hain zuzen ere, bizitzak sostengatzeko ardurak kolektibizatze eta botere harremanak errotik aldatzeko jarraitu behar dugu borrokan. Elkargurutzaz horietan sortuko bait dugu herri honen eraldaketarako izango den palanka. Mugimendu Feminsitaren ikaspenetatik eta borroketatik lortu dezakegu burujabetza feministaren palanka. Finean, jendarte eraldatzeko behar horrek burujabetzaren beharra dakar. Guk argi daukagu burujabetza ez dela bulegoetan adosten, estatuetatik baino eguneroko bizitza arruntetik abiatzen

dela. Egunez egun bizitzak erdigunean jarri behar ditugu, bai gure gorputzen gaineko erabakietan, bai denbora eta lanen banaketan, bai aniztasunaren aitortzan edota komunaren defentsan. Bestalde, lurraldean ere sustraitzen da burujabetzaren beharra. Premiazkoa da gure lurraldean erabakitze ahalmena berreskuratzea botere korporatiboen zerbitzura dauden bi estatuen aurrean.

Beraz, burujabetza feministak lotura zuzena du Euskal Herriaren autodeterminazio eta aldaketa prozesuekin. Horrek herritartasun eredu berriak irekitzeko aukera dakar eta elkarren artean harremanak dituzten pertsonak bihurtzea eskubideen subjektu, eskubideak enpleguari, ezkontzari edo jatorriari lotu ordez.

Eragileok baditugu desafio ez gutxi: eskuinaren gorakadak markatutako testuingurua, estatuetako lurraldetasun krisi eta inboluzio sozialaren aurrean burujabetzaren sakonduko duen alternatiba eraikitzea, kolapso egoerara doan zibilizazioari trantsizio bat eskaintzea. Horietan guztietan, ezinbestekoak dira emakumeon* parte-hartze politikoa, oinarri feminista duen herri proiektua definitzea eta mugimendu feministaren mintzakidetzak. Izan ere, errealitatea gordina da: Feminismoetatik aspaldi diagnostikatu genuen kapitalismo patriarkalaren birfundatze zikloa, eredu hau sostengaitza zela ohartarazita.

Guk zaintzaren potentzialidade

politikoa erdigunean jarri nahi dugu. Elkarzaintza eta zaintzarako eskubidea helburu direlako, bizitza komuna guztion artean sostengatzeko ezinbestekoa. zaintzarako eskubide kolektiboaren aldeko apustua egin nahi dugu; hau da, pertsona guztiek, bizi osoan zehar, askatasunez eta konpromisoaz, zaintza eskaini eta jasotzeko eskubidearen alde. Eskubide hori modu kolektiboan ulertzen dugu, eta ez modu indibidualizatuan.

Kokatuak dira eta egun EHan ezin dugu zaintzaz hitz egin mundu mailako kate globalaz hitz egin gabe. Izan ere, zaintza erregimena patriarkala da, baina koloniala ere bai.

Interpelatu gaituzte, behin eta berriz. Kide feminista migratu eta arrazializatuek ispilu aurrean jarri digute askotan erreparatu ez duguna. Ikuspegi dekolonialak, galdera eta erronka berriak planteatzen dizkigu. Bai, EHko mugimendu antiarrazista eta euskaldun bat artikulatzea dagokigu eta horretarako etxerako lanak egin behar ditugu; pribilegioez hitz egin bai, baina eskubideez ere, boterearen inguruko hausnarketak sustatzea eta nola ez konfiantza, enpatia eta elkarriketarako bideak topatzea.

Militante feminista askorentzat Mugimendu Feminista da euren euskalduntze eta euskalzaletze eremu nagusi eta bakarra, horregatik, euskalduntzea ezin dugu mugatu hizkuntzaren kudeaketara, euskara lotu behar dugu borrokareraino,

erlaldaketarekin, justiziarekin, sormenezko kulturarekin eta azken batean, imaginario eta utopia berriak amestearrekin. Ezinbestekoa dela Euskal Herrian dauden beste hizkuntza eta kulturekiko begirunea izatea, -horietako batzuk, gainera, hizkuntza ez hegemonikoak dituzte-, aberastasun gisa ulertzea eta etsaitzat ez jotzea. Horregatik, euskara balioetsi, irakatsi eta zabaltzearekin batera, beste beste sentitu orde, parte sentiarazteko, gure jarrera arrazistak, klasistak eta aurreiritziak errefusatzeko apustu kolektibo bat egin behar dugu. Eta bai, euskarara iritsi ez den kideak ulertu behar du, eta gu bidelagun izan gaitezke prozesu horietan, euskara auzi politikoa dela eta mendeetako zapalkuntza jaso duen hizkuntza gutxi eta zapaldua dela. Horregatik, elkarrekiko begirunea eta enpatia ezinbestekoa izango da elkarbizitza sortzeko ariketa honetan.

Euskal Herri euskaldun bat izatea euskaltzale guztiona da, eta bereziki, erakunde publikoek bermatu beharko lukete hori. Beraz, bai udalgintzan, bai autonomia erkidegoetan exijitzen diegu euskalduntzeko bitarteko publiko eta doakoak garatu ditzatela, euskalduntzea ez baita soilik ideologikoa, klase kontua ere bada. Euskaraz aritzea gaur gaurkoz ez da pribilegio bat, borroka eremu bat da. Borroka horretatik abiatu behar gara euskara duintasunez bizi ahal izateko baina batez ere, guztiontzako eskuragarri izateko. Baina, aldi berean, euskal hiztun moduan dugun

posizio ez-hegemonikotik, beste posizio gutxi batzuekin konektatzen badugu eta, era berean, euskaldunak zein mendebaldekoak izateagatik ditugun bestelako onurak identifikatzen baditugu gure posizio konplexuaz jabetu eta bestearekin loturak egiteko kokaleku egokiagoan jarriko gara.

Des-zentratu gaitezke. Hau da, posizio ez hegemoniko bat okupatzea potentziala da beste diskriminazio egoerak sentitzeko eta hautemateko.

Bizitzak sostengatzeko ardurak kolektibizatze eta botere harremanak errotik aldatzeko jarraitu behar dugu borrokan. Elkargurutz horietan sortuko baitugu herri honen eraldaketarako izango den palanka.

Guk zaintzaren potentzialitate politikoa erdigunean jarri nahi dugu. Elkarzaintza eta zaintzarako eskubidea helburu direlako, bizitza komuna guztion artean sostengatzeko ezinbestekoa.

Baina horretarako, gure zapalkuntzatik atera behar gara, biktima posiziotik aldeni, konturatu ahal izateko pribilegio posizio batean ere bagaudela. Deszentratze ariketa hau mingarria eta deserosoa da, ezinegon sortzen du. Baina zapalkuntzak kontraesan ez beteta daude, eta heldu behar diegu kontraesan horiei benetako eraldaketa nahi badugu. Kontraesanean murgiltzen garenean, bestearen zapalkuntza ezagutzeko gaitasuna daukagu.



Posizio ez hegemoniko bat okupatzea potentziala da beste diskriminazio egoerak sentitzeko eta hautemateko.

Zapalkuntzak harremanetan daude. Zapalkuntzak ez dira gehitzen, zapalkuntzak elkar-gurutzatzen dira eta kokaleku sozial espezifikoak eraten dituzte. Ez dira esentzia bat eta ez dira estankokoak, testuinguruaren arabera gure kokalekua aldatzen baita: estatusa, maila eta pribilegioak aldakorrak dira. Bestalde, zapalkuntzak ez daude airean, gure gorputzetan haragitzen dira, gure buruarekiko eta besteekiko dugun harremana baldintzatuz, gure bizi esperientzia markatuz eta gure gogo-gorputzean zauriak utziz. Beraz, kolektiboki hori zaindu eta osatzeko tresnak asmatzea ere politikoa da, eta ez da erronka makala.

Bilgune Feministan zapalkuntzen eta identitateen gaia landu dugu, ez horrenbeste behar teoriko bati erantzuteko, baizik eta gure praktika politikoak eskatzen duen subjektu feminista artikulatzeko. Hau da, identitateen eztabaida termino politikoetan kokatzen dugu: hauek egituratzen dituzten botere-harremanekin amaitzeko eta subjektu politiko askatzaileak sortzeko.

Subjektu feministaz ari garenean, identitatea modu indibidual eta kolektibo batean irakurtzen dugu. Ulertzen dugu identitatea kolektibo baten parte izatearen sentimendu subjektiboa dela, non bizipen pertsonalak, ibilbide kolektiboak, ezaugarri bereizgarriak eta egiturazko bereizkeria egoerak eragiten duten. Neoliberalismoak, identitatea modu indibidualean





Sistemak gure arteko diferentziak erabiltzen ditu gure loturak zatikatzeko, isolatzeko, desaktibatzen. Jendartea feminismotik iraultzeko, ordea, diferentziak aukera bihurtu behar ditugu.

Guk Burujabetza Feministak herritar guztientzako emantzipazio markoa eskaintzea eta zapalduen arteko samurtasuna ahalbidetzea nahi dugu. Bizitzako alor guztietan erabaki nahi dugu.

azaldu nahi du, GUTasunik gabe, despolitizatua, borroka kolektiboa neutralizatzeko. Baina guk, esaterako, sexu-identitatean eragiten duen esplotazio ekonomikoa, antolamendu politiko, soziala zein kulturala eta ideologia hegemonikoak azpimarratzen ditugu, hauek irauli ahal izateko.

Hau esanda, feminismotik eraldaketarako karril orokorra egotea inportantea dela deritzogu, borroka ezberdinak josteko; zapalkuntza zein pribilegio posizio espezifikoak abiatu eta elkartzen gaituena topatzeko. Orokorra beraz, baina ez zurruna, estankoa eta esentziala. Baina karril hori ezin da eraiki, borroka mailakatu, subjektuak ezkutatu edota agendak inposatu. Mundu berri bat eraiki nahi badugu, elkarren arteko beharra dugu, inork ez duelako arazoa argitzeko erantzun totala. Horregatik, subjektu anizkoitza artikulatzearen aldeko hautua egiten dugu.

Sistemak gure arteko diferentziak erabiltzen ditu gure loturak zatikatzeko, isolatzeko, desaktibatzen. Jendartea feminismotik iraultzeko, ordea, diferentziak aukera bihurtu behar ditugu. Horiek baliatu behar ditugu eraldaketarako errezeta konplexuagoak eta mamitsuagoak sortzeko, dominazioaren mekanismoak hobeto ulertzeko eta hauei aurre egiteko. Izan ere, ez gara merkantzia baliagarria eredu heteropatriarkal honentzako. «Ahaldundu zaitez, izan zaitez zu, baina guk digun moduan». Gizon eta emakume zis heterosexualek (eta ordenatuak)

behar dituen kapitalismo basati honek, patriarkatuarekin aliatu eta kabitu ezinik gaituen markoa eusten dute. Indibidualismoan nahi gaituzte, kontsumoan eta bazterretan.

Askatasunez mozorroturik datoz askotan indarkeria eta zapalkuntza zis-heteropatriarkala. Disimuluz, garbituz, irentsi nahian. Baina guk mozorroa kendu nahi diegu. Aspaldi hasi ginen salatzen markotik ateratzeko, araua apurtzeko dakarren zigorra. Markoa lehertzen ari gara, plazerez behin eta berriro apurtzen. Kolektiboan egiten diren eztanda handi eta txikiak egiten gaituzte desobediente. Desobedientzia kolektiboa zainetara eramaten gabilta. Ez

gara markoan kabitzen, eta ez dugu nahi ere!

Guk Burujabetza Feministak herritar guztientzako emantzipazio markoa eskaintzea eta zapalduen arteko samurtasuna ahalbidetzea nahi dugu. Bizitzako alor guztietan erabaki nahi dugu. Bertatik eraiki nahi dugu. Euskal Herrian burujabetza feminista eraikitzeo feministok kalean kontra-boterea artikulatzearekin batera, boterearen jabe izan behar dugu. Boterea hartzea gaitasun politikoa eta intzidentzia irabaztea dela ulertzen dugu, mapa politikoa baldintzatu ahal izateko, hartzen ari diren erabaki eta neurrietan eragiteko eta aldaketa sozialaren oinarriak markatu ahal izateko. Honez gain, botere hartzea ahaldundute pertsonal

eta kolektiboarekin ere lotzen dugu. Horretarako, Mugimendu Feministaren aitortza politikoa ortu behar dugu, lidergo feminista bat osatuz eta botere guztiak irabaziz.

Demokrazia erradikala, parte hartzea, gatazken kudeaketa feminista, justizia sozialaren alde aliantza anitzak xaxatuz, alternatibak eraiki eta saretuz, eta aniztasunean oinarritutako Euskal Herria sortuz. Erronka handiak ditugu euskal feministok eskuartean. Baina erronka handi horiei anbizioz erantzuteko jaio ginen; feminismoak egiten gaitu Herri.



DOSIERRA:

D₁ ”

erreportajea:
ANDONI OLARIAGA AZKARATE
Fase historikoa ondo ezaugarritzeaz

D₂ ”

erreportajea:
ELENA BELOKI RESA
Ezkerretik segurtasuna hizpide

D₃

erreportajea:
ASIER ALTUNA EPELDE
Deskarbonizazioaren azken geltokia

sinadura:
AINHOA INTXAURRANDIETA EZKURRA
**Larrialdi klimatikoa:
eta Euskal Herrian zer?**

D₄ ”

erreportajea:
IDOIA ZENGOTITABENGOA ETA JOSEBA PERMACH
Lapur bandez eta denona denaz

D₅ ”

erreportajea:
GALDER GONZALEZ LARRAÑAGA
**QAnon, conspiración y negacionismo
en la tormenta perfecta de la extrema derecha**

D₆ ”

sinadura:
FLOREN AOIZ MONREAL
Mundua eraldatzen duen ezkerria behar dugu

NEOLIBERALISMAREN
KARTOGRAFIA BERRI BAT

Fase historikoa ondo ezaugarritzeaz



Andoni Olariaga Azkarate
Filosofoa

Ezkerraren iraganeko akatsetatik ikastea ideia ona izaten da, historia bi aldiz ez errepikatzeko. Oso garai nahasia izan arren, irakaspenean onak dira Hirugarren Internazionalen (1919-1943) emandako *frente bakarraren* eta *hirugarren garaiaren* arteko talkan emandako eztabaidak, egindako irakurketak eta hartutako erabaki politikoak.



Margaret Thatcher Moskun 1987an, Gorbachovekin akordioa sinatu ostean hatzak gurutzatzen.
Argazkia: Flickr, CC BY 2.0



Kominternaren sorrera asanblada 1919an. Argazkia: Wikimedia Commons

HISTORIAREN IRAKASPENAK. KOMINTERN-AREN HIRUGARREN PERIODOA

Urte batzuk aurretik, 1917-1921 artean, Errusian, krisi ekonomikoaren eta baldintza iraultzaileen arteko korrelazioa egina zen. Baina ez zen territorio guztietarako baliaigarria, Leninek ohartarazi zuenez. 1921eko uztailan hirugarren internazionalaren emandako hitzartze batean, mendebaldeko Europarako estrategia diferentzial baten garrantzia aipatu zuen, Errusiarekin kontrastean. 1917ko garaipenak baldintza batzuk zituen, haren ustez: langileen gehiengo haien alde zegoen, ejertzitoaren erdia (10 milioiren erdia) boterea hartu bezain laster haien alde jarri zen, eta nekazarien gehiengo nagusi bat ere haien alde zegoen. Mendebaldean halako prozesu

bat kopiatzea erridikulutzat jo zuen, baldintzak guztiz bestelakoak zirelako. Leninen hitzetan, mendebaldean jendartea irabazi beharra zegoen lehenik, edozein botere lortzeko asmok arrakasta izateko.

1929an Komintern-aren hirugarren aldia ezagutzen dena jarri zen martxan, premisa argi batekin: kapitalismo mundialaren krisi berehalako katastrofikoak zeterren, eta koiuntura iraultzailea irekitzen zen. Finean, Komintern-aren VI. kongresuak bide abenturista proposatu zuen, iraultzarako koiuntura emana zegoela aldarrikatuz. 1929ko depresio handiak irakurketa mekanizista eta ekonomizista hori handitzen lagundu zuen, krisi latza ekarri baitzuen: produkzio industrialaren jaitsiera,

nazioarteko merkataritzaren etetea, demokraziaren okertzea, eta azken buruan, Bigarren Mundu Gerraren hasiera. Ondorengo historia badakigu.

Irakurketa horrek axioma argi batzuk ekarri zituen: faxismoaren eta sozialdemokraziaren banaezintasuna eta diktadura polizialen eta demokrazia burgesen ekibalentzia, esaterako. Alegia, alderdi komunisten “eskuinera” zegoen guztia bilakatu zen etsai nagusi, faxismoarekin parekatu zirelarik, Italian zein Alemanian. Klasea klasearen kontrako printzipioan oinarritutako estrategia abiatu zuten, “iraultza oztopatzen” ari ziren horien kontra joan behar zela argudiatuta. Ultra-ezkertiartasun mozkorraldi



Lenin Hirugarren Internazionalaren asanbladan oharrak hartzen, 1921ean. Argazkia: Wikimedia Commons

betean sartu zen Internazional komunista. Italian bertan PCik momentu iraultzaile batean zeudela aldarrikatu zuen, eta erbestean haiekin zeuden lagun sozialistak etsaitzat eta faxismoaren agentetzat jo zituen.

Apustu taktiko oker horren ondorioak hondamendia izan ziren langile mugimenduarentzat, langileriaren zatiketa eta faxismoaren gorakada ekarri baitzuten. Komintern-ek zuzenduko zuen ildo hura beranduago, hautu hori okerra zela onartuz, eta fronte popularraren estrategiara bueltatuz (aurrekoa estrategia zein koiuntura azterketa estatikoa baztertuz): baina ordurako beranduegi izango zen.

GRAMSCIREN IRAKURKETA

Apustu eta estrategia politikoak egiterako orduan, momentu politikoa irakurtzen eta indarrak neurtzen jakin behar dela adierazten du aurreko esperientziak. Praktika iraultzaileek, arrakasta izan dutenek ere, baldintza espazial,

kultural, tenporal konkretuak behar dituztela, leku baterako bai, baina bestetarako balio ez dutenak.

Leninek argi zeukan aurrekoa, eta Gramscik bat egingo zuen horrekin. Bere Kartzelako Gutunak (Katakarak, 2021) idazkietan, fronte bakarraren ideari jarritako enfasiak jarrera mekanizisten arriskuari erantzuten zion. Leninek lehenik, Gramscik ondoren, ekialderako balio zuen eskemak mendebalderako balio ez zuelako ideia errepikatu zuten, behin eta berriz. Ezin zen pentsatu jendarteak ideia burgesak abandonatuko zituenik, edo faxismoaren kontrako iraultzarako prest zegoenik goizetik gauera; ezin zen pentsatu klase batasuna (garaiko terminologian) komunista, sozialista zein sozialdemokraten paktuekin erdietsi ezin zitekeenik. Hain zuzen, Leninek *Ezkertiartasunaren gaixotasun infantila komunismoan* liburuan garatuko zituen ideia horiek. Posizioen gerrak, hortaz, fronte bakarra eratzea eskatzen zuen, lan ideologiko eta politiko

Leninen hitzetan, mendebaldean jendartea irabazi beharra zegoen lehenik.

Apustu taktiko oker horren ondorioak hondamendia izan ziren langile mugimenduarentzat, langileriaren zatiketa eta faxismoaren gorakada ekarri baitzuten.

sakona egitearekin batera, jendartean eta harekin batera, sektarismoetatik urrun.

Gramsciren teorian, hortaz, horizonte espazial eta tenporal egokiak kontuan hartzeak izan zuten garrantzia, bi zentzutan. Batetik, mendebaldeko Europa hartu zuen kontuan, eta bestetik, 1921 ondorengo gerraosteko garaia izan zen bere erreferentzia tenporala, ez depresio handiaren osteko garai iluna soilik. Hortik abiatuta, Gramscik posizioen gerraren teoria garatu zuen, garai eta geografia oso baterako baliaigarria izango zena. Oinarrian, iraultza egiteko hegemoniaren beharraz mintzatuko zen, iraultza soziala iraultza moral eta intelektualaren eskutik etorri behar zela aldarrikatuz, herriarekin eta herriarentzako egina. Beste iraultza asmoak, porrotera kondenatutako saiakerak ziren, faxismoari alfonbra gorria.

Finean, Gramsciren ideia sinplea zen: Europako mendebaldean estatuaren eta

D1

Praktika iraultzaileek, arrakasta izan dutenek ere, baldintza espazial, kultural, tenporal konkretuak behar dituzte, leku baterako bai, baina bestetarako balio ez dutenak.

Posizioen gerrak, hortaz, fronte bakarra eratzea eskatzen zuen, lan ideologiko eta politiko sakona egitearekin batera, jendartean eta harekin batera, sektarismoetatik urrun.

Iraultza egiteko hegemoniaren beharraz mintzatuko zen, iraultza soziala iraultza moral eta intelektualaren eskutik etorri behar zela aldarrikatuz, herriarekin eta herriarentzako egina.



Antonio Gramsci, PClren sortzaileetakoa. Bere kartzelako gutunetan fronte bakarraren aldeko argudioetan jarri zuen indarra. Argazkia: Wikimedia Commons

jendarte zibilaren harremana aldatu egin zen, jendarte zibila indartsuagoa eta antolatuagoa izanik; estrategiak, beraz, posiziozkoak bilakatu behar ziren, tenporalitatea aldatuz. Ondoren etorriko zen neoliberalismoak, hain zuzen, jendartearen zentzu komunetan inprimatuko zituen bere zutabeak izango ziren ideia nagusiak; eta hori izango zen, eta da, batez ere, XX. mende bukaerako eta XXI. mende hasierako neoliberalismoaren

lubaki garrantzitsuena; jendartearen ideiak eta iruditeria.

NEOLIBERALISMOAREN GAURKO ERREGIMENAK

Neoliberalismoa aurpegi anitzeko *hydra* herensugea da (ikus, Floren Aoz, *Mamuari so*), munduan lehen aldiz globala bilakatu den mundu-sistema. Hainbat teoriko sozial marxistek neoliberalismoa erregimen ekonomiko soil gisa ezaugarritu ohi dute, kapital global eta

lokal finantzarioek desjabetze bidezko akumulazio logika harrapari etengabe dabilen sistema bezala. Hori bada, baina hori baino askoz gehiago da. Izan ere, neoliberalismoa erregimen sinboliko bat da, Margaret Thatcherrek ederki azpimarratu bezala, “economics are the method. The object is the change of soul”. Alegia, ekonomia metodoa da, helburua jendartearen arima (iritzia, zentzu komuna) eskuetan izatea da. Edo bestela esanda, jendea menperatzeko haien borondatea alde izatea ezinbestekoa da.

Esan ohi da kapitalismoak krisi globaletan bere burua berrasmatzeko abilezia erakusten duela, behin eta berriz. Eta halaxe da, ez du inor harritzen dagoeneko. Garai hauetan orientatzea zaila da, izan ere, bizkortze orokor bat bizi dugu, geopolitiko, ekonomiko eta kulturala. Azkartze hau, ordea, neoliberalismoaren eta globalizazioaren azken hamarkadetako norabidean kokatu behar da. Demokraziaren pribatizazioa, larrialdi klimatikoaren azkartze esponenziala, globalizazioaren kaltea, zaintza eta migrazio krisiak, mundu ordena zaharraren aldaketa geopolitiko ezegonkorak, autoritarismoaren gorakada, prekarietatearena...

Azken hamarkadatan, neoliberalismoak narratiba indartsu bat sortu du, aurpegi anitzekoa. Sinbolikoa eta tenporala da, eta deskontu tenporalaren tasan oinarritzen da (orainari balio erabatekoa emanez); espaziala da, territoriala eta interterritoriala, bi botere logika ustez kontraesankorrak konbinatzen dituena, lehenean

estatu batek lurralde batean duen hegemonia aplikatuz (beste estatuen zein barne indar “desestabilizatzaileen” kontra), eta bigarrean, botere ekonomikoaren eliteek bultzatua, estatuen gainerik operatzen duten oligarkia global ekonomikoen interesetara; arraziala eta eurozentrikoa da, azken hau agortzen ari delarik; patriarkala da, lanaren banaketa sexuarekin oinarritua dago; narratiba ekonomiko nagusi bat dauka, merkatu askatasunean oinarritua; globalizatzaile eta uniformizatzaile ere bada, hizkuntza eta balio jakin batzuen globalizazioan eta “gutxiengo” linguistiko eta kulturalen suntsipenean oinarritua baitago. Azken ezaugarri guzti horiek (globalizazioa eta uniformitatea, arrazakeria, patriarkatua, demokraziaren pribatizazioa eta geratzen den “ongizate estatuaren” eraispena, denboralitate bizkorra, botere territorializatu hegemonikoa) neoliberalismoaren oinarriak dira.

Inportantea da neoliberalismoaren aurpegi anitzak ongi definitzea, ezkerrean inongo irakurketa esentzialista edo murriztagarrietan ez erortzeko. Izan ere, ezkerrean tentaldia izan ohi da giza estruktura sozial eta ekonomikoaren argazki finkoaren bila joatea, halaber, jendartearen egitura afektibo eta ideologikoak bigarren maila batean uztea, elkarri batuta dauden esfera ideologikoak eta materiala bereiztuz. Eztabaida zaharra baita, zer den lehenago, arrautza ala oiloa. Baina planteamendu hori erabat kamutsa da, neoliberalismoa praktika diskurtsibo konplexu bat delako, esan bezala.

Neoliberalismoa aurpegi anitzeko hydra herensugea da, munduan lehen aldiz globala bilakatu den mundu-sistema.

Ekonomia metodoa da, helburua jendartearen arima (iritzia, zentzu komuna) eskuetan izatea da. Edo bestela esanda, jendea menperatzeko haien borondatea alde izatea ezinbestekoa da.

Inportantea da neoliberalismoaren aurpegi anitzak ongi definitzea, ezkerrean inongo irakurketa esentzialista edo murriztagarrietan ez erortzeko.



Isaak Brodskyren obra. Leninen hitzartzea Kominternaren bigarren Mundu Kongresuan, 1924an. Irudia: Wikimedia Commons

NEOLIBERALISMOAREN KONTRAKO TXERTO, ALIANTZA HERRITARRAK ETA BURUJABETZA

Gaur erregimen horren azkartzea bizi dugu: pribatizazioa, prekarizazioa, eskubide sozial eta politikoen atzerakada, biodibertsitate ekologiko, kultural eta linguistikoaren galera, zaintza eta migrazio krisia, joera geopolitiko ezegonkorrak, autoritarismoaren gorakada... Zibilizazio krisi bortitza bizi dugun arren, aurrekoa ez da ezinbestean koiuntura iraultzaile batean bilakatzen. Izan ere, badago pentsatzen duenik koiuntura politikoa kapitalismoaren gainbehera

dela, eta iraultza proletarioa gauzatzeko momentua. Hortik abiatuta, aurrekoarekin bat ez datorrena abagune hori zapuzten ari da, eta, beraz, “bloke burgesaren” (bloke faxistarekin berdindua) parte da: estrategia, bloke hori sostengatzen duen ezkerrekin haustea da, “proletalgoaren boteretzearekin” bat ez datorren oro borrokatu eta “langileriaren” autonomia eraikitzea.

Banan – banan azaltzearren. Alde batetik, fase honek aliantza zabal herritar eta eraldatzaileak egiteko aukera paregabea eskaintzen du. Gaurko helburua aliantzak egin eta jendea batzea

izan behar du (ez jendartea banatzea, arerio politikoa eta etsaia nahastuz), minimo batzuen inguruan, indar korrelazio zein koiunturaren irakurketa errealistetan oinarritutako bideak proposatuz; Leninen eta Gramsciren orduko irakaspenei jarraiki. Bestetik, neoliberalismoak ongizate estatua birrindu eta instituzio publiko oro pribatizatzeke norabidea hartu du, autoritarismoa gorantza doa eta potentzia erreakzionarioa handituz doa. Batzuek borroka urte luzeen ondorioz klase prekarioenек, borroka feministak, askapen mugimenduak edota beste mugimendu eraldatzaileak

Fase politikoaren irakurketa oker batetik, ordea, batzuek koiuntura politikoa kapitalismoaren bukaera eta iraultza proletarioa gauzatzeko momentu gisa ezaugarritzen dute. Horrekin bat ez datorrena abagune hori zapuzten ari da, eta, beraz, “bloke burgesaren” (bloke faxistarekin berdindua) parte da: estrategia, bloke hori sostengatzen duen ezkerrekin haustea da, “proletalgoaren boteretzearekin” bat ez datorren oro “erreformista” gisa borrokatu eta “langileriaren” autonomia eraikitzea. Aurrekoak herri mugimendu eta indar eraldatzaileen artikulazio oro apurtu eta bloke historiko berri bat osatzeko elkarlanak zapuzten ditu, estrategia zatikatzaileak elikatuz.

Fase honek aliantza zabal herritar eta eraldatzaileak egiteko aukera paregabea eskaintzen du. Ez gaude borroka urte luzeen ondorioz klase prekarioenек, feminismoak, Euskal Herriak edota beste mugimendu eraldatzaileek lortutakoak ezdeustzat jotzeko momentuan.

Neoliberalismoaren eta faxismoaren kontrako txerto eraginkorrenak herri gehiago, burujabetza gehiago, esku hartze publiko gehiago, komunitate gehiago, kultura gehiago, baitira.

lortutako eskubide, baliabide eta erakundeak burgesak direlakoan baztertu eta “autonomoak” sortzea proposatzen dute. Gaurko testuinguruan, ordea, aurrekoa neoliberalismoari eta faxismoari alfonbra gorria jartzea da, publikoaren eta komunaren aldeko borroka desmobilizatzea: beste hitzetan, lehen bataila fronteari muzin egitea. Are gehiago, bataila hori emateko herri mugimendu eta indar eraldatzaileen artikulazio saiakerak zein bloke historiko berri bat osatzeko elkarlanak zapuzten dira aurrekoarekin, estrategia zatikatzaileak elikatuz.

Ustezko kontsigna erradikalena izatea baino garrantzitsuagoa da, hortaz, fase historikoa ondo ezaugarritzea. Eta hortik abiatuta, mundua eraldatzeak jendartearen pentsaera aldatzea eskatzen du, jende ahalik eta gehien herrien eta pertsonen burujabetzaren aldeko borrokara batzen saiatzea. Neoliberalismoaren eta faxismoaren kontrako txerto eraginkorrenak, herri gehiago, burujabetza gehiago, esku hartze publiko gehiago, komunitate kritikiko gehiago, imaginazio eraldatzaile gehiago, kultura gehiago, dira.

Ezkerretik segurtasuna hizpide

D2



Elena Beloki Resa
Sortuko Nazioarteko
Arduraduna

Ukrainaren inbasioak sortu duen testuinguru belikoan *segurtasuna* hizpide nagusietariko bat izan da. *Segurtasuna* gerrarekin, gastu militarrekin, boterearen elite zuriarekin, armen industriarekin, mugekin eta mehatxuarekin lotu izana mehatxuetatik babesteko defentsa militarra eta poliziala izan du ardatz. Eredu hau hegemonikoa da gure jendarteetan eta eskuinak defendatzen duen proiektu politikoaren zutoin inportantea eta bateratzailea da.



erreportajea

D2”



Errealismo politikoak bideratu duen segurtasunari buruzko ikuspegi klasikoak, herritarrengan baino estatuetan jartzen du arreta.

Ezkerreko tradizioan, aldiz, *segurtasuna* deserosoa izan den auzia da, batu baino zatitu egiten duen faktorea. Segurtasun global eta lokala mantentzen duten eragile eta egitura desberdinen kritika zorrotza egitera mugatu du ezkerrek bere zeregina urteetan, elite ekonomiko eta estatalen defentsarako egiturak direla aldarrikatuz. Ez zaio arrazoirik falta izan. Baina segurtasunaren gaia askoz harago doa, eta ez dago segurtasunaren kontzepzio bat eta bakarra. Nolanahi ere, segurtasuna ikuspegi emantzipatzaile batetik pentsatzeko beharra dauka ezkerrek gaur. Izan ere, indar eraldatzaileek, estatura eduki zein ez, planteamendu alternatibo propioen beharra dute, berandu baino goizago.

60. hamarkadan jadanik arestian aipatu dugun segurtasun kontzeptu hegemonikoaz zalantzak agertu baziren ere, 80. eta 90. hamarkadetan kritikak

Segurtasun global eta lokala mantentzen duten eragile eta egitura desberdinen kritika zorrotza egitera mugatu du ezkerrek bere zeregina urteetan.

Segurtasuna ikuspegi emantzipatzaile batetik pentsatzeko beharra dauka ezkerrek gaur.

Nazio Batuetako hainbat batzordek eta programek estatuaren mugen defentsa militarra gainditu eta pertsonen defentsara zabaltzeko beharra agertu zuten.

eta zalantzak areagotu ziren, segurtasunean oinarritutako politika kapitalista eta patriarkal horiek giza talde ezberdinetan eta ingurugiroan segurtasun eza sortzen zutelako finean, adibiderik argiena NATO dugu. Hori dela eta, Nazio Batuetako hainbat batzordek eta programek estatuaren mugen defentsa militarra gainditu eta pertsonen defentsara zabaltzeko beharra agertu zuten. Mundua aldatzen hasi zen eta gerra hotzaren bukaerak horretan lagundu zuen. Armagabetzearekin loturiko Segurtasun Amankomuna ezagutu genuen, Etorkizun Komuna ingurumena eta garapenarekin loturikoa edo gertuago zaigun Giza segurtasuna, estatuak ahaztu gabe segurtasuna, pertsonen behar eta askatasunetan arreta jartzen zuena. Garai horretan ere, feminismo akademiko eta militanteak segurtasun politiko eta militarren nagusitasuna kritikatu zuten, erreferentzia-objektua estatutik

2001eko irailaren 11tik aurrera segurtasunaren kontzeptu klasikoa militarizatu egin zen.

haratago eramanez, eta generoa analisi kategoriala gisa erabiltzeko beharra aldarrikatuz, indarkeria-adierazpenen oro ikusgai izateko. Segurtasunaren ikuspegia, hortaz, estatuaren defentsa hutsetik, jendartearen, ekologiaren eta generoaren kezkaz bustitzera pasatzen hasi zen.

2001eko irailaren 11tik aurrera (AEBko dorre bikien kontrako erasoarekin), ordea, segurtasunaren kontzeptu klasikoa militarizatu egin zen, eta munduan zehar barreiatu. Aldi berean, ikuspegi alternatiboaren eskutik, bestelako ereduak ezagutu ahal izan genituen. Ideiak argia zirudien:

segurtasuna pertsonen edo talde konkretu batzuen eskubide eta askatasunen kontrola eta murrizketak suposatzen zuten ulermen paradigma kritikatu eta jendartearen aldaketa sozialaren beharra aldarrikatzen zuten proposamen horiek. Horrela osatu ziren segurtasun askatzailea, segurtasun berdea, segurtasun post-koloniala, nortasunean, boterean eta espazioan oinarritzen den segurtasun post-estruturala...

Ezkerreko indarrek teoria hauek eskaintzen dituzten lanabes analitikoak eta euren diagnostikoak aztertu eta baliatu dituzte orduz geroztik. Baina zantzu guztien arabera,

ezkerreko indarren gabeziatiko bat orden neoliberalaren kritikara (Chadka Beheera, Tickner, Hinds 2021) mugatzea izan da, alegia, aldatu nahi den orden sozialaren alternatiba eta hau sostenga dezakeen marko legal bat ez dela gaur gaurkoz osatu.

Argazkia: Israel Palacio, Unsplash



ETA ORAIN ZER?

Krisi politiko, bio-sozial eta ekonomikoaren testuinguru honetan COVID19ak eta Ukrainako gerlak segurtasuna birpentsatzeko beharra areagotu dute. Birusak osasun krisiaren aurrean gizateriaren zaurgarritasuna erakutsi du, segurtasun eza esponenzialki handituz. Eta gerlak, halaber, pertzepzio hori areagotu du, gerla orok suposatzen duen suntsiketaz gain, elikaduraren hondamendia, arma nuklearren arriskuen sofistrazioen ugaltzea eta hauen hedapenen kontrako itunaren baztertzeta eta NATOren azkartzea (militarki, marko legal propio bat garatzen eta pandemia, energia edota elikaduraren esparruak barnebiltzen) suposatu duelako. Segurtasunaren alderik bortitzena bakearekin parekatuz.

Egoera honen aurrean ezkerreko indarrek, alderdiek, zein herri mugimenduek, gaur gaurkoz, ez dute pertzepzio eta segurtasun-kontzeptu alternatibo bati buruzko helburu konpartiturik. Edo bestela esanda, ez dute segurtasunaren kontzeptu klasikoaren kritikarik haragoko segurtasun integrala barnebilduko duen eredurik proposatu. Ikuspegi ezberdinak, kontraesan gatazkatsuak eta jarrera politikoen gabeziak nabariak dira oraindik. Horren adibide garbia da Ukrainako erasoaren karira esparru desberdinetan mantendu dituzten jarrera antagonikoak, izan armen bidalketaz edota NATOrekiko jarreraz. Beste hainbeste Errusiarekiko zigor ekonomikoak, migrazioaren auziaren kudeaketa, mugen kontrolak, ekologia zein zaintza lanak, EBren eta Errusiaren,

Txinaren, AEBen eta NATOren arteko harremanak... Gai horien inguruan dauden aburu eta proposamenak amaigabeak dira, baina indar hauek ez dira gai segurtasunaren kontzeptu klasikotik aldendu eta beste eredu integral eta global bat proposatzeko.

Eztabaida horrek, ordea, gure garaiaren konplexutasuna islatzen du, pertsonen benetako segurtasun-beharrekin erlazionatuta dagoen eztabaida azaleratzen du. Europako segurtasunaren definizio murrizta eta sekuritarioa gainditu beharko genuke, eta segurtasunaren kontzeptu iraunkor baten lanketa zehaztera bideratu indarrak. Izan ere, segurtasuna jendearen bizitza duinarekin eta zoriontsuarekin lotu beharko genukeelako, ez da ala?

Ezkerreko indarrek, alderdiek, zein herri mugimenduek, gaur gaurkoz, ez dute pertzepzio eta segurtasun-kontzeptu alternatibo bati buruzko helburu konpartiturik.

Segurtasuna jendearen bizitza duinarekin eta zoriontsuarekin lotu beharko genuke.



Argazkia: CDD20, Unsplash

Transform Europe sareak esparru aurrerakoietako akademiarekin, alderdiekin zein herri mugimenduekin eginiko mintegian, segurtasun alternatibo batez pentsatu eta definitzeko hiru zailtasun esparru zehaztu zituen.

Segurtasun kolektibo eta globalaren ikuspegitik argudiatzeak aukera ematen du ezkerrek egungo politika eta egitura antagonikoei aurre egiteko alternatiba bideragarri eta sinesgarri batekin.

NOLA EGIN HORI, ORDEA?

2020ko udaberrian ezkerreko Transform Europe sareak esparru aurrerakoietako akademiarekin, alderdiekin zein herri mugimenduekin eginiko mintegian, segurtasun alternatibo batez pentsatu eta definitzeko hiru zailtasun esparru zehaztu zituen: legea betearazteko boterea edo nazioarteko marko legal loteslea eta konplexu militar-industrialaren nagusitasuna, kapitalismoaren zein kolonialismoaren gatazkek klima-aldaketaren eta injustizia globalean duten erantzukizunari buruzko jarrerak, eta ezkerren barruko iritzi, jarrera eta hurbilpen diferentziak.

Behin oztopo gorriak identifikaturik, ondorengo etapak Segurtasun-kontzeptu holistikoa definitzea izan zitekeela jakitun, segurtasunaren kontzeptua berresanahitzeko beharra ikusi zen. Aipaturiko mintegian ezkerrek segurtasun kolektiboko planteamenduak bultzatu behar dituela argudiatu zen. Giza segurtasunetik harago doana eta XXI. mendeko erronkei ekiten diena.

Segurtasun kolektibo eta globalaren ikuspegitik argudiatzeak aukera ematen du ezkerrek egungo politika eta egitura antagonikoei aurre egiteko alternatiba bideragarri eta sinesgarri batekin, eta ezberdintasun askoren benetako segurtasun kezkek jorrazten dituen.

Agenda komun zehatzago baten garapena lehen urrats praktikoa izan daiteke, ez bakarrik segurtasunaren kontzeptua zuzentzeko modu ezberdinei dagokienez; baita egungo segurtasun praktikak erreformatzeko eta armagabetze nuklearraren aldeko jarrera lotesleak izendatzeko ere.



Deskarbonizazioaren azken geltokia

Walter Benjamin: "Iraultzak munduko historiaren lokomotorrak dira. Beharbada gauzak beste era batera agertuko dira. Baliteke iraultzak trenean bidaiatzen duen gizateriak larrialdiko balaztari tira egiteko ekintza izatea".



Asier Altuna Epelde
Politologoa eta kudeaketa publikoan graduatua



D3”

Permafrosta Kanadako Herschel Irlan.
Argazkia: Boris Radosavljevic, Wikimedia Commons

Bizi dugun krisi eko-sozialak urgentziazko neurriak hartzea eskatzen du. Erregai fosilen gainbeherak, sistema kapitalistaren gizarte antolaketa hankaz gora jarriko du eta ezegonkortasun handiko egoerak bizitzea dagokigu; langabezia, gosetea, gerrak, migrazio edota ezbehar klimatikoak.... Ama lurraren tenperatura 1.5-2°C berotzera iritsi ez dadin, konpromiso zehatzak eta urgentziazkoak eman behar dira aldiz, estatuek konpromisoak hartu gabe jarraitzen dute, azken COP26an ikusi bezala. Trantsizioa energetikoa eta deskarbonizazioaren bidez erregai fosilak berriztagarrien bidez ordezkatu nahi dira, baina ez da horren erraza. Gaur gaurkoz ez dago erregai fosilak ordezkatu ditzakeen energia alternatiborik, hidrogeno berdearen aldeko apustua egin du Europar Batasunak, baina arazo ugari ematen ditu. Bi erronka ditugu aurrean: erregai fosilen gainbeheraren gestioa eta energia berriztagarrien trantsizio gauzatzea. Gerra, *peakoil*, katastrofe klimatikoak.... Energia berriztagarriak bultzatu behar dira eta behar beharrezkoa da deskarbonizazio prozesuari beste bultzada bat ematea baina, ezin dugu ahaztu, lurra muga planetarioak ditu eta ezin dugu kontsumo maila honetan in *saecula saeculorum* jarraitu. Desmaterializatzea beharrezkoa da, gutxiagorekin bizitzen ikasi behar dugu, hau soilik deshazkundearen bidez etorriko da.

MUNDUARI BEGIRADA

Duela 50 urte Erromako Klubak "Hazkundearen mugak" (Meadows at all, 1972) dokumentua argitaratu zuen: "neurrigabeko hazkundean oinarritutako ekonomia eta lehengaien ustiapen iraunkorraren politikak aplikatzen jarraitzen badugu [...], XXI. mendeko bigarren hamarkadan, sistema kolapsoan sartuko da" azpimarratzen zuen txostenak. Horien artean, lau krisi nabarmentzen ziren: *demografikoa, elikadura, energia eta ingurumen krisia*. 50 urte beranduago krisi eko-sozial larriaren aurrean aurkitzen gara.

2008ko finantza krisi kapitalistaren ondorioak oraindik gaintu gabe, 2020ko martxoan COVID19 pandemiak munduko ekonomia gelditu zuen eta horrekin batera gero eta ahots kritiko gehiago zituen globalizazioaren gabeziak azaleratu ziren. Gizakiaren hauskortasunak asaldu gintuen eta bazirudien, herritarrok zerbitzu publikoen garrantzia eta beharraz jabetu zirela/ginela, baina pandemia gaintu ahala, lehengo egoerara itzuli gara. Aldiz, pandemia ostean Ukrainako gerra lehertu da. Lehendik egoera delikatua zen eta gerrak ondorioak areagotu dizkigu, nahiz oraindik goiz den ondorioak ikusteko.

Bigarren Mundu Gerraz geroztik, herrialdeen arteko tentsio militarra maila gorenean dago eta ondorioz gerra fronte berriak irekitzeko arriskua ere bai. Estatuaren arteko aliantza berriak ematen ari dira, baita potentzia nuklearren arteko aliantza arriskutsuak ere. Ikus



Gari saila Ukrainan. Herrialde hori da mundu mailako zereal esportatzaile handienetakoa. Gerrak ondorio larriak eragiten ari da honezkeró Afrikan. Argazkia: Pxhere, CC BY 2.0

espainiar Estatuak Marokorekin egin duen akordioa, Sahararen burujabetza Marokori aitortuz. NATO ekialdera zabaltzea edota Indo-pazifikoan AUKUS (AEB, Australia eta EB) akordio militarrek Txina begi puntuan jarritik. Txina eta Taiwanen arteko tentsioa goraka doa eta bigarren gerra frontea irekitzeko arrisku handiak daude.

Geopolitikaren eremuan jokoan dagoen beste zonaldea Artikoa da. Artiko polarraren kontrola bermatzeko borroka bortitza ari da ematen estatu hegemonikoen partetik -AEB, Txina, Errusia edota Norvegia-. Polar artikoan dauden glaziarren urtzeak,

permafrosta azaleratuko du, karbono gehiago isuriz atmosferara. Estatu batzuei ezer gutxi axola zaie hori eta interes handiagoa dute bide komertzial berriak irekitzean edota Artikoa kontrolpean izatean. Zonalde horren kontrola duenak bertan diren erregai fosilak ere bereganatuko ditu.

Politika kolonialista basatia ari da ematen. AEB eta Txina balio handiko materialez jabetzen ari dira mundu osoan. Aberastasun materialak dituzten herrialdeak desjabetuz, izan komertzialki zein eragindako gerren bidez, oinarritzko baliabide materialak, ura, lurra, erregai fosilak

edota trantsizio energetikorako behar beharrezkoak lehen gaiak bereganatzeko: litioa (Li), nikela (Ni), kobalto (Co)... . Lehengaien ustiaketa esponentzialarekin jarraituz, Alicia Valerok dioen moduan, gaia (bizitza) thanatia (heriotza) bihurtuko dugu. Lehengaiak xahututa, degradatuta eta baliabiderik gabe, atzera bueltarik gabeko planeta izango dugu.

Ukrainako gerrak areagotu egin du energia krisia. EB eta AEBak Errusiaren aurkako neurri ekonomikoen gogortzearekin batera, Putinen erreazioa ekarri du; Europara bideratuak zeuden gasa eta petrolioaren salmenta

Ama lurraren tenperatura 1.5-2°C berotzera iritsi ez dadin, konpromiso zehatzak eta urgentziazkoak eman behar dira.

Energia berriztagarriak bultzatu behar dira eta behar beharrezkoa da deskarbonizazio prozesuari beste bultzada bat ematea.

Lehendik egoera delikatua zen eta gerrak ondorioak areagotu dizkigu.

Artiko polarraren kontrola bermatzeko borroka bortitza ari da ematen estatu hegemonikoen partetik.

Lehengaien ustiaketa esponentzialarekin jarraituz, Alicia Valerok dioen moduan, gaia (bizitza) thanatia (heriotza) bihurtuko dugu.

Ez dago denbora nahikorik trantsizio hori egin ahal izateko eta datorren neguan milioika pertsonak ez du etxea berotzeko erregairik izango.

Herritarren tentsioa goraka doa eta leherketa sozialak ematen dira, bitartean agintariak leherketa sozialez baliatzen ari dira autoritarismoa eta militarizazioa indartzeko.

eten eta Txina, India zein beste herrialdeetara bideratuz. Horrek zuzeneko eragina izango du Europan negua iristen denean. Europar Batasunak, Hidrogeno berdearen bidez ordezkatu nahi du Errusiatik ekartzen diren erregaiak, baina ez dago denbora nahikorik trantsizio hori egin ahal izateko eta datorren neguan milioika pertsonak ez du etxea berotzeko erregairik izango.

Petrolioaren estrakzioa gero eta garestiagoa da eta azken urteetan petrolio konpainiek inbertsioak nabarmen jaitsi dituzte. Gasoilaren ekoizpenaren beheraketa doa, Petrolioaren Esportatzen duten Herrialdeen Erakundeak (OPEP gaztelaraz) onartu du ezin dutela produkzioa handitu, eta horrek erregaien garestitzea dakar gasolina, gasoila, gasaren gabezia ordaindu ezin duten herrialdeetan.

Bestalde, aurtengo uztak (garia, artoa, zein bestelako zerealak) ez dira espero zen adinako onak izan. Nekazaritzarako beharrezko ongarrrien gabeziak elikadura krisia areagotzea ekarri du. Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundea (FAO gaztelaraz) behin eta berriz esaten ari da neurriak hartu ezean, milioika pertsona pobrezia eta gosetearen eroriko direla.

Hau gutxi balitz, fenomeno klimatiko bortitzak gero eta maizago ematen dira; suteak, uholdeak, tornadoak.... Estatu askok inpaktuei erantzuteko ez dute gaitasunik ez baliabiderik. Horrek ezegonkortasuna handitzea dakar; herrialdeen kolapsoa azkartuz, migrazio-fluxu handiagoak espero dira eta etsipenak eraginda leherketa sozialak.... Gatazka

soziala gehiago elikatuz, batez ere mugako eremuetan edota eskualdeko potentzia jakin batzuen eragin-eremuetan: Magreb, Mediterraneo, ekialde hurbila...

Zenbait herrialde kolapsoan daude eta herrialde gehiago ere gehituko dira egoeraren larritasunak jota. Faktore ezberdinek eragin dezakete estatu baten kolapsoa: Sri Lanka, Laos, Nigeria... gasoil eta bestelako lehengairik gabe gelditu dira. Iran, Senegal, Kenia, Hegoafrika, Peru... elikadura faltak herritarren ezinegona ekarri du. Herritarren tentsioa goraka doa eta leherketa sozialak ematen dira, bitartean agintariak leherketa sozialez baliatzen ari dira autoritarismoa eta militarizazioa indartzeko. Munduko gari ekoizlerik handiena den Txinak aitortu du,

jasandako uholdeen ondorioz, 2022ko gariaren uzta espero baino urriagoa izan dela, historian izan duten uzta biltze txarrena. India, munduko bigarren gari ekoizle handienak, jasandako muturreko tenperaturen (50-60 °C) ondorioz, lehorte handia izan du eta gariaren esportazioa gelditu du. Afrikako herrialde gehienek barneko biztanleria elikatze arazo larriak izango dituzte. FAOk urgentziatzko deia egin du, gosete larriak emango direlako Afrika, Asia eta Hego Amerikako hainbat herrialdeetan.

Krisi ekologikoa agintarien agendan modu apalean ageri den arren, ezin dugu ahaztu eragin zuzena duela mundu mailako ekonomia zein energiaren eremuan eta 2030erako aldaketak gauzatu ezean etorkizun ezezagunaren aurrean aurkitu gaitezke.

ERALDAKETA, KOLAPSOAREN ATARIAN

Sistema kapitalista-neoliberalaren “hazkunde iraunkor” printzipioa erregai fosiletan oinarritzen da. Hazkunde iraunkor mugagabeak arazo nagusi bat du ordea; ama lurraren aberastasuna mugatua da. Lehengaien agortze progresiboa, energia merkearen amaiera eta muga ekologiko planetarioak XX. mendeko eredu industrial kolapsora darama. 50 urte igaro dira, Nicholas Georgescu-Roegen ekonomialariak “Entropiaren legea eta prozesu ekonomikoa” liburua argitaratu zuenetik. Bertan, fisika eta ekonomiaren arteko lotura frogatzen saiatu zen. Georgescu-Roegenek zioen; termodinamikaren bigarren legearen arabera, dinamika autosuntsizaille horretan jarraituz gero kontsumoak, baliabide naturalen desagerpena eramango gaitu. Lurrak dituen aberastasunak xahutzen ari gara, thanatiara hurbilduz. Adibide bat jartzearren, Txilen azken 25 urtetan historia guztian baino kobre gehiago atera da.

Denbora gutxi dugu deskarbonizaziorako trantsizioa martxan jartzeko. Klima Aldaketari buruzko Gobernu arteko Panelaren (IPCC) seigarren txostenak azpimarratu bezala ezinbestekoa da lurraren tenperatura 1,5-2°C ez gaitzeko eta horretarako urgentziatzko neurriak hartzea; IPCCren bigarren lan taldeak argitaratutako txostenean horrela zioen: “Ama lurra errekueratu daiteke aldaketa klimatiko larri batetik, egoera berrira moldatu daiteke, espezie eta ekosistema berriak



Perito Moreno glaziarra Amerika hegoaldean. Argazkia: Quaint Planet, CC BY 2.0



Permafrostaren argazki bat airetik. Argazkia: Wikimedia Commons

sortuz, gizakia ez. [...] okerrena etortzeko dago”.

Antropozenoaren aroa, giza jarduerak lurreko ekosisteman eragin duen inpaktu globalaren ondorioz ematen da. Horren arrazoi nagusia Berotegi Eftektuko Gasak (BEG) atmosferara isurtzearen ondorio da. XIX. mendearen amaierako industria-iraultzatik, globalizazio-neoliberalera isuri dugun hondakin guztiaren ondorioz Lurreko klimaren aldaketa globala eragin arte. Inpaktu hori berotegi-efektuko gasen isurketatik dator batez ere: karbono dioxidoa (CO₂), metanoa (CH₄) eta oxido nitrosoa (N₂O). Urtez urte hiru gas hauen isurtzea goraka doa. Rio De Janeiroko gailura, Rio+20 edota urtez urte burutzen diren COP gailurretan estatuek isuriak jaisteko konpromiso hartzen dute, baina aurpegi zuriketa edo greenwashing besterik ez da eta ez dute inolako urratsik ematen.

DESKARBONIZAZIOA

Nazioarteko instituzio zein Estaturen utzikeria salatu behar da, urratsak eskatu eta

egin beharreko eraldaketak gauzatu baina, munduko populazioaren etorkizuna ezin da estatu agintarien eskuetan geratu. Trantsizioa egitera behartu behar ditugu, instituzio, transnazional zein pertsona oro. Eskala global zein lokalean urratsak ematea urgentziazkoa da.

Klima aldaketaren aurkako borroka mundu mailako agenda politikoan kokatu behar da. Presio soziala handitu beharra dago; agintariekiko, enpresa multinazional handiekiko, nazioarteko konferentziak COPak ezerezean uzten dituzten Estatu buruekiko. Presio soziala ez badugu egiten, urgentziazko helburuak ezingo dira bete. Hau larrialdi egoera da.

Kapitalismo berdea deritzonak, gaur egungo erregai fosiletatik energia berriztagarrien ekonomiarako trantsizioa proposatzen du, teknologiaren bidez aldaketa hori eginda aski izango balitz bezala. Trantsizio hau karbonorik gabeko hirugarren iraultza

Hazkunde iraunkor mugagabeak arazo nagusi bat du ordea; ama lurraren aberastasuna mugatua da.

D₃

industrialtzat jo izan da. Europar Batasunak 2008ko krisi ekonomiko finantzarian falta izan zitzaion lidergo falta berreskuratu nahi izan du trantsizio energetikoa bideratzeko orduan. Horretarako laguntza ekonomiko handiak eman dizkio Estatuei. Errekuperazio fondoak, NextGeneration, Repower... Trantsizioa garatu ahal izateko 750.000 milioi € ko dirutza inbertituko du. Horrela, gaur egungo elektrifikazioa %24 ingurukoa bada 2050erako %62koa lortu nahi da.

Repower planak, hidrogeno berdearen trantsizioa azkartzea du helburu. Errusia eta beste herrialdeekiko dependentzia energetikoa (petrolio, gas) murrizteko. Hidrogeno berdearen aldeko urrats honen garaile nagusia AEB izan da, aurtan bere esportazioak %34 hazi baititu.

Laguntzak trantsizio energetikoa muturrera eramateko balio beharko luke baina espekulazio energetiko

Munduko populazioaren etorkizuna ezin da estatu agintarien eskuetan geratu. Trantsizioa egitera behartu behar ditugu.

Kapitalismo berdea deritzonak, gaur egungo erregai fosiletatik energia berriztagarrien ekonomiarako trantsizioa proposatzen du.

Aliantza publiko-pribatua lehenetsiz, enpresa energetiko handiak (Petronor, Iberdrola...) ari dira bereganatzen laguntza ekonomikorik handienak.

baten atarian gaudela esan genezake. Aliantza publiko-pribatua lehenetsiz, enpresa energetiko handiak (Petronor, Iberdrola...) ari dira bereganatzen laguntza ekonomikorik handienak.

Mendietan jarri nahi dituzten parke eolikoak beharrezkoak izango dira, baina zalantza handiak sortzen dituzte, toki eta eskala egokienekoak ote diren, nork bideratuko dituzten proiektu erraldoi horiek eta ze onura ekarriko dien gertuko bizilagun eta herritarrei. Beharrezkoa da plangintza estrategiko bat eta proiektua gauzatzeko orduan onurak bertakoentzat bideratzea. Zoritxarrez, Eusko Jaurlaritzak ez du ez planifikazio estrategikorik ezta trantsizio energetikoa gauzatzeko proiekturik. Kapital pribatuaren eskuetan utziko digute gure etorkizuna, Osakidetzarekin egin asmo duten bezalaxe.

Trantsizioak beste hainbat arazo ere azaleratzen ditu. Autoen kargagailu elektrikoak Europa osoan ziurtatzea da

erronka nagusienetakoa, izan ere nekez garatu daiteke deskarbonizazioa garraioaren kutsadura jaitsi ezean. Auto elektriko pribatuen parkea % 100ean ordezkatzeko ezinezkoa da, mundu mailan 1.000 milioi automobil elektrikotaz ari gara, soilik Europako automobil parkea 280 milioi autok osatzen dute. Auto elektriko egiteko

litioa, nikela, kobaltua eta platinoa bezalako lehengaiak behar dira eta guztientzako erreserba mineralik ez dago.

Garraio astunentzat ez da baliagarria elektrizitatezko indarra, beraz, bestelako energia behar da. Hidrogeno berdea erabili nahi da garraio astunentzako. Kezka ugari



Ekonomia elektrifikatuta ere ezinezkoa izango da egun munduan dagoen auto parkea osorik elektrifikatzea. Argazkia: Pxhere, CC BY 2.0



Zientzialariak Kanadako Herschel irlan permafrostaren laginak hartzen. Argazkia: Boris Radosavljevic, Wikimedia Commons

Eusko Jaurlaritzak ez du ez planifikazio estrategikorik ezta trantsizio energetikoa gauzatzeko proiekturik.

sortzen du ordea; izan ere, hidrogenoa ez da energia iturria eta oso lurrunkorra denez presio handian konpaktatu behar da eta prozedura horretan % kopuru handi bat prozesuan galtzen da.

Europaren anbizio klimatikoarekin bat egin eta gurean urratsak eman behar dira. Elektrifikazioa beharrezkoa dugu, bestelako energia berriztagarriak ere erabili beharko dira; fotoboltaikoa, termikoa, hidroelektrikoa, biomasa etab. Baina ez da nahikoa izango. Gure produkzio eredua aldatu eta kontsumo ohiturak aldatuko dituen sakoneko kultura aldaketarik gabe, trantsizioa ez da gauzatuko.

Azkenik, ez dago lehengai nahikorik egungo gizarte kapitalistaren erritmoa jarraitzeko. Eskala globalean zein eskala txikiagoan planifikazio errealak egitea ezinbestekoa da. Gurea bezalako herri txiki batean, aukera handiak ditugu energia ekoizpena dibertsifikazioaren bidez egiteko. Bide horretan deshazkundearen ildo jorratu behar dugu: baliabide energetiko eta material gutxiagorekin denok hobeto bizitzeko. Lurra sistema mugatua da eta beraz ezin da iraunkorki hazi. Horrekin batera aberastasunaren banaketa eta justizia soziala bermatu behar dira, ezin da aldaketa gauzatu aberastasuna banatu ezean, denok goaz itsasontzi berean eta aldaketa kulturala emateko

Merkatuan esku hartu eta politika sozialistak egitea inoiz baino beharrezkoagoak izango da.

beharrezkoa da guztiok baldintza egokiak izatea. Hilaren bukaera iristeko arazo larriak dituenari ez zaio arrotza kolapsoa.

Historian zehar, 26 zibilizazio inguruk kolapsatu dutela kalkulatu da. Gizarte batek aldaketak egin behar diren aurrean, aldaketak egiteari uko egiten dionean ematen da sistema edota gizartearen kolapsoa, horrela erabaki dutelako garaiko agintariak. Gure gizartearen ere, aldaketak gauzatu ezean, kolapsora goaz zuzenean. Gure esku dago. Merkatuan esku hartu eta politika sozialistak egitea inoiz baino beharrezkoagoak izango da. Oraindik garaiz gaude baina lo hartu gabe, izan ere egungo erritmoa eta kontsumoa jarraituz, daukagun planeta



Argazkia: Pxhere, CC BY 2.0

bizigarri bakarra kontsumitzen ari gara.

Auto elektriko pribatuen parkea % 100ean ordezkatzeko ezinezkoa da.

Elektrifikazioa beharrezkoa dugu, bestelako energia berriztagarriak ere erabili beharko dira; fotoboltaikoa, termikoa, hidroelektrikoa, biomasa etab. Baina ez da nahikoa izango.

Larrialdi klimatikoa: eta Euskal Herrian zer?



Ainhoa Intxaurrendieta Ezkurra
EH Bilduren Gipuzkoako Batzarkidea eta Mugimendu ekologistako kidea

ARGAZKIAK: FOKU

Azken urte, edo hobe esanda, hilabete hauetan inork ez du zalantzan jartzen dagoeneko larrialdi klimatiko egoeran bizi garela, hainbestetan iragarritako aldaketa klimatikoa ez dela etorkizuneko eskenatoki hipotetiko baten iragarpena. Hamarkada asko daramate zientzialari eta ekologistek zetorrenaren berri ematen, eta etengabe, ukatua izaten zen errealitatea, batez ere, egoeraren iraupenean interesak zituztenen aldetik. Nork ez du inoiz entzun larrialdi klimatikoaren gaia ekologisten gaia zela? Nork ez du entzun katastrofista batzuk garela? Behin eta berriro saiatu dira egoeraren larritasunari garrantzia kentzen, behin eta berriro esan digute gauzak nola egin behar genituen baina gauzak aldatzeko intentziorik gabe. Beste modu batetara egin behar omen ditugu gauzak, baina finean ezer ez aldatzeko, egoera berean jarraitzeko eta betikoek, betiko moduan, inoiz baino aberastasun haundiagoak pilatzeko. Badakite, badakigu, egoeraren erantzulea sistema bera dela; horrela ezinezkoa dela jarraitzea. Baina badakite ere, badakigu ere, ez dela aldaketa

sakonik emango betiko horien borondate hutsarekin.

Behin eta berriro saiatu dira egoeraren larritasunari garrantzia kentzen.

Badakigu, egoeraren erantzulea sistema bera dela; horrela ezinezkoa dela jarraitzea.

Eskenatoki latza dugu aurrean; guk ezagutzen dugun mundua mugitzen duen motorreko gasolina, eta barkatu alderaketa baina literalki esan dezakegu horrela dela, agortzen ari da. Egoera honen aurrean, ez da zientzialaria izan behar, ezta azti edo sorgifia ere, jakiteko, urritasunean gatazka eta gerrak areagotzen direla eta hildakoak eta sufrimendua

gutxien dutenek, dugunok, jartzen ditugula. Gure mundua fikziozko egoera baten gainean eraikia dago. Gure gizarte kontsumista hau (erosi, erabili eta bota gizartea), soilik sustenga daiteke, baldin eta beste nonbait, urrun ziurrenik, lehengaiak guretzako ustiatzen dituzten pertsonak dauden bizi-baldintza miserableetan. Eta horren gainean eraiki dugu gure gizartea, eta hori ez da inolaz ere justua. Euskal Erkidego Autonomoko gizarte eredua mundo osoan ezarriko bagenu, bi planeta eta erdi pasatxo beharko genituzke garapen hori emateko. Gure gizartea, beraz, defizitarioa da, ez dagokigunak kontsumitzen ditugu, ez dagokiguna kutsatzen dugu (kutsatzea eskubide bat balitz bezala), beste herrialdeetako eta gure ondorengoen planeta kontsumitzen ari gara.

Guk ezagutzen dugun mundua mugitzen duen motorreko gasolina agortzen ari da.

Euskal Erkidego Autonomoko gizarte eredua mundo osoan ezarriko bagenu, bi planeta eta erdi pasatxo beharko genituzke garapen hori emateko.

Honen aurrean zer egin behar du euskal jendarteak? Zer egin behar dugu? Ezin gara eserita geratu gure basoek su hartzen dutela ikusiz, Nafarroan gertatzen ari den bezala; ezin gara besoak gurutzatuta geratu datozen goseteen aurrean. Nahiz eta begiak malkoz bete, nahiz eta bihotza uzurturik dugun, erabakiak hartzeko garaia da. Eta ez soilik erabakiak hartu, hauek errealak izan behar dute gauzagarriak, eta praktikan jarri behar ditugu.

Ezin dugu agintarien esku utzi egoeraren soluzioa. Agintariak, errejimenaren seme alabek, egoera hau denboran luzatu nahiko dute, luzatzen ari

dira. Mozkinak eta irabaziak mantendu nahi dituzte, ikusten ari direlako, urrun joan gabe, egoera katastrofista honetan, ezer aldatu ezean, beraien poltsikoak betetzen ari direla inoiz baino gehiago, inoiz baino injustuago, baina finean, inoizko mozkinak haundienak lortzen ari direla. Ez ditut aipatu behar Iberdrola, Petronor... argi dago mundua kolapso egoerara zuzenean eraman dutenek, politikari ustel askoren konplizidadearekin, egoera honetan ere, irabaziak haunditu dituztela eta ezer aldatu ezean, oraindik ere gehiago haundituko dituztela.

Nahiz eta begiak malkoz bete, nahiz eta bihotza uzurturik dugun, erabakiak hartzeko garaia da.

Politikari askoren paparrean ikusten ditugu txapa edo pin koloretsuak, badago politikariren bat, "B" planetarik ez dagoenaren kamiseta ere soinean eraman duena,

eramaten duena, baina bere/beraien ekintzekin, "A" planeta edo ezagutzen dugun planeta hau, amildegira daramate zuzenean. Gauza bat esan edo saldu eta kontrakoa egin, berdez hitzak margotu eta ekintzak berunaren kolorekoak direnean, greenwashing bezela ezagutzen duguna alegia. Orain, energia nuklearra ere energia berdetzat jotzen dute. Eta ezin sinistuta gabiltza pausu hori emateko ausardia izan dutela ikusita. Baina erreal da, gertatzen ari da eta ez dute ia kontraktasunik topatzen bidean.

Gure etorkizuna baldintzatuko duten erabakiak hartzen ari dira, beti bezala, baina une honetan, inoiz baino garrantzitsuagoa da erabaki zuzenak hartzea eta ez dira hori egiten ari. Ez dute bere kabuz erabaki ausartik hartuko; mozkinak mozkinak dira. Oso ondo bizi dira gu guztion bizkar. Gure esku dago presioa eragitea, gure esku dago kapitalismoaren garai basati hauetan, beste gizarte eredu bat eraikitzea. Hau ez da erraza izango, ez digute erraz jarriko, baina gure betebeharra da egitea, betebeharrak etikoa, betebeharrak politikoa,



Klima larrialdiaren ondorioz muturreko fenomeno meteorologikoak gero eta ohikoak dira. Horren adibideak dira Nafarroan azken urteetan izan diren suteak eta uholdeak.



betebehar ekologikoa. Justizia sozial eta justizia ekologikoan oinarrituko den gizarte berri bat behar dugu, inor kanpoan utziko ez duena, gure “ongizate” gizarte unibertsalizatu behar dugu. Gure ongizatea ezin dugu besteen gaizkizatean oinarritu. Baina ongizatea bera zer den ere agian birpentsatu beharko genuke. Horretarako gizarte heldu eta antolatu bat behar dugu, kolektibotasuna indibidualismoaren gainetik jarriko duen gizarte. Norbanakoentzako soluzioen garaia amaitu da, edo taldearentzat, kolektiboarentzat erabaki kolektiboak hartzen ditugu edo jai dugu. Eta Euskal Herriak nola egin dezakegu hau? Nola eragin dezakegu Euskal Herrian egoera irauli eta guztiontzako irtenbide duin bat bilatzen?

Gure ongizatea ezin dugu besteen gaizkizatean oinarritu.

Euskal Herria historikoki, ekologista izan da, ekologista da eta gainera borrokalaria, aktibista. Mugimendu ekologistak ordea, ezkerak historikoki izan duen joera bat du, baita Euskal Herrian ere. Desberdintasunetik bada ere, helburu amankomunen pean elkartu ordez, ika mika eta haserreak gailendu dira. Asko gara gure burua ekologistatzat jotzen dugunak, asko gara aktibistak kontsideratzen garenak, baina gure arteko tira bira horiek medio, mugimendua indartu ordez eta lorpenak gehitu ordez, mugimendua atomizatua dago, zatitua eta

haserre eta frustrazioak eratorri dira. Eta bitartean, kapitala garai berrietara egokitzen; jasangarri hitza erabiltzen dute, berriztagarriak, energia berdea... bioaniztasuna eta ekologismoaren izenean erraustegiak, nuklearrak eta Abiadura Haundiko Trenak eraikitzen dizkigute. Burutik behera pixa egiten digute. Eta ezin diegu hau egiten utzi. Orain arte bizi izan dugun fikzio gizarte hau, milaka eta milaka pertsonen gainean eraiki dugu, planetaren mugen gainetik, naturaren kontra, euskaldunontzat hain garrantzitsua den amalurraren kontra eraikia dago. Zaintzak, behar duen garrantzia hartzen duen garaiotan, zer garrantzitsuago gure etxearen zaintza, gure amalurraren zaintza, finean, gu guztion buruaren zaintza baino? Euskal Herria berdinen arteko Euskal Errepublika bilakatu nahi badugu, Euskal errepublika justu bat eraiki nahi badugu, nola egin lurraren (gure etxearen) beharrei erreparatu gabe? Hau aldatu behar dugu, berandu goaz baina oraindik ere aukera dugu. Bihotza, burua eta gorputza.

Asko gara gure burua ekologistatzat jotzen dugunak, asko gara aktibistak kontsideratzen garenak, mugimendua indartu ordez eta lorpenak gehitu ordez, mugimendua atomizatua dago.

Euskal Herria bere osotasunean aintzat hartuko duen mugimendu bat behar dugu, Ipar zein Hego.

Badabiltza, bagabiltza zerbait berria antolatu nahian. Mugimendu anitza, mugimendu transbertsala, iparra zein den argi duena.

Ipar Euskal Herrian bagabiltza alternatibak eskaintzen, fin ari gara lanean. Orain, Hego Euskal Herriaren garaia ere bada. Euskal Herria bere osotasunean aintzat hartuko duen mugimendu bat behar dugu, Ipar zein Hego. Badago mugimendu bat, hastapenetan dagoena, baina modu transbertsanean egoerari aurre egiteko prest dagoena, ez soilik momentuan eraiki nahi diren azpiegiturei erantzun puntuala emango diona, ez soilik aldaketa klimatikoaren ondorioei erreparatuko diona, suteak, desertifikazioa, bioaniztasunaren galera, itsasoaren maila igoerari erreparatuko diona. Baita ere, baina ez soilik horri. Ondorio hauek sortzen dituen gaitzari erreparatu behar zaio. Kapitalismoak eragiten dituen kontsumo ereduak aldatu behar ditugu, amalurrarekin dugun erlazioa aldatu behar dugu, elikadura eredu errotik aldatu beharra daukagu eta

horretarako guztiak gara beharrezko, guztion artean erantzun behar diogu azken krisi honi. Badabiltza, bagabiltza zerbait berria antolatu nahian. Mugimendu anitza, mugimendu transbertsala, iparra zein den argi duena. Irailak 30, urriak 1 eta 2 Portugaleten Ekotopaketak antolatzen ari den mugimendu berri bat sortu da, bertan eztabaida, analisia eta aisiarako denbora ere izango dugu, baina denetan garrantzitsuena, orain eta etorkizunean Euskal Herriak behar duen mugimendu ekologistaren oinarriak finkatuko dituen Ekotopaketak izango ditugu. Azken krisia. Gure garaia! Gugatik, ondorengoengatik, denongatik.

D3

Josu Jon Imaz EAJren EBBko buru ohia eta Repsoleko CEOa, Industria fosilaren llobyarekin batera, Europar Batasuna bultzatzen ari den trantsizio energetikoaren aurka posizionatu da, interes korporatiboak babesteko helburuarekin.

Lapur bandez eta denona

D4

Lapur banden politikaz hitz egin zigutela urteak pasa dira. Istorioek hala dioskute: lapurrek gauzez eta oharkabean lapurtzen dute, zaratarik egin gabe, isil-isilik, lapurtua den hura ez ohartzearaino gertatzen ari denaz. Baina zer gertatzen da denona beharko lukeen hori egun argiz lapurtzen hasten zaizkigunean gutxi batzuen eskuetarako? Gehiengoa garen hori asaldatzen dela, disputatzeko aukera areagotu egiten dela, ezinbesteko bilakatzen dela.



Idoia Zengotitabengoa eta Joseba Permach
Iratzar fundazioa

erreportajea

GAUA ETA KALEAK
GUREAK DIRELAKO



EL MIEDO VA
CAMBIAR DE BAND

AUTODEFENSIVAS
FEMINISTAS

Argazkia: Feministak Presti, CCO 1.0

Fraserrek kontatuko digu munduko lapurren historian, XIX mendeko kapitalismo liberal lehiakorrek, ipar globalean esplotazio industrialarekin lapurtzen zuena, erabat uztarturik zegoela munduko hegoalde eta lurrareskiko gabetze kolonialarekin.

David Harveyk ohartu gaituen moduan, (ez)jabetze prozesuak ez dira iraganean eta kapitalismoaren sorrerari soilik lotutako errealitatea. Mendeetan zehar mantentzen den etenik gabeko metaketarako tresna izaten jarraitzen du.

Ez dira atzoko kontuak. Mendeak dira jada ahots eta idatzi ezberdinetan, mundu ordena honen lapur banda profesionalerik ari izan zirela, direla edo garela. Ilunpetan nahiz egun argiz, lapurreta da uneoro errepikatzen dena: nonbait edo norbait(zuk) zerbaitetaz gabetu behar beste nonbait eta norbait horretaz jabetu ahal izateko. Gabetu asko, gutxi batzuk jabetzeko.

Egungo mundu ordenaren ezaugarria izan zitekeen hau, edo bada, baina ez bakarrik. David Harveyk ohartu gaituen moduan, (ez)jabetze prozesuak ez dira iraganean eta kapitalismoaren sorrerari soilik lotutako errealitatea. Mendeetan zehar mantentzen den etenik gabeko metaketarako tresna izaten jarraitzen du¹. Kontua da, lapurreta hauek ez direla beti eta, leku guztietan, itxura berdinez ematen.

Begirada horretan trebatzeko interesgarriak dira Nancy Fraser feminista marxistak egiten dituen halako ezkutuko eta ageriko lapurreten kontakizunak². Ulertu nahi ditu eta galdezkatu, non eta nola ematen diren mundu ordena honen (ez)jabetzeak, krisiak eta akaso *disputak*. Analista gehienek ekonomiaren (modu tradizionalerik ulertua) barne kontraesanetan jartzen dute arreta. Bere irudikoz, *ongi* egonik

ere, ikuspegi ekonomizista huts horrek modu hertsiegian ulertzen du kapitalismoa, beharrezkoa dena, baina inola ere ez nahikoa.

Hau honela, Fraserrek ondorioztatuko du, ezin ditugula ez esfera pribatuetakoa harremanak (etxea, familia ereduak, komunitatea...), ez lurrareskiko daukagun harremana, ez inperialistotik xurgatzen duen mundu ordena, ez eta sistema publiko-estatala kapitalismoaren irakurketa oso batetik baztertu. Hau da, egungo ordenuan kapitalak enpleguko lan ordu bakoitzetik gainbalio gisa irensten duenaz gain, bestelako gabetze eta lapurretak ere kontuan hartzea ezinbestekotzat joko du: emakumeen bizkar erortzen diren ordaindu gabeko zaintza lanak, naturari ebatsitako baliabideak, garapenaren izenean koloniei oraindik orain osten zaiena, guztion poltsikotik eraikitako sektore publikotik gutxi batzuen mesedetan desbideratutako milioiak, horiek guztiak osatzen duten lapur bandaren harrapakina. Horri guztiari erreparatzea ezinbestekoa da. Are gehiago ezkerreko begirada batetik, edo eraldatzailea den mugimendu batetik egin nahi badugu.

Beraz, ezkutuan egon izan den hori bistaratzeko helburuz, Fraserrek kontatuko digu

¹Harvey D. [2005] El "nuevo" imperialismo : acumulación por desposesión. Clacso.

²Fraser N. [2021] Kapitalaren lantegi ezkutukoak. Lisipe. Elkar.



Argazkia: Pedro Sanchez Davoseko Foro Ekonomikoan 2020an. CC BY-NC-ND 2.0

munduko lapurren historian, XIX mendeko *kapitalismo liberal lehiakorrek*, ipar globalean esplotazio industrialarekin lapurtzen zuena, erabat uztarturik zegoela munduko hegoalde eta lurrareskiko gabetze kolonialarekin, lapurtzen zuela ere lan (erre)produktiboak³ eremu pribatuan (familian) eta dohainik egitearekin eta, estatuen albo begiradarekin.

XX. mendean aldaketa batzuk etorriko ziren. *Estatuak gobernaturiko kapitalismoan*, munduaren iparraldean esplotazio industrialak jarraitu zuten, lurrareskiko eta hegoaldearen

gabetze postkolonialarekin batera. Dena den, bizitza posible egiten duten lanen bidezko lapurretan aldatuko da zerbait. Kasu honetan moldaketa horiek ulertzeko bi faktore kontuan hartu beharko dira: Batetik, mundu mailako alternatiba sozialista errearen erreferentziak bultzatuko du sistema kapitalista langileen zenbait eskubide sozial onartzera. Bestetik, aurreko hamarkadetakoa zaintza krisiaren eraginez eta han-hemengo borroken lorpenez, estatu kapitalistek lan (erre)produktibo batzuk bere gain hartuko ditu Ongizate

Estatuaren forman. Hala ere, oraindik orain, bizitza duinak posible egiteko lan asko, familiaren baitan (emakumeen bizkar) geratu ziren. Natur baliabideen ustiapena areagotu zen, kolonialismo berriak kolonialismo zaharra ordezkatu zuen, aurpegi ezberdinarekin baina helburu berarekin eta ongizate estatua izanik ere, diru publikoaren lapurreta amaitu zenik ezin esan.

Eta zer gertatzen da gaur egun? Berririk ez zeru azpi honetan. Lapurtzen jarraitzen dute, lapurtzen zaigu herriei, lapurtzen zaigu emakumeei,

³ Zaintza lanei erreferentzia egiteko erabiltzen dira bi terminoak: lan erreproduktibo eta lan produktibo. Laburrean, autore batzuk lan erreproduktibo hitza erabiltzen dute, bizitza posible egin ahal izateko beharrezko lanak barne bildu eta osterantzeko lan produktiboetatik (hots metaketaren logikan egin daitezkeen lanetatik) bereizteko. Jule Goikoetxea pentsalarik feministak aldiz, eztabaidagai jarri du erre- aurritzia eta bereizteak dakarren aitortza eza, lan horiek jendartearen produktiorako ezinbestekoak direla argudiatuz. <https://www.berria.eus/paperekoa/1832/016/003/2017-12-28/marxen-kapitala-egungo-patriarkatuan.htm>. Eztabaidari egin nahi diogu erreferentzia parentesien erabilerarekin.

D4

lapurtzen zaigu langileoi, lapurtzen diogu lurrari, lapurtzen diogu hego globalari... Egungo *finantza kapitalismo global* deiturikoan, lantokiak eta esplotazioa munduko hego-ekialdera eramane (baita Euskal Herritik ere) eta gure herriko aberastasuna saltzen ari dira jada aberatsak diren arrain handi horiei (Euskaltel⁴, Gamesa⁵ edo BM supermerkatuak⁶ horren adibide). Lapurreta postkolonialak eta lurrari lapurtzen diogunak mugarik ez balute bezala jarraitzen dute (gasa, petrolioa, ura, lehengaiak... nondik eta nola dakartzaguz?). Lapurretek ez dute etenik.

Era berean eta gurean ere, bizitza duina posible egin ahal

Natur baliabideen ustiapena areagotu zen, kolonialismo berriak kolonialismo zaharra ordezkatu zuen, aurpegi ezberdinarekin baina helburu berarekin eta ongizate estatua izanik ere, diru publikoaren lapurreta amaitu zenik ezin esan.

Zaintza krisia. Geure burua zaintzeko, besteak zaintzeko edo zainduak izateko izugarritzko zailtasunak ditugu.

izateko beharrezko ditugun lan (erre)produktibo, ongizate eta komunitatearen eremuan, negozioa egiteko nahiak aurrera darrai. Hemen ere lapurreta xorro-xorro egunerokoa da. Enpleguen prekarizazioak, geroz eta zaharragoa den herri baten beharrek, bizitzaren garestitzeak, eredu *familiaristak*⁷ (eta gizonen hutsuneak), legedia arrazistak, etxebizitza, aisia edo osasunarekin negozioa egiteko nahiak... geroz eta zailagoa egiten dute bizitza duina bermatzea. Zaintza krisia. Geure burua zaintzeko, besteak zaintzeko edo zainduak izateko izugarritzko zailtasunak ditugu⁸.

Azken urte hauetako joera ekonomiko, sozial eta demografikoak horien gaineko

erabaki politiko suizidekin elkartzen ari dira. Kapitalaren zorrak “erreskate” moduan denon artean ordaindu eta irabaziak aldiz pribatizatzen ikusi berri dugu. Berriz ere asko gabetu eta desjabetu, gutxi batzuk jabetzeko, aberasteko. Oinarritzko zerbitzu publikoen kasuan ere, ezin zalantzan jartzekoa da norabide kezkarria: murriztu eta pribatizatu ahal den oro. Asteon ikusi bezala, euskal autonomia erkidegoko osasun kontseilariak zentzu horretan aurreratu digu lapurretaz, egun argiz eta mikroetatik. Osasun zentroetarako *desplazamenduak handitzea*⁹ eta *itxieren*¹⁰ berri eman zuen, non eta farmazeutika pribatuek antolatutako enkontru batean,

enegarrenez herritarrengan jarriz ardura, *kultura aldaketa* behar omen dugu eta mediku falta dago. Baina ez da gaurko erabakia soilik. Urteak dira ongizate estatua eraisten eta, hein berean, pribatizatzen ari direla.

Esparruen arteko harremana ukaezina da beraz. Produkzioak zer ikusia du pribatuan egiten diren lanekin, era berean zerikusia du planetarekiko dugun harremanarekin eta, nola ez, zerikusia du eta harremanetan dago eremu publikoak duen nolakotasunarekin. Areago, gehienetan, beti ez esatearren, beste esparruen mesedetan aritu izan dira (lapurtuak izan dira) familia, komunitatea, lurra, hegoaldea... edo sistema publikoa. Lapurtzen da sistema publikotik ere. Oso urruti, beraz, askotan izendatu ohi den *laissez faire laissez passer* famatutik, edo esku ikusezinaren irudikatze eta ulerkuntzatik: *utzi dezagun ekonomia bere izate naturalean, orekatzeko berezko ahalmena omen du*. Erabili ohi duten diskurtsoaren kontrara, ez ekonomiak ezta sistema publikoak berak ere ez dute izate natural, objektibo edo betiereko bat. Azaldu berri dugun lapurren kontakizunean ikusi bezala, dispartarako eremuak dira kapitalismoaren baitan ere.

Noski, disputa eremua da sistema publikoarena, demokratizatorako ala pribatizatorako joera emango zaiona, justizia sozialerantz ala aberastasunaren metaketarantz tiratu daitekeena, gehiengoa gabetzearen eta gutxiengoa jabetzearen alde ala gehiengoa jabetzearen alde jarriko duena.

Gehiengoa gabetzea, gutxiengoa jabetzea eman dadin. Lapurrek denona beharko lukeen hori lapurtzen digute, egun argiz. Euskaltel, Kutxabank eta Hilton luxuzko hotel berria Donostiako arte ederren eraikinean, erresidentzietako zaintzaren bizkar negozioa, pandemia garaiko diru laguntza ikaragarriak (hori bai, enpresentzat)... haiek lehiatzen ari dira sistemaren baitan, lehiatzen ahal dutena osteko, ebasteko, lapurtzeko denona dena (ez)jabetzeko. Esan dugun moduan lapur banden istorioa aspaldikoa da eta zaharra izanagatik ere, gaurkotatutako galdu ez duela ondorioztatu dugu. Lapur banden jarduera, gainera, ez da esparru batetara mugatzen, ez eta agerikoa den harrapakinarekin konformatzen. Eta guk zer egingo dugu?

Gehiengoa jabetzearen alde. Gure garaiko galdera izango da (iraganean hein batean izan bezala): Nola jarri gehiengoaren bizitza duina oinarrian? Nola (ber)banatuko dugu? Nola arduratu? Ezin diogu muzin egin publikoaren denaren disputari. Zentzu demokratizatzaile eta sozialean tiratu beharko da, gaur eguneko (*zergatik dagoen horrela eta ez beste modu batez*) problematizatuz eta oraindik irudikatzen ez dugun horretaz galdekatzuz: Zergatik bankuak “erreskatatu” eta ez jendea? Zergatik ez ditugu berreskuratzen banku publikoak? Zergatik ez ditugu oinarritzko baliabide naturalak publiko egiten, denona beharko lukeena denona egiten? Zergatik eoliken aldeko apustua gurean eta ez eguzki energiaren alde edo

Azken urte hauetako joera ekonomiko, sozial eta demografikoak horien gaineko erabaki politiko suizidekin elkartzen ari dira.

Oinarritzko zerbitzu publikoen kasuan ere, ezin zalantzan jartzekoa da norabide kezkarria: murriztu eta pribatizatu ahal den oro.

⁴ Naiz [2021] “MásMóvil se hará con Euskaltel tras lanzar una OPA sobre el 100% de sus acciones” <https://www.naiz.eus/eu/info/noticia/20210328/masmovil-se-hara-con-euskaltel-tras-lanzar-una-opa-sobre-el-100-de-sus-acciones>

⁵ El economista [2017] “Siemens cierra la compra de Gamesa y crea el segundo fabricante eólico mundial” <https://www.economista.es/energia/noticias/8269473/04/17/Siemens-cierra-la-compra-de-Gamesa-y-crea-el-segundo-fabricante-eolico-mundial.html>

⁶ Expansión [2021] “PAI Partners compra Uvesco, la dueña de BM Supermercados” <https://www.expansion.com/empresas/2021/12/22/61c2f179468aeba82a8b4592.html>

⁷ Goikoetxea, J., Lujánbio L., Rodríguez Z. eta Garai E. [2020] Euskal Demokrazia Patriarkala. Eztabaida. Elkar.

⁸ Aranguren M. [2021] Itotzen gaituzten krisiak eta arnasa ematen diguten sareak. Iratzar -UEU ikastaroa. <https://www.youtube.com/watch?v=8b9l75fQfVU>

⁹ Diario.es [2022] “Euskadi prevé que la escasez de médicos obligará a desplazarse más lejos para ir al ambulatorio” https://www.eldiario.es/euskadi/euskadi-preve-escasez-medicos-obligara-desplazarse-lejos-ambulatorio_1_9065422.html

¹⁰ Deia [2022] “La falta de médicos en Euskadi obligará a desplazamientos entre ambulatorios y algunos cierres en verano” <https://www.deia.eus/actualidad/sociedad/2022/06/08/sagardui-osakidetza-ofrece-condiciones-carta/1227269.html> Edo hurrengo egunean on bidean jarri nahian ordutegi murrizketa alpatu zuten Diario Vasco [2022] “Sagardui asegura que este verano «no se van a cerrar ambulatorios» sino que «se ajustarán horarios»” <https://www.diariovasco.com/sociedad/salud/sagardui-medicina-desplazamientos-20220609103845-nt.html>

Gehiengoa gabetzea, gutxiengoaren jabetzea eman dadin.

Euskaltel, Kutxabank eta Hilton luxuzko hotel berria Donostiako arte ederren eraikinean, erresidentzietako zaintzaren bizkar negozioa, pandemia garaiko diru laguntza ikaragarriak (hori bai, enpresentzat)...

Nola jarri gehiengoaren bizitza duina oinarrian? Nola (ber)banatuko dugu? Nola arduratu? Ezin diogu muzin egin publikoa denaren disputari.

Zergatik bankuak “erreskatatu” eta ez jendea? Zergatik ez ditugu berreskuratzen banku publikoak?

Jokoan dagoena da ordea, noren mesedetan arituko den sektore publikoa, lapur bandaren mesedetan ala mendeetan lapurtuak izan garenon zerbitzura.

Ez da existitzen berezko eta betiereko kapitalismoa, ezta momentuz guk nahiko genukeen jendarte berria ere. Kontua da, guk nora tiratuko dugu? Lapur banden aldera ala denon artera?

energia iturri ezberdinen alde? Zergatik enpresa pribatu batek (edo bik) erabaki behar du gure trantsizio ekologikoa? Zergatik honek ere ezin du publikoa izan, berriz ere? Zergatik ez dugu erresidentzien negozioarekin bukatu eta zaintza sistema publiko (eta komunitarioa) eraikitzen? Zergatik ez dugu kalitatezko garraio publikoa bermatzen? Zergatik ez telekomunikaziorako enpresa publiko komunitarioak? Zergatik ez dute gehiegi dutenek gehiago ordaintzen denona dena hobe izan dadin? Zergatik ez dute gehiegi dute gehiago ordaintzen? Eta hori erabiltzen hezkuntza eta osasungintza publiko eta unibertsal eraberritu eta indartsu bat hedatzeko? Zergatik ez ditugu alokairuzko etxebizitza publikoa eraikitzeko erabiltzen? Oro har, beraz, zertarako sektore publikoa eta nolakoa?

Zibilizazioa krisian gauden garaia, erronka garaia ere bada. Askotariko krisien garaia da eta jakin badakigu sektore publikoak zeharkatuko ditu bai krisi ekologikoaren, bai zaintza krisiaren baita krisi ekonomikoaren norabidea. Jokoan dagoena da ordea, noren mesedetan arituko den sektore publikoa, lapur bandaren mesedetan ala mendeetan lapurtuak izan garenon zerbitzura. Berriz ere, disputatu behar dugu publikoa den sistema horren izaera demokratizatzaile eta soziala. Mundu ordena bera disputatzeko anbizioa berreskuratu behar dugu. Ez da existitzen berezko kapitalismoa edo *bere hartan*, ez baldin bada mundu ordena oso bat. Mundu ordena oso bat, globala dena eta une berean

lokala dena, publikoa dena eta pribatua, harremanak bustitzen dituen, kontsumo eredua eta habitusak irakasten dizkiguna... Fraserrek ondorioztatzen du ere, horietatik, ordena horien mugetatik, hain zuzen ere eratortzen direla krisiak baina baita ere eraldaketarako aukerak.

Beraz, ezinbestekoa da guretzat horiek ezagutzea. Ezinbestekoa da distopiak bakarrik saltzen dizkiguten honetan aukerak eta abaguneak ere ikustea, disputarako irekitzen ari diren ateak bultzatzea, posible denaren mugak irekitzea¹¹, mundu berri bat irudikatzen eta eraikitzen jarraitzea. Ez da existitzen berezko eta betiereko kapitalismoa, ezta momentuz guk nahiko genukeen jendarte berria ere. Kontua da, guk nora tiratuko dugu? Lapur banden aldera ala denon artera?



Argazkia: William Gibson, Unsplash

¹¹ Garces, M. (2022) En las prisiones de lo posible. Hacia una nueva radicalidad. Traficantes de sueños. https://soundcloud.com/traficantesdesue-os/en-las-prisiones-de-lo-posible-hacia-una-nueva-radicalidad-con-marina-garces?utm_source=clipboard&utm_medium=text&utm_campaign=social_sharing

D5 QAnon, conspiración y negacionismo en la tormenta perfecta de la extrema derecha



Galder Gonzalez Larrañaga
Editor de Wikipedia

erreportajea



D5

Jake Angeli, más conocido como el QAnon Shaman, se ha convertido en símbolo del grupo ultraderechista y conspiracionista QAnon, después del asalto al Capitolio de Washington realizado por los seguidores de Trump el 6 de enero de 2021. Foto: EFE

La industria del tabaco, y sus defensores, sentaron las bases para el descrédito de la ciencia con un arma novedosa: la duda.

Toda esa maquinaria está, ahora, luchando para sembrar dudas sobre el cambio climático.



El negacionista Piers Corbyn en una protesta contra las medidas sanitarias en Londres.
Foto: Ehimetalor Akhere, Unsplash

LIBERTAD INDIVIDUAL

Si hubiera escrito este texto hace unos meses, seguramente habría comenzado explicando que es Q, que relación tiene con ciertos movimientos que estamos viendo en nuestro entorno, y por qué nos tiene que importar. Pero en este tiempo he leído el libro “Los mercaderes de la duda” de Naomi Oreskes y Erik Conway, y creo que debemos empezar por el principio. Ya pasaremos luego a lo inmediato.

Oreskes y Conway demuestran, con miles de datos y documentos, cómo la industria del tabaco diseñó un entramado de relaciones públicas para intentar demostrar que el cáncer que su producto creaba podría haber sido causado por cualquier otro factor. Pagando estudios científicos, consiguieron tener pruebas para poder crear una duda razonable. La industria del tabaco, y sus defensores, sentaron las bases para el descrédito de la ciencia con un arma novedosa: la duda. El ruido, que impide ver cuál es el consenso científico, hacía que su negocio fuera rentable durante muchos más años.

La trama de asesores científicos, empresas de comunicación y personalidades políticas creada para este fin fue utilizada después en todas y cada una de las batallas en las que el poder público no tuvo más remedio que tomar medidas

que dañaran a las empresas privadas: la lluvia ácida, el humo de segunda mano, el agujero de la capa de ozono o el desarme nuclear son algunos de los lugares comunes donde las mismas personas aparecieron, vendieron duda, y atrasaron la toma de decisiones en nombre del debate científico. Toda esa maquinaria está, ahora, luchando para sembrar dudas sobre el cambio climático.

Está una de las batallas clave: la necesidad de tomar decisiones colectivas que no nos condenen a la destrucción de nuestra salud y nuestro Planeta choca directamente con la libertad individual de hacer lo que nos dé la gana. Prohibir fumar dentro de una escuela infantil choca con la libertad de las personas fumadoras. Limitar la emisión de CO2 choca con la libertad empresarial. Es un choque entre mi derecho a hacer lo que quiera y mi obligación de responder ante la sociedad. Los mismos argumentos utilizados para negarse a usar mascarillas se pueden leer en un panfleto de la asociación FOREST (Freedom Organisation for the Right to Enjoy Smoking Tobacco) en defensa del tabaco... hace 30 años. Permitir al estado limitar dónde puedo fumar o si debo cubrirme la boca durante una pandemia abre la puerta al comunismo. No en vano, toda esa trama es hija de la Guerra Fría y su anticomunismo.



El caso del tenista Novak Djokovic en Australia encendió la protesta por la doble vara de medir hacia los inmigrantes en general y el trato privilegiado ofrecido al tenista.
Foto: Matt Hrkac, CC BY 2.0

La necesidad de tomar decisiones colectivas que no nos condenen a la destrucción de nuestra salud y nuestro Planeta choca directamente con la libertad individual de hacer lo que nos dé la gana.

Toda esa trama es hija de la Guerra Fría y su anticomunismo.

D5”

Esta “élite”, a los que llaman “globalistas”, por no gastar el término “judío” o “masón”, quiere, directamente, matarte. Es la base de la idea que hay detrás de Qanon.

GLOBALISTAS, MASONES, JUDÍOS Y LA ÉLITE

Si en un discurso público uso varias veces la palabra judío, es posible que le piten los oídos a quien lo recibe. Por eso la extrema derecha ha variado la manera de decir lo mismo, de imaginar un enemigo exterior que quiere acabar “conmigo”, con un “nosotros” proyectado. Es un discurso de “ellos” contra “mi”. El comentarista ultraderechista Tucker Carlson, con su programa en prime-time, se ha convertido en un altavoz de esta idea: una élite

de multimillonarios con planes diabólicos para acabar contigo y tu manera de vida (cristiana, occidental, tradicional) e instalar un gobierno mundial comunista. Por loco te que parezca, cala. Este discurso de Carlson ha sido amplificado por canales negacionistas locales en todo el mundo.

Esta “élite”, a los que llaman “globalistas”, por no gastar el término “judío” o “masón”, quiere, directamente, matarte. Es la base de la idea que hay detrás de QAnon, la teoría

de la conspiración de mayor crecimiento en la última década. ¿Qué son los “globalistas”? Imposible de limitar. Básicamente, son “ellos”, los que van contra “ti”. En la narrativa Q los globalistas son aquellos que quieren un gobierno global para imponer sus políticas, sean las que sean. Es obvio que cualquier suceso que te afecte a “ti” en cualquier lugar del mundo ha sido creado directamente por “ellos”. Los defensores de Q y otras variantes de extrema derecha consideran que entre sus objetivos está imponer



Tucker Carlson es un comentarista político ultraderechista, uno de los altavoces más importantes de las teorías de la conspiración en Estados Unidos. Foto: Wikimedia Commons

Frente a estos “globalistas” aparecen, aquí y allí, los “patriotas”, aquellos que defienden “tu” modo de vida frente a “ellos”.

Tu gente de referencia, esa que no ha “despertado”, también es parte de la trama. Te han traicionado. Te han vendido. No son “tú”. Así, logran la parálisis.

una agenda política mundial (que acabe con tus libertades), homosexualizar a la población, promover el aborto entre los occidentales, reemplazar a las poblaciones blancas y cristianas por migrantes o, directamente, promover un genocidio mediante vacunas.

Frente a estos “globalistas” aparecen, aquí y allí, los “patriotas”, aquellos que defienden “tu” modo de vida frente a “ellos”. En la narrativa milenarista y mesiánica de Q, la Segunda Venida de Cristo está representada por Donald Trump, que quiere salvar al planeta de una élite comunista-masónica que trafica con niños y se bebe su sangre para permanecer siempre jóvenes. “Defender a los niños” es una de las ideas más repetidas por QAnon. Bolsonaro, Orban, Abascal, Le Pen o Putin son, claro está, “patriotas” que hacen frente a esta amenaza globalista.

Esta idea es paralizante para cualquier militante de izquierda. Simplificando: cualquier suceso, también aquel en el que yo participe, es parte del plan de la élite. Por ejemplo, todos los que digan que, efectivamente, existe un virus, que es contagioso,

que es mortal y que lo mejor es tomar medidas profilácticas para combatirlo son, por defecto, comprados por esa élite. Una élite con recursos infinitos, poder infinito y capacidad infinita para comprar a millones de militantes, médicos, periodistas, científicas, partidos y sindicatos en todo el mundo. Tu gente de referencia, esa que no ha “despertado”, también es parte de la trama. Te han traicionado. Te han vendido. No son “tú”. Así, logran la parálisis.

CONTRAPODER Y ALTERNATIVA EN LA PERDICIÓN DE LA IZQUIERDA

Sería largo de explicar cuando las ideas de contrapoder y glorificación de lo alternativo calaron en la izquierda, pero nos ha arrastrado hasta aquí. Existen discursos que, sin pretenderlo, plantean que el lugar natural de la izquierda es hacerle frente al poder, en lugar de conquistar el poder. La conquista del poder, como tal, se considera una aberración, ya que el poder corrompe, el poder envilece. El poder, como tal, es visto como algo no deseable, incómodo, contradictorio. La posición de la izquierda, proclaman, es hacer frente al poder. A todo poder.



Una seguidora de Trump con una foto de Jesucristo en el asalto al Capitolio de Washington el 6 de enero de 2021. Foto: Tyler Merbler, CC BY 2.0

D5

Existen discursos que, sin pretenderlo, plantean que el lugar natural de la izquierda es hacerle frente al poder, en lugar de conquistar el poder.

Sería interesante analizar como la búsqueda de una idea alternativa nos ha alejado de la lucha por la hegemonía.

La extrema derecha se ha erigido en la alt-right, la derecha alternativa. Una derecha a la que no le tiembla el pulso en erigirse en lo más alternativo que existe, en el contrapoder definitivo.

El ecologismo, el feminismo o las luchas LGTB son, también, agenda globalista.

Construir alternativas, modos de vida en el que se dé solución individual a la asfixiante opresión de este sistema capitalista, es otro de los tótem adoptados por la izquierda en las últimas décadas. Y es lógico. Al fin y al cabo, desde que Thatcher proclamara que “no hay alternativa”, hemos intentando demostrar que la hay. Hasta tal punto que cualquier cosa que lleve la bandera de “alternativo” es más deseable que la oficial. De esta manera, la medicina y la educación alternativa es mejor que la pública; la verdad alternativa es algo a lo que aferrarse; la cultura alternativa es mejor que intentar ser cultura hegemónica. Lo alternativo/individual, frente a lo público/colectivo. Sería interesante analizar como la búsqueda de una idea alternativa nos ha alejado de la lucha por la hegemonía.

De esta manera, la extrema derecha se ha erigido en la alt-right, la derecha alternativa. Una derecha a la que no le tiembla el pulso en erigirse en lo más alternativo que existe, en el contrapoder definitivo. Una alt-right en auge, defendiendo una manera de vivir que se extingue frente a “la dictadura de lo políticamente correcto”.

Y la izquierda, precisamente cuando ha conseguido que algunas de las luchas que ha mantenido en las últimas

décadas se conviertan en hegemónicas, abraza el contrapoder y la verdad alternativa porque no se fía de la hegemonía que ella misma ha construido, no se fía de su propio poder, de su propia victoria discursiva. Si la ONU reconocen, en sus objetivos para 2030, que hay que hacer frente a la emergencia climática, que es hora de acabar con la discriminación de la mujer o que a nadie se le puede excluir por su orientación sexual... entonces ser alternativo, ser contrapoder, es hacerle frente a esta idea. El ecologismo, el feminismo o las luchas LGTB son, también, agenda globalista.

EL NEGACIONISMO EN CASA

Labirinto hori bailitzan, betikoa den istorioa errepikatzen da hemiziklo horretan. 1978tik aurrera, etengabe, tribunatik gaur egungo Estatuaren muina eta bizkarrezurra dena agertzen baita behin eta berriro.

Hamarkadetan zehar Euskal Herriko ezker abertzaleak bakarrik deitoratu eta zalantzan jarri du 'Trantsizio eredugarriak' benetako demokrazia

batera eraman zuela Espainiako Estatu. Francoren erregimena bukatu zen, bai, baina frankismoa ez zen 78an bukatu. Tirabira eta konfrontazio horretan gauzatu dira azken hamarkadak eta, gaur egun oraindik, horixe da bizi ditugun hainbat egoeren sustraietan dagoena.

Eta, froga modura, azken boladan gertatuko aipamen bat besterik ez: Pegasus auzia, independentismo politikoki zelatatu eta modu masiboan arakatzeko gobernuaren erabakia, 78ko erregimenaren segida balitz bezala.

Itxuraz gaurkotutako bernizarekin ageri den erregimenaren zutabeak zutik darrai, betiko izpirituak mugiarazten baitu Estatu sakona, betiko tresna, ohitura eta trikimailuak erabiliz.

Bigarren adibide bat: justiziatik ihes egin dezakeen erregea, ezertxo ere gertatu ez balitz bezala lasai ederrean itzuli daitekeena... Are gehiago, Espainiako herritarrei egindako iruzurraren aurrean, zurituta eta goraipatua agertzen dena komunikabideen laguntzari esker. Erregimenaren zutabeak biak ala biak, oraindik ere zutik dirautenak.

Trantsizioaren errelatoaren inguruko borroka da jokoan dagoena, orain artekoak ez baitu balio. Trantsizioaren errelatoa da gaur egun guda ideologikoaren joko-zelaiaren erdigunean dagoena. Eta 78ko erregimena sostengatu duten alderdiek —PSOEek barne, askotan PP eta PSOEren arteko norgehiagokan zaila baita bereiztea nor den defendatzaile sutsuena—urteotan gertatu diren eskubideen urraketa izugarrien kontakizun zuritua mahaigaineratu dute. Ez soilik Trantsizio garaia iruzurtzat jotzen dugunoi arrazoia kentzeko, baizik eta haien errugabetasuna bermatzeko.

Kontua da 78ko erregimenaren gorazarre unibertsal lausotu egin dela, eta ispilu hautsia berrosatzeko aukerarik ez dagoela jada. Gauzak inoiz ez dira iraganean bezalakoak izango; izan ere, ispiluaren zatiak itsatsi daitezke, baina pitzadurek hortxe jarraituko dute betiko.

Francoren erregimena bukatu zen, bai, baina frankismoa ez zen 78an bukatu.

Beste zerbait ere aldatu da legegintzaldi honetan. Inork espero ez zuena gertatu da bi urteotan: PSOE eta Unidas Podemosen gobernuaren osaketa eta bloke aurrerakoien agerpena, gobernuaren jarduna mantentzeko eta ezkerrera egin dezala bultzatzeko indar erabakigarria duena. Berritasun historiko bat, bai. Lehenbiziko aldiz, Espainiako Gobernu aurrerakoa osatzea lortu da alderdi independentisten babesari esker. Baina ez soilik independentisten sostenguarekin, ezkerreko independentistekin baizik. Eta hori ez da aldagai makala, inondik ere.



78ko erregimena sostengatu duten alderdiek urteotan gertatu diren eskubideen urraketa izugarrien kontakizun zuritua mahaigaineratu dute.

Lehenbiziko aldiz, Espainiako Gobernu aurrerakoia osatzea lortu da alderdi independentisten babesari esker.

Bi aukera besterik ez daude: auziaren ukazioan tematzea, inboluzio eta autoritarismoaren bidezidor traketsa hartuz eta orain arteko bidean sakonduz; ala Estatuaren behin betiko demokratizazioa ekarriko duen pasabideari ekitea.

Trantsizioaren azpiko oinarrietan lurraldetasunaren auzia beti egonagatik, gaur egun inoiz baino agerikoagoa da Estaturik gabeko nazioen konpondu gabeko auzia dagoela 78ko erregimenaren krisiaren muinean. Funtsean, agintariak lurralde auziari ematen dioten erantzunaren arabera izango delako irteera. Bi aukera besterik ez daude: auziaren ukazioan tematzea, inboluzio eta autoritarismoaren bidezidor traketsa hartuz eta orain arteko bidean sakonduz; ala Estatuaren behin betiko demokratizazioa ekarriko duen pasabideari ekitea, zaila dirudien arren fruitu emankorrak eman ditzakeena, urteotan galdutako eskubideak berreskuratzeko aukera eman dezakeena. Azken bide hori Estaturik gabeko nazioetako ezkerreko in-



dar independentisten laguntzarekin soilik eraman daiteke aurrera.

Hori da Pedro Sanchezek aurrean daukan labirintoa. Hain gustuko zuen geometria mugikorraren zutabea (Ciudadanos) betiko hautsita dagoenez, PPrekin akordioak egiteko arriskua dago orain, jakinik PPrekin itunak egitea atzera egitearen parekoa izango litzatekeela; erabaki horrek Sanchez galbidera eramango luke, eta labirintoan betiko galduta geratuko litzateke.

Beraz, lurralde auziaren irteerak zerikusi handia du arestian aipatu dudan Michael Enderen labirintoarekin. Geroz eta mundu nahasi, ezegonkor eta

ziurgabeago honetan —Ukrainako gerraren ondorio sozioekonomikoez ez dute leunduko egoera—, hartu beharreko bidean dago koska. Azken finean, berriro ere literaturaren argudioak erabiliz, Aliciaren katuak zioen bezala, bidea aukeratzea ez da horren konplikatu, nora joan nahi duzun badakizu.

Horixe da, hain justu, Estaturik gabeko nazioetako indar independentisten alde dagoena: nora joan nahi dugun badakigula, norabidea argi eta garbi daukagula. Horretan datza gure indarra. Horretan eta 78ko erregimenaren gainbehera, ispilua jada zatitua duelako.



FRANTSES ESTATUKO LURRIKARA POLITIKOAREN UHINA



Txomin Poveda
Sortuko kidea



Fronte Nazionalaren mitina 2012an. Argazkia: Blandine Le Cain, Wikimedia Commons

Azken urte honek, Frantses Estatuko egoera politikoan lurrikara sakon bat sortu du. Izan ere, bi hauteskunde garrantzitsuenak iragan berri dira hilabete hauetan. Lehenak, Emmanuel Macron beste behin lehendakaritza kargua erdiestera eraman du. Bigarrenak, aldiz, Asanblada Nazionaleko 577 diputatu eserlekuak bete berri ditu, lehendakaria bera gehiengo absoluturik gabe utziz.

Agertoki horrek epe ertain-luzean aukera politiko garai oparoa ideki liezaioke Ipar Euskal Herriko mugimendu abertzale ezkertiar ekologista eta feministari.

Sekuentzia horrek oso sakonki eraldatu egin du Frantses Estatu mailako agente politikoen panorama eta, bide beretik, Ipar Euskal Herrian gure borroka garatzeko baldintzak. Oroz gainera, agertoki horrek epe ertain-luzean aukera politiko garai oparoa ideki liezaioke Ipar Euskal Herriko mugimendu abertzale ezkertiar ekologista eta feministari.

LURRIKARAREN EPIZENTROA

2017ko lehendakaritza hauteskundeetatik agertzen zitzaizkigun failak konfirmatu dira. Hain zuzen, urte luzeetan, UMP eta PS alderdiek hezurmamitzen zuten espektro politikoa erabat zartarazi zen 2017an Macronek garaipena lortu zuenean. Ordurako, magnitude handiko lurrikara izan zen, zirt-zart lortu baitzuen bere bi alboetan kokatutako eskuin eta ezker liberalak irenstea, zentro hegemoniko bat eratuz.

Agintaldian zehar, posizio hegemoniko hortatik gogorki eramandako neurri antisozialek, bozkatzailleak muturren besoetara igortzea izan du ondorioztat; batez ere, azkarki normalizatzen ari den eta hegemonia kulturala bereganatzen ari den eskuin muturrarenera.

2017an, sozial-liberalismora jo zuen frantses alderdi sozialistaren erroreraren lekuko izan baginen; aldi huntan, eskuin kapitalista-tradizionalaren txanda izan da. Bere bozkatzailleak eta kuadro politiko gehienek zentro liberalaren hautua egin dute baina kopuru geroz eta handiagoak eskuin muturreruntz salto egiten du. Eskuin muturrak sekuentzia oparoa ezagutu du, bai bozen hazkundera, bai eta RN alderdiaren diputatuen gorakadan.

2017an, sozial-liberalismora jo zuen frantses alderdi sozialistaren erroreraren lekuko izan baginen; aldi huntan, eskuin kapitalista-tradizionalaren txanda izan da.

Xake-taularen beste aldean, ezkerrek, lehendakaritza hauteskundera irabazi-ezinen aurrean, beste partida bat jokatu du: ezkerreko blokeoaren lidergoarena. Hautagaitza pletoriko eta bananduen artean, LFiko Mélenchonek jakin izan du gazteriarrengana iristen, klima aldaketaren erronka bereganatzen eta eredu liberal-kontserbazionistak bazterturiko publikoak hunkitzen. Bigarren itzulian kokatzeko aukeraz baliaturik, “bozka baliagarria”ren efektua bere mesedetan aritu da ezkerreko lidergoa eskuratzera. Posizio hortatik, LFiko indarrek pentsaezina lortu dute xake mugimendu guttitan, legebiltzarrei begira ezkerreko blokeoa batuz NUPES koalizioaren baitan. Azken horrek efektu mediatiko azkarra izan badu, frantses ezkerreko hauteslean sortu zituen espektatibak ez ditu bete.



Argazkia: Pierre-Selim, CC BY 2.0

Hiru bloke nagusiz osatutako panorama politikoa egonkortzen ari zaigu beraz Frantziar Estatuan: ezker muturra, eskuin muturra eta muturreko zentro bat. Asanbladan, gehiengo absoluturik gabe, negoziaketarako eta akordioen aroa idekiko da. Hortan, nekez bizirauten ari den eskuin liberal-tradizionalak paper zentrala izan dezake.

IPAR EUSKAL HERRIKO UHINA

Ipar Euskal Herrian, berriz, beste mota bateko atxikimendu politiko bat ageri zaigu.

Zentroko blokeoak, hegemonikoa izaten segitzen du. Lehendakaritzan, Macronek aldeko boza lehen indar gisa ateratzen da. Biarneseko Jean Lassallek, egiazko atxikimendu bat ezagutu zuen ere. Legebiltzar hauteskundeetan beste behin

konfirmatu da joera hau, zentroko hautagaiak lehen indarrean ezarriz Ipar Euskal Herriko eremuan.

Eskuin muturrak ezagutu duen gorakada oso kezagarria da Ipar Euskal Herrian. Gehien hazten ari den indarra da nahiz eta, ohikoa den bezala frantses estatuari konparatuz, hemen atxikimendu askoz apalagoa izaiten segitzen duen.

Ezkerrean, lehendakaritza hauteskundeetan, Jean Luc Mélenchonek “bozka baliagarria”ren mesedea lortu badu, 2017ko hauteskundeekin konparatuta, LFiren emaitzek atzerakada bat ezagutu dute gure herrian. Legebiltzarretan ere, NUPESeko ezkerreko blokeoak, 2017an ezkerreko indar barreiatuek lortu zuten emaitza

LFiiko indarrek pentsaezina lortu dute xake mugimendu guttitan, legebiltzarrei begira ezkerreko blokeoa batuz NUPES koalizioaren baitan.

Hiru bloke nagusiz osatutako panorama politikoa egonkortzen ari zaigu beraz Frantziar Estatuan: ezker muturra, eskuin muturra eta muturreko zentro bat.

baino apalagoa atera du. Lurrean sustraitze faltak eta herri prozesuekiko epeltasunek, ezker frantsesaren dinamika motz utzi dute.

EH Baik, baldintza berezi hautean, bere hazkundera segitzen du. Ezkerreko blokeoaren bozka baliagarriaren kaltea sufritu badu ere, frantses erronketan kokatutako hauteskunde legegileen, emaitzak azkartzen ditu toki guzietan eta batez ere hain zaila zaigun Baiona inguruan. Tokiko gaiak eztabaida erdian kokatzen jakin du eta lurraldeko ezkerreko lehen alderdi gisa indarturik ateratzen da.

Ororen buru, hamarkada luzeetan, Ipar Euskal Herrian hainbat gotorleku politiko gaketzen zituzten ezker edo eskuin frantseseko betiko ordezkari klasikoak, aparatu politikorik gabe gelditzen ari dira frantzian gertatu den lurrikara politikoaren ondorioz. Estatu mailako alternantzia politikoa lehiatzen duten ezkerreko eta eskuineko muturreko lider berriek, gaurkoan, ez dute baldintzarik erakusten Ipar Euskal Herrian egiazko dinamikarik ezagutzeko. Lurrean mailako ondoko hauteskunde hitzorduetan aukeraz beterik dugu beraz Ipar Euskal Herriko abertzale ezkertiar ekologista eta feministen antolakunde politikoa den Euskal Herria Bai.

Eskuin muturrak ezagutu duen gorakada oso kezagarria da Ipar Euskal Herrian.

Lurrean sustraitze faltak eta herri prozesuekiko epeltasunek, ezker frantsesaren dinamika motz utzi dute.

EH Baik, frantses erronketan kokatutako hauteskunde legegileen, emaitzak azkartzen ditu toki guzietan eta batez ere hain zaila zaigun Baiona inguruan.



ELLES ET ILS ONT CONÇU UN PARLEMENT PROTESTANT POUR UN PEUPLE PROTESTANT ET SINN FÉIN A REMPORTÉ LES ÉLECTIONS



En www.erria.eus puedes leer la versión en castellano del artículo.



Igor Zulaika
Membre des relations internationales de EH Bildu

Argazkiak: Sinn Féin, CC BY 2.0

Les élections à l'Assemblée de Stormont se sont tenues le 5 mai. Sinn Féin a remporté 29 % des votes de première préférence et 27 des 90 sièges de l'Assemblée, ce qui en fait la première force électorale dans les six comtés d'Irlande du Nord.



Michelle O'Neil Arkaitz Rodríguez, Arnaldo Otegi eta Jean Guy Talamonirekin 2018an Sortuk Miribillan egindako Baietza Sortzen ekitaldian.
Argazkia: FOKU

Time for change. Tá sé in am don Athrú.



Michelle o'neil2_Sinn Féin_CC BY 2.0

Cette victoire électorale du Sinn Féin a marqué une nouvelle étape, car il s'agit d'une victoire qui n'aurait jamais dû être possible.

Cette victoire électorale du Sinn Féin a marqué une nouvelle étape, car il s'agit d'une victoire qui n'aurait jamais dû être possible, du moins pas selon les Britanniques qui avaient dessiné la carte de la ségrégation dans le nord de l'Irlande en 1921.

Sinn Féin a gagné 24 ans après l'accord du Vendredi Saint et à l'occasion du 41^e anniversaire de la mort de Bobby Sands en grève de la faim, deux événements qui ont marqué l'engagement du mouvement républicain irlandais sur les voies électorales et la transformation définitive du conflit.

Cette victoire représente un pas de géant pour Sinn Féin et semble être le prélude à une victoire électorale majeure dans le sud de l'île.

Face à ce résultat, le parti unioniste DUP a refusé, pour l'instant, de présenter un.e candidat.e pour le

Cette victoire représente un pas de géant pour Sinn Féin et semble être le prélude à une victoire électorale majeure dans le sud de l'île.

Il semble que la politique du DUP consiste à dire non à tout pour que tout reste pareil, dans une tentative désespérée de maintenir le *statu quo*.

poste de vice-premier.ère ministre et le reste des ministres, bloquant ainsi la formation d'un nouveau gouvernement et forçant les ministres actuels à rester en fonction avec des limitations importantes. C'est une attaque contre le résultat des élections et le processus démocratique.

Les raisons que le DUP a avancées en public ont trait au statut du Nord après le Brexit et au protocole qui en résulte pour l'Irlande, mais il semble que la politique du DUP consiste à dire non à tout pour que tout reste pareil, dans une tentative désespérée de maintenir le *statu quo*.

La position du DUP a permis au gouvernement britannique d'annoncer qu'il allait revoir l'application du protocole irlandais, ce qui pourrait conduire à une crise tant sur l'accord du Vendredi Saint que sur l'accord de retrait de l'UE.

Et nous ne trompons pas, en remettant en cause le protocole, ils veulent déplacer la frontière en mer d'Irlande et rétablir une frontière britannique sur l'île. Remettre en cause le protocole irlandais revient à attaquer directement l'accord du Vendredi Saint et le DUP comme le gouvernement britannique semblent déterminés à le faire.

Malgré tout, tout indique que le *statu quo* que l'unionisme souhaite maintenir est en train de disparaître. Le Nord de l'Irlande traverse une période de changement historique, l'épuisement et la division de l'Unionisme, le renforcement de figures comme le parti de l'Alliance qui défend une politique publique qui surmonte la division entre les communautés, le Brexit et ses conséquences, avec des secteurs de l'Unionisme civique valorisant l'unité de l'Irlande comme une option d'avenir en période d'incertitude... sont des symptômes des

Le Nord de l'Irlande traverse une période de changement historique, l'épuisement et la division de l'Unionisme, le renforcement de figures comme le parti de l'Alliance.

changements qui pourraient arriver. La société irlandaise, tant au sud qu'au nord, a évolué, les campagnes en faveur du droit à l'avortement, le référendum sur cette question dans la république, la mobilisation en faveur de la langue gaélique au nord, les mobilisations contre la commercialisation de l'eau... font que le message républicain et progressiste du Sinn Féin atteint de plus en plus de secteurs de la société.

Mais n'oublions pas que les processus ne sont pas linéaires et que les progrès réalisés ne sont pas consolidés en soi, nous devons travailler pour les renforcer et continuer à les défendre, et c'est le cas, ici et en Irlande.

Et en Irlande, Sinn Féin travaille. Michelle O'Neill a rencontré le Taoiseach (Premier ministre) à Dublin, et Nicola Sturgeon en Écosse. Elle continuera à



travailler comme elle l'a fait pendant la campagne pour s'affirmer en tant que Première ministre du Nord pour tous ses habitants, pour surpasser les différences et faire face à la situation de crise sociale, politique et économique.

La situation est complexe, ce n'est pas la première crise des institutions du Nord, mais c'est la crise la plus sérieuse et la plus grave depuis l'accord de 1998. Cet accord reconnaissait le droit du peuple irlandais à décider de son avenir constitutionnel et, dans la situation actuelle, de plus en plus de personnes, au Nord comme au Sud, comprennent que la réunification de l'Irlande est la meilleure solution pour leur avenir.

Cet accord reconnaissait le droit du peuple irlandais à décider de son avenir constitutionnel et, dans la situation actuelle, de plus en plus de personnes, au Nord comme au Sud, comprennent que la réunification de l'Irlande est la meilleure solution pour leur avenir.



Sinn Féin Stormonteko senatariak eta diputatuak.

**Cet article a été livré le 21 mai, 14e anniversaire de la mort de Brian Kennan, nous terminons par l'une de ses citations les plus connues "les lettres à "olentzero" sont pour Noël, les révolutionnaires doivent être pragmatiques".*

Energia trantsizioa Euskal Herrian: zenbaketa garbiak

Erria

Planeta 1´5 gradu baino gehiago berotzeak izango dituen ondorioak gizateriarentzat latzak izango direla irudikatzen hasiak gara gutxiako denok ere. Klima esponentzialki berotzea eragiten ari den CO2 gasen isuriak korrelazio zuzena du energiaren kontsumoaren gorakadarekin. Isuri horien %84 baliabide fosilek eragindakoa da. Europako Batasunak bere buruari jarritako erronkaren arabera, 2050erako energia fosilen erabilpena desagertu behar da. Horretarako estrategiak bi zutabe garrantzitsu ditu: efizientzia energetikoa biderkatzea eta berriztagarrien ekoizpena biderkatzea.

Auzia ez da hain sinplea ere, ordea. Egun kontsumoaren %23a soilik da elektrikoa. Ekonomiaren elektrifikazioa ezinbestekoa izango da baina gaur dugun energia kontsumo maila ezinezkoa da energia berriztagarriekin ordezkatzeko. Beraz, estrategia horrekin batera ezinbestekoa izango da sakoneko kultura aldaketa bat bultzatzea energia kontsumo murrizteko; horrek eragin zuzena du gure produkzio eta kontsumo ereduan, bizitzetan eta ohituretan. Kapitalismoa jasangaitza da eta deshazkundearen bidea jorratu beharko da derrigor. Aldiz, hori ez da bere kabuz etorriko. Trantsizioa egin egin behar da eta horretarako proposamen politiko sendoa behar dira eta kontraesan ugari kudeatu beharko ditugu.

Erronkaren tamaina itzela da, hurrengo 30 urteetan gure ekonomia deskarbonizatu nahi badugu beroketa globala galgatzeko. Hego Euskal Herrian urtero %7´5 murriztu behar ditugu CO2 isuriak, planeta 1´5 graduko langatik gora berotzea nahi ez badugu. Baina ez hori bakarrik; energia burujabetzaren ikuspegitik ere erronka tamaina berekoa da. Hego Euskal Herrian, energia berriztagarrien kontsumoa %14,10 da (11,4 Twh). Gainontzeko guztia fosilak eta nuklearra dira eta egun 3.000 Mw energia berriztagarri baino ez da ekoizten Hego Euskal Herrian.

Zenbakiak argiak dira. Ondoko infografian Zumaiako esperientziak argi uzten duenez, autokontsumoa sustatzearekin ez da aski. Zumaiak 10.000 biztanle ditu; Bilbo handiak 1.000.000. Beraz, eskala ezberdinetako proiektuak sustatu beharko dira aldi berean, fotoboltaikoak eta eolikoak batez ere, horiek baitira berriztagarrien artean eskala handian instalatzeko potentzial handiena dutenak gaur gaurkoz.


EH Bilduk kalkulu batzuk egin ditu: kontsumitzen dugun energiaren %80 bertan ekoiztua izan dadin (beraz, %20 kanpotik ekarrita) eta kontsumoa heren bat jetsita ere, egun baino 70.000 Twh berriztagarri gehiago behar ditugu trantsizioa gauzatu eta ekonomia deskarbonizatzeko. Horretarako, hurrengo 30 urteetan 38.399 Mw berriztagarri instalatu beharko lirarteke (urteko 1.323 Mw), 47.600 milioi euroko inbertsioa eginda (egun 3.000 Mw soilik ditugu instalatuta). Hau da, egungo kontsumoaren erdia ekoizteko ere, edo beste era batera esanda, kontsumoa erdira jetsita ere, erronka kolosala da.

Argi dago erronka honi ezin diola merkatuak bere kabuz erantzun trantsizioa justua eta demokratikoa izango bada. Gidaritza publiko sendoa behar da eta burujabetza energetikora bidean, burujabetza politikoa beharko dugu. Merkatuen eta lobbyen interesen aurrean, bioaniztasunean azpiegitura hauek duten inpaktua minimizatzeko, lurraldearen planifikazioa ezinbestekoa da. Hau da; non kokatuko ditugu haize errotak eta eguzki plaka baratzeak?

Halako azpiegiturak gure paisaiaren parte bilakatu beharko ditugu.

Energia kontsumoa Hego Euskal Herrian.

● Berriztagarria ● Ez berriztagarria



Iturria: EH Bildu

Hego Euskal Herriko datu energetikoak (2019)


Energia kontsumoa (brutoa)	105,3TWh
Energia kontsumoa (netoa)	80,8 TWh [-%30]
Berriztagarriak (azken kontsumoan)	11,4TWh [%14,1]
Ez berriztagarriak (azken kontsumoan)	69,35TWh [%85,9]
Elektrizitatea MIX energetikoan	% 23,5 →

Iturria: EH Bildu

Hurrengo 30 urteetan trantsizioa egiteko Hego Euskal Herrian instalatu beharreko berriztagarri kopurua



Egun ekoizten dugun energia berriztagarri kopurua [3.000 Mw].



%80an burujabe izateko 30 urtean instalatu beharko genukeen berriztagarri kopurua [38.399 Mw].

Iturria: EH Bildu

Herrietako eskala. Berriztagarrien bidez burujabetza energetikorako Zumaiian egindako proiektuaren emaitza.



- Zumaiako energia kontsumoa urteko: 280 Gwh/urteko
- Ekoizpena eguzki plakak jarrita hartarako aukera ematen duten teilatu guztietan: eraikin publikoak, pabiloiak eta etxebizitza bloke pribatuak: 16,3 Gwh/urteko
- Ekoizpena 0,1 Mw-eko 13 haize errota txiki herriko lurretan sakabanatuta: 3,8 Gwh/urteko
- Ekoizpena biomasa jasangarriaren bidez: 0,6 Gwh/urteko
- Ekoizpena guztira: 20,7 Gwh/urteko **Kontsumo osoaren %7**

Iturria: Zumaiako Energia Estrategia 2020

Nola irudikatzen dugu etorkizuna? Distopiak marrazten dizkigute letretan eta pantailetan, jada nahikoa distopia den errealtate hau kasik izan dezakegun onena dela aitortzeraino etsipen alaiz, irribarre orbainduz, sorbaldak gora beheratuz. Batek baino gehiagok esango du oraina baino ez daukagula eta hori topera bizitzea dela geratzen zaigun helduleku ia bakarra. Baina ezin da mundua aldatu etorkizuneko planik gabe. Etzia eta ahal dela biharra irudikatu gabe. Leire Vargas idazleak *Geranioak lehortzean* ipuinaren bigarren atala dakarkizu hemen.



Leire Vargas. *Idazlea*

Geranioak lehortzean (II)

Bakarrik eseri nintzen begiratokian, pareko mendietara begira. Haien izenak ekarri nituen gogora, belar moztu berriaren usaina arnastearekin batera: Alluitz, Anboto, Iruatxeta... Abesti bat bezala, Lianek irakatsi zizkidan eran. “Begiraion hodei horri!”, esaten zidan. “Mari hor zegon, badun ospatzeko zer edo zer...”

Argazki solteak baino ez neuzkan ezagutu nuen egunetik: txikia nintzela, Martzelerekin joan gura izan nuen haren Baratze egunetako batean, fruituei hurbiletik begiratzera. Eta han zegoen Lian, adineko beste kide batzuekin. Haiek erakutsi zizkidaten piperrak eta erremolatxak eta tomateak, eta, ordutik aurrera, denbora asko igarotzen hasi nintzen haiekin, Martzelek patatak ateratzen edo mahatsa biltzen zuen bitartean. Lianen eskutik helduta, pasiadak egiten nituen gure auzoko Lorategitik, eta loreen izenak erakusten zizkidan: tulipa, lirioa, krabelina...

Bost urte bete eta eskolara joaten hasi nintzenean, ordea, denbora librea murriztu zitzaidan, eta harekin hainbeste egoteari utzi nion. Eta orain,

lau urte beranduago, joana zen.

Belaunak tolestu eta besoekin heldu nien hankei, eserlekuan uzkuartzeko. Osteko Agurrean pentsatu nuen: nire lehenengo Agurra. Beldar arrotz bat biraka zebilkidan sabelean.

Jardueren ostean bizilekura bidea egin genuen. Besteak beste, Lur eta Reno neuzkan ondoan, egunero lez, biak ere gure ibilbidean nirea baino apur bat atzeragoko etxeetakoak baitziren.

“Joango zarete gero Lianen Agurrera, ezta?”, galdetu zigun Renok.

“Ni bai... Ez nuen gertutik ezagutzen, baina senideen hurkoa zen”, azaldu zuen Lurrek. “Oxa, hik lagun huen, ezta?”, zuzendu zitzaidan, begirada epel.

“Bai, hala dun.” Isilik geratu nintzen une batez. “Oraindik gaitza zait joan dela pentsatzea.”

Martzelari ere ez nion azaldu bi egun lehenago berria jaso genuenez geroztik sentitzen ari nintzena. Bazirudien besteek erraz aurkitzen zituztela barruan gertatzen zitzaienari forma emateko berbak. Niri ez zitzaidan hala gertatzen; ez neukan zergatia azaltzerik. “Ez da zintzotasun falta”, saiatzten nintzen senideei adierazten gaia mahaigaineratzen zutenean, “izen falta baizik.”

“Ikasiko dun”, ziozan Lianek nire ezintasuna azaltzen nionean, txima zuri luzeari atzamarrekin

eraginez. “Guztiok ikas zezakenagu, eta guztia ikasten dun.” Poztu ninduen haren ahotsa atzean izango banu bezala ekar nezakeela ikusteak.

“Tira, agian hobeto sentituko haiz agur esan eta gero”, esan zuen Renok. “Bertan egongo gaitun, Oxa, badakin.” Ilea nahasi zidan, leun, bizilekura bueltako taldearekin batzeko korrika hasi aurretik, Lurrek nola. Bizilekuko atea ireki nuen, eta bi eskuak burazalean jarrita xerlo laburrak berriz haien lekuan jartzen saiatu.

Seigarren solairura heldu nintzenean, Martzele baino ez zegoen gurean.

Eskailerara hurbildu eta besarkada batekin agurtu ninduen. “Zelan eguna?”

Egongelan eseri ginen biok. “Ondo”, erantzun nuen, eta ingurura begiratu.

“Akier, Lezo eta Izar Agurra prestatzen ari ditun”, esan zuen Martzelek. “Seietan dun, ados? Laster hasi behar gaitun prestatzen.” Bere ahotsa goxoa zen, bururdi batean zehar entzundakoa bailitzan, eta eskua paratu zidan izterrean. Bere atzamar luzeak gogorgunez beteak zeuden, eraikuntzan lan egiten zuenez gero. Nire ermamiak bereekin pausatzeari ekin nion, beti egiten nuen bezala.

Brassic

Xabier Landabidea



Zuzendariak: Daniel O'Hara, Jon Wright, Saul Metzstein

Gidoia: Daniel Brocklehurst, Alex Ganley

Argazkia: Richard Stoddard

Aktoreak: Damien Molony, Joseph Gilgun, Michelle Keegan, etab...



Iturria: Sky UK Limited.

Owen Jones britainiarri irakurri niola uste dut bere *Chavs: the demonization of the working class* [Chav-ak: langile klasearen demonizazioa] ezagunean klase gorrotoak dena zeharkatzen duela kultura britainiar garaikidean, egunkarietatik hasi eta telebistako komedietaraino.

Langile klasearekin lotutako biolentzia, alkoholismo, arrazakeria, gaztetako haurdunaldi, alferkeria, kriminalitate eta bestelako estereotipo negatiboak britainiar – eta Europar- ikus-entzunezko kulturaren nonahi eta noiznahi aurki ditzakegu, dela albistegietako morboan dela umore saioetan.

Jonesek arrazoi osoa duela iruditzen zait (*Shameless* lehenengo britainiar gero ipar-amerikarra gogoratzea baino ez dago)

Brassic interesgarria da zentzu hortan, Jones-en kritikari arrazoia kendu beharrean hezur-haragizko marrak bizidun bihurtuta estereotipoen haraindiko lagun-kuadrilla bat aurkezten digulako txiste erreagionario guztiak eta bakoitza konfirmatzen dirudielarik... estereotipo hauen hutsaltasuna eta ezdeusa agerian uzteraino azelerazio hutsez.

Azeleratua, gehiegizkoa, dementsiala, inteligentea, samurra,

ezinezkoa, beharrezkoa, galduezina. Zaila da momentuz 3 denboraldi eskaini dizkigun telesail hau deskribatzea. Laguntasunari oda. Galtzaileen apologia. Gizatasunari [nagusiki maskulino baina baita femeninoari ere] gorazarre umoretsu, gordin baina harrigarriki fina.

Eguneroko gertagaitzenez bizi diren izaki harrigarri bezain maitagarri osaturiko akuario ezinezkoa. Benetan, ez galtzekoa.

eRRe ikuskizuna

Lanku, 2022



Bertsolaritzaren, antzerkiaren, musikaren, narrazioaren eta poesiaren arteko ikuskizuna da 'eRRe'. Aner Peritz, Oihana Arana, Haizea Arana eta Leire Vargas taldekideak ari dira oholtza gainean, Edurne Azkaratek zuzendutako eta Lankuk ekoiztutako obran. Otsailaren 5ean estreinatu zuten Durangon, sarrera guztiak agortuta; plazaz plaza dabilta orduetik. Elkarrekin lotura duten eta osotasun bat eraikitzen duten hamar eszena edo pieza laburrez osatuta dago. Askotariko dualismoak lantzen dira

pieza horietan: identitatea, sexu-generoa, klase soziala, adina... Bi mutur badaude, tartean zerbait egon behar dela aldarrikatzen dute modu batera edo bestera: alegia, zuria eta beltza badaude, grisa ere egongo dela.

Dualismo horiek, eraikiak izateaz gain, zapaltzaile eta zapalduen rola sortzen dituzte, eta horiek irudikatzen dituzte oholtza gainean, hainbat modutara. Hain zuzen ere, obraren izenak dioen moduan, kategoria horiek erretzearen aldarria ere bada eRRe.

Bertsoaren bueltan elkartu ziren lau gazteak; eurek dioten bezala, lagun talde batek sortutako ordu bete inguruko ikuskizuna da. Baina, bertsoa ez ezik, gaztetasuna eta marika eta bollera izatea ere badira obraren ardatz nagusiak. Begirada horretatik, ikusleari galderak eragin, barruak erre eta gorputza mugitzen dio eRRek, bitasunari su emateak deserosoa izan behar baitu ezinbestean.

<https://www.naiz.eus/eu/info/noticia/20220129/erre-kategoriak-ezabatzeraino-lausotzeko-gonbit-diziplinartekoa>

Bestaldean

Ernesto Prat Urzainki eta Jaione Dorai Oskotz. Txalaparta, 2022



Nor dira silueta beltz beti berdinen horien atzeko pertsonak? Zenbat urte dira itzal bihurtu zirela? Beste bat bihurtu behar izan ote dute? Beste nor dira gaur? Lagundu al die gordetzeak berriz hasteko? Hasteko, non? Hasteko, zertan? Nola hasi hutsetik, jakin gabe noiz arte? Galdera horiei erantzun diete Jaione Dorai eta Ernesto Prat idazle eta iheslari ohiek Txalaparta argitaletxearekin egindako Bestaldean liburuan.

1960tik 2010era bitartean, 3.000 euskal herritar inguruk ihes egin zuten beren sorterritik, eta nork bere bideari ekin zion, askotariko baldintza, garai eta geografiatan.

2014an agerraldia egin zuen iheslarien kolektiboak Arrangoitzen, eta ordutik ari dira pixkana haietako asko sorterrira itzultzen. Hargatik, tantaka baino ez dugu jaso haien ibilbidearen eta erbestean igarotako bizialdiaren berri, eta neurri handi batean ezezaguna da oraindik

euskal iheslari politikoen errealitatea jendarte zabalaren begi-belarrietara. Liburu honek, zenbait iheslariaren lekukotzaren bitartez, hamarkadatan luzatu den eta oraindik amaitu ez den deserriaren bidaian murgiltzeko tresna izan nahi du. Noizbait iheslari guztien egoera konponduko bada, ezinbestekoa baita bizitakoak eta bizitzen ari direnak ezagutzera ematea.

Los olvidados. Ficción de un proletariado reaccionario

Antonio Gómez Villar. Bellaterra, 2022



Antonio Gómez nos muestra un tipo de izquierda que «buscando a la clase obrera pura olvida la lucha de clases real, la realmente existente. Solo pueden buscar al proletariado en su fantasía y no en su experiencia real y concreta».

En una época marcada por los intentos frustrados de transformación social, y desde un afecto de desesperanza y cancelación del futuro, proliferan discursos que acusan a la izquierda de haber abandonado a la clase trabajadora y desatendido la politización de la cuestión social. La lucha de clases, los problemas

económicos y las preocupaciones materiales habrían sido sustituidas por las políticas de la identidad y las luchas por el reconocimiento. Se señala una complicidad entre la llamada «izquierda cultural» y el neoliberalismo. Y quienes han quedado excluidos de esta alianza progresista reciben el nombre de los olvidados, los perdedores de la globalización, quienes quedaron en los márgenes en la América desindustrializada de Detroit, en la Francia periférica, en la España vacía o en la Inglaterra rural.

Este ensayo se propone atender a la coartada reaccionaria que se esconde tras estos planteamientos. Los olvidados son presentados como una imagen en la que parece vivir aun cierta pureza y evidencia proletaria. Pero se trata de una superficie de inscripción de odios y resentimientos. Contrario a este conservadurismo sensible, necesitamos trazar nuevos imaginarios que den cuenta de la fragilidad identitaria de nuestras sociedades luego de la larga travesía que nos legó la derrota obrera del siglo pasado, y sus hilos latentes aún por descubrir.

Dena ametsa den irudipena

Leire Vargas Nieto. Elkar, 2021



Izaro Zinkunegi

Kontzientzia hartze baten kontakizuna da *Dena ametsa den irudipena* Vargasen lehen poema liburua. Hiru ataletan banatuta daude bilduma osatzen duten 40 poemak: *Zuloak*, *Ateak* eta *Zubiak*. Idazleak azaldu duenez, 16 urtetatik gaurdaino idatzitako poemak jaso ditu, eta lan honek 2021eko Irun Hiriko Kutxa Literatur Saria irabazi zuen.

Helduarora bidean egindako hiru norabidetako kontzientzia hartze bat jaso du Vargasek, liburuko hiru ataletan banatuta: lehenengoan, *Zuloak* atalean, gorputzetik egindako kontzientzia hartzearen inguruko

poemak daude, baita norbere itxurari eta gorputzari lotuta sortzen diren gatazkak ere. Kontraesanez, nor izateaz, besteen begiradaz.. zeharkatutako poemak dira.

Bigarrenean, *Ateak* atalean, kontzientzia hartze politiko eta ideologiko bat sumatzen da. Kaleak, jendarteak, borroka, inertziak... aipatzen ditu, besteak beste. "Desiotik sortzen da mundu ikuspegi bat?" edo "Nola irakatsi nire buruari bularrarekin bat egiten?" gisako galderak aieratzen ditu, barrura bezainbeste kanpora begiratzen dutenak.

Eta *Zubiak* hirugarren eta azken atalean, berriz, pertsonen arteko harremanei egiten die so; horietan dugun posizioaren inguruko kontzientzia hartze bat islatzen dute poemak. Interdependentziaren, hau da, besteekiko behararen inguruko gatazkaz hitz egiten du Vargasek poemotan.

Bilakaera pertsonal bat jasotzen du nolabait Vargasek liburu honetan, soiltasunetik bezainbeste sakontasunetik. Eta, norbere zuloak, ateak eta zubiak bilatzeko eta zeharkatzeko aukera irekiko dio irakurleari *Dena ametsa den irudipena* liburuak.

Ez erran inori

Maddi Ane Txoperena Iribarren. Elkar, 2022



Gai mingarria hautatu du Maddi Ane Txoperenak bere bigarren eleberria ontzeko, sarritan ezkutuan gorde nahi izan dena, tabuaren izarapean estali, baina mina sufritu duenak ezin ahantzi, isiltasunaren bidez ezin gizartearen zauriak itxi. Kontaketarako trebezia eta hizkuntzaren menderatzeaz gain, gaiaren gaineko ezagutza sakona eta sentiberatasun fina erakusten dizkigu egileak.

Dra egiten du paradoxakin: ez erran inori izenburuaz jantzia den nobelak, isiltasunaz hausten du. Gai nagusia haurtzaroko sexu abusu bat da baina, ez soilik. Barne piztia hitz

egiten da baina, ez soilik. Jendarte arazo bat izendatzen da baina, ez soilik. Minaz hitz egiten da, baina, ez soilik. Hitz egiten du lehen pertsona eta bigarrena nahasiz, maiz norberak daroan arren, bizi garen sistema hetero-patriarkal honen arrakalak argiztatu eta kolektibo eginaz.

Lideren bitartez, haurtzaroen pairatutako sexu eraso batek izan ditzakeen hariak eta piztia agertuko dira nobelan zehar. Dударik gabe, Lidek eraso matxistak (kasu honetan sexuala) dituen ertz ezberdinak nahiz eragin sistemikoa ezagutu eta sakontzeko aukera gogorra irekitzen digu, interpelatzen gaitu.

Bikaina, pertsonaren garapenean duen eraginaz, bikaina emozioak hitzez sentiarazteaz, bikaina norbere arlo psikosozialaren egituraketaz, bikaina minaren bizipenak idazteko moduan, bikaina autoreak eramaten duen bidea. Fikzio honek errealitatea ezagutu, errealitateaz aritu eta eraldatzeko aukera ematen du. Interpelatu eta mugiarazi gaitzala.

Entender la Rusia de Putin. De la humillación al restablecimiento

Rafael Poch-de-Feliu. Akal, 2018



Rafael Poch-de-Feliu kazetaria nazioarteko korrespontsala izan da 35 urtez. Horietatik 14 Errusian eman ditu eta ondoren beste sei Txinan. Sobiet Batasunaren azken urteak eta 90eko hamarkadako aldaketa guztia lehen eskutik bizi izan zituen. Esperientzia horretan oinarritutako ezagutzatik hainbat liburu idatzi ditu. 2018an kaleratutako liburu honek gaur gertatzen ari dena ulertzeko gako asko ematen ditu. Putinen erregimena, bere nazionalismoa, mendebaldearekiko mesfidantza eta Errusiako gizartearen guzti horrek duen kontsentsua ezin dira ulertu 90. hamarkadan milioika herritarren kontzientzian iltzatuta geratu zen humilazio sentsazioarik

gabe: SEBSen disolbatuta, eliteek ondasunak harpilatu ostean, Errusian zein nazioartean prestigioa berreskuratzeko lanari ekin zioten. Putin misio horretarako ezaugarriak dituen pertsona da: leihala eta obedienta, ez ustela, Estatu ikuspegiduna eta aldi berean, sobietar esperientziaren ideologiarekin erabat desengainatua eta Errusian desberdintasun sozial handiak eragin dituen pribatizazio prozesua zalantzan jarriko ez zuena. Horrez gain, Errusiako kultura politikoa eta azken bi mendeetako bilakaera ulertzeko gakoak ere ematen ditu liburuak: erlijioak, zarismoak zein lurraldearen beraren estentsioak determinatutako bilakaera.

Estallidos

Jule Goikoetxea y Albert Noguera. Bellaterra, 2021



El siglo XXI ha abierto un nuevo ciclo de estallidos sociales en las ciudades del mundo. Las revueltas de Túnez, Turquía, Egipto y Libia, la batalla de Urquinaona de Barcelona seguida por las movilizaciones contra los encarcelamientos, entre otros, de Hasel, las protestas de Chile, Colombia y Ecuador, los chalecos amarillos en Francia, las manifestaciones feministas en Argentina, Polonia y España y los estallidos sociales en EE. UU. son solo unos pocos ejemplos.

Alzamientos que estallan de manera imprevista, que aparecen y desaparecen y que son protagonizados por una masa heterogénea entre la que encontramos nuevos sujetos y nuevas demandas que obligan a repensar y redefinir muchos de

los conceptos clásicos de la teoría política revolucionaria.

Una redefinición de conceptos clásicos de la teoría marxista a partir del análisis de los estallidos sociales desde la metodología de la dialéctica materialista. A menudo, el marxismo ortodoxo utiliza conceptos como proletariado, burguesía y capital, e interrelaciones, como explotación y lucha de clases, propios del siglo XIX, y los considera como si fueren verdades absolutas, universales y generales aplicables a cualquier tiempo y realidad. La realidad nos obliga a tener que reconstruir conceptos como: proletariado, burguesía y lucha de clases.

Goikoetxea y Noguera proponen partir de una realidad concreta para crear teoría. Observar cuáles

son los sujetos, las consecuencias, las causas y los resultados de los estallidos. Y, como las realidades cambian, la teoría que deriva de ellas nos obliga, inevitablemente, a redefinir los conceptos.

Jule Goikoetxea, filósofa política y escritora, y Albert Noguera, jurista y politólogo, dialogan sobre cómo los recientes acontecimientos están transformando todo el andamiaje conceptual de la izquierda y cómo aprender de ello.

In my skin

Telesaia. BBC, 2018



Izugarrizko karga emozionala duen telesaila da, coming-of-age generoaz (helduarora trantsizioa) baliatuz komedia eta dramaren artean mugitzen baita une oro, eta ikusleari familia egoera guztiz lazgarria helaraztea lortzen du.

Molly Manners-ek eta Lucy Forbes-ek zuzendutako eta Kayleigh Llewellyn-ek sortutako komedia dramatiko beltza da, familiako bizitza disfuncionala isilpean gorde nahi duen nerabe baten bizitza gogorra azaltzen duena. Gabrielle Creevy-k Bethanen paperea interpretatzen du. Bethan

protagonista, bere bizitza familiarra lagunei zein irakasleei ezkututzen dien neska galesa da.

Izugarrizko karga emozional duen telesaila da, coming-of-age generoaz baliatuz komedia eta dramaren artean mugitzen baita une oro, eta ikusleari familia egoera guztiz lazgarria helaraztea lortzen du.

Bethanek guztiei gauza bera esaten die, aita funtzionarioa dela eta amak giza baliabideen departamentuko enpresa batean lan egiten duela. Baina Bethanen errealitatea oso bestelakoa

da, familia egoera jasanezina baita oso.

Gidoi mailan bikaina eta ikus-entzunezko lengoaiari dagokionez ere nabarmetzen da; une jakin batzuetan laugarren horma hausten du protagonistak, eta bere pentsamenduen off ahotsarekin batera oso ondo erabiltzen den baliabidea da, telesailari ñabardurak eta sakontasuna ematen dizkiona.

Telebista britainiarraren azken fenomeno handia da eta BAFTA Cymru eta RTS Programaren sariak jaso ditu.

Araka ditzagun gure bazterrak

Euskal Herriko Bilgune Feminista / Emagin, Lisipe. Susa, 2022

* Uhinak beken laguntza jaso du [Iratzar eta Iparhegoa fundazioen beka]



Euskal Herriko Bilgune Feminista eta Emagin talde feministek, elkarlanean idatzi dute *Araka ditzagun gure bazterrak* liburua. Kritika dekolonialak zeharkaturiko ibilbide kolektibo feminista bat da Lisipe pentsamendu feministaren bildumako hamaikagarren alea.


Liburu hau eragileok dekolonialitatearen inguruan egindako hausnarketak, jasotako interpelazioak eta ibilitako prozesuak sistematizatzeko saiakera da eta emakume migratzaile eta arrazializatuak hartzen dituzte erreferentzia gisa, hausnarketa kolektibo baten isla da. Erantzunez baino, galderaz beteta dago. Ardatz nagusiak arrazakeria eta dekolonitatea dira, eta ildo horretatik gorpuztu dira itaun gehienak: arrazistak al gara? Zein da arrazakeriaren aurkako borrokan egin behar dugun ekarpena? Zer da emakume zuri

euskaldunoi ez dagokiguna? Nolako zubi edo aliantzak eraiki behar ditugu feminismoan emakume migratzaile eta arrazializatuekin? Zeintzuk dira herri ukatu gisa ditugun erroak? Nolako izango litzateke Euskal Herri dekoloniala?

Dekolonialitatearen eztabaidak nondik nora zeharkatu zaien azaleratzeko, lau atal nagusitan osatu dute ariketa hau: lehen geltokian, ibilbide kolektibo nahiz pertsonalean bizi izan dituzten egoera zenbaitek eragindako klak horiek [haustura-egoera horiek] bildu dituzte eta arrakala horiek eragindako sententziak batuz; bigarren atalean, klak horiek eragindako jakin-minetik zein deserosotasunetatik abiatuta, jardun feminista janzteko egin dituzten hausnarketak, ekimenak, aliantzak eta esperientziak jasoz; hirugarren atalean, *Araka ditzagun gure bazterrak Emakume* Abertzaleon VIII. Topaketa Feministetako kronika*

jasoz; eta azkenik, laugarren atalean, aurrera begira jarri dira, etorkizuneko lan-lerroak, asmoak eta praktika eraldatzaileak zirriborratuz. Egileek adierazi dutenez, "ez da ariketa erraza gai honen inguruan hitza hartzea, ezta horretarako kokaleku egokia topatzea ere. Umiltasunetik egiten dugu, dena entzuteko eta dena ikasteko daukagula jakitun. Deserosotasunari eta kontraesanari iskin egin gabe, bertan gordetzen direlako korapiloak askatzeko bidezidorrik interesgarrienak. Askotariko begiradak gorpuzten, arrazakeria izendatzen eta gatazka politizatzen irakatsi diguten konpa migratzaile eta arrazializatuak dira gure erreferente nagusiak birkokatze-prozesu honetan. Bihoakie haiei geure aitortza eta eskerrik beroenak".

SARE sozialetarako gomendioak



IG: @superwrongmagazine
Umorezko collage eta pintura surrealistikak. Umorea erabilia kritika politikoa egiten du.



IG: @kulturtava
Zuri beltzeko kontrastea landuz argazki artistikoen bilduma bat da. Gorputzak, paisaiak eta animaliak agertzen dira batik bat, baina eraikinak eta argi-itzalen jolasak ere ohikoak dira.



IG: @:_bertikala_
Sara del Rio Loiarrek eta Laura Re Lozanok gidatutako podcasta. Entzungai Spotifyen eta ikusgai Youtuben. Umorearen bitartez gai tabuak lantzen dituzte, errealtateko eta fikziozko kontakizunak uztartuz.



«Bifoiak hartu du sugarren koroa, bakera aldarrikatzeko» Oier Zuhiga

